

MASTER AMAIERAKO LANA
2016 IRAILA

EGILEA:
GARAZI LIZASO MANTEROLA

ZUZENDARIAK:
XURXO AYÁN VILA
AGUSTIN AZKARATE GARAI-OLAUN



Birrintutakoa berpizten.
Ahaztutako arkitekturak eta emakumeak:
Saturrarango emakumezkoen espetxearen adibidea

emari ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Eraikitako Ondarearen eta Eraikinen Birgaitze,
Zaharberitze eta Kudeaketa Unibertsitate Masterra



*Gorri eta more
ez dinagu emango amore!*

Ekhiñe Eizagirre Zubiaurre

Eskerrak eman nahi dizkiet lan hau posible egin duten guzti-guztiei: familiakoei, lagunei, ezagunei, kideei, zuri txiki eta hemen aipatzen ez ditudan horiei ere bai. Izan nirekin pazientzia mugagabea eduki duzuelako, animoak eman dizkidazuelako edota kilometro batzuk haragotik edo itsaso batzuk honagotik, modu batean ala bestean, lagundu didazuelako.

Bereziki, eskerrak zuei,
zapalkuntza ezberdinen aurrean egunero hortzak erakutsi eta borrokan dirauzuenoi,
diraugunoi.



AURKIBIDEA

1. Sarrera	4
1.1. Eraikitako memoria	4
1.2. Ondarea	5
1.3. Ahaztutako arkitekturak	5
2. Helburua	7
3. Metodologia	9
4. Testuinguru historiko, sozial eta politikoa	12
4.1. Gernikako bonbardaketa	13
4.2. Autonomia Estatutua	14
4.3. Gerra Zibilaren ondorioak	14
5. Emakumeen errealitatea frankismo garaian	15
5.1. Emakumeen papera	15
5.2. Zigor bikoitza	16
5.2.1. Espetxe zigorrari lotutakoak	17
5.2.2. Zigor sozialari lotutakoak	18
6. Emakumeak eta espetxea	20
6.1. Lehen emakume espetxeak: Galera Etxeak eta Miserikordia Etxeak	20
6.2. Emakumezkoen kartzela "modernoak". Printzipio erreformistak.	22
6.3. II. Errepublika eta diktadura frankista	23
7. Saturrarango Espetxe Nagusia	25
7.1. Datu orokorrak	25
7.1.1. Kokalekua	25
7.1.2. Martxan eman zituen urteak	26
7.1.3. Saturrarango eraikinen historia. Erabileraren garapena.	27
7.2. Espetxe-unibertso frankista	28
7.3. Saturrarango bizimodua	30
7.3.1. Gaixotasunak eta heriotzak	31
7.4. Espetxeko zaindariak, zuzendariak, kapilauak eta sendagilea	32
7.4.1. Mojak eta militarrik	32
7.4.2. Espetxeko zuzendariak	33



7.4.3. Kapilauak	34
7.4.4. Sendagilea.....	34
7.5. Preso kopurua.....	34
7.5.1. Presoen nolakotasuna	35
7.6. Saturrarango umeak	37
8. Espetxearen arkitektura	41
8.1. Espetxe arkitekturaren helburuak	41
8.2. Propaganda frankista	43
8.3. Espetxearen egituraketa	44
8.3.1. Gunearen deskribapena	45
8.3.2. Presoen banaketa eta eraikinen erabilerak	49
8.4. Espetxe-arkitekturaren asmoak	51
8.4.1. Eraikinen egoera	53
8.4.2. Masifikazioa eta higiena.....	54
8.4.3. Jantokia.....	54
8.4.4. Elikadura	55
8.4.5. Erietxea. Gaixotasunak eta heriotzak.	55
8.4.6. Kapera	56
8.4.7. Buena Vista	56
8.4.8. Gran Hotel Balneario	56
8.4.9. Frontoia.....	57
8.4.10 Zigor ziegak.....	58
8.4.11. Hilerria	58
9. Ondorioak.....	59
10. Bibliografia	67
10.1. Liburuak eta artikulak	67
10.2. Interneteko estekak.....	68
10.3. Bestelakoak.....	69

1. Sarrera

Gerra Zibil garaiko espazioak gatazka eta diktadurarekin lotzen ditugu. Besteak beste, hobi komunak, gudu zelaiak eta espetxeak datozkigu burura. 1936. urteko uztailetik aurrera lubakiak, preso eremuak, abiazioak eta artilleriak birindutako herriak, monumentu nazional-katolikoak eta hobi komunak topatu izan dira han eta hemen. Hala ere, aipatzekoa da indarkeria sistematikoak, fisikoak eta sinbolikoak markatutako paisaiak ez zirela 1939an bukatu. Lan honetan Saturrarango emakumezkoen espetxean izango dugu jo-puntuan. Eremu hauek sakon ikertzerako orduan ezinbestekoa da diziplina ezberdinen arteko elkarlana.

Ahalik eta informazio gehien eskuratzeko norabidean, Arkitekturaren Arkeologia (AA aurrerantzean) diziplinarekin egingo dugu topo. AA arkeologiaren adaxka bat da, zeinetan arkeologia diziplinako tresnak eta kontzeptuak erabiltzen diren arkitektura aztertzeko. Arkeologiak iraganeko jendarteak ikertzen ditu hauen hondarretatik lortutako informaziotik jakinduria sortuz. Arkitekturak aztertzerako kasuan, eraikin izandakoetatik geratzen dena izango dira aztergai.

Saturrarango emakumezkoen kartzela Espainia mailako garrantzitsuenetariko bat izan zen; 1938 eta 1944 urte bitartean egon zen martxan kartzela hau. 1987an eraitsi zituzten presondegia osatu zuten eraikin guztiak eta ez da apenas arrasto materialik geratu. Gaur egun arte ez da indusketa arkeologikorik aurrera eraman.

Mutrikuko Saturrarango hondartzan zeuden eraikinei kartzela erabilera eman zitzaizkionean, bertako arkitekturak eta elementu arkitektonikoek izaera hori nola bereganatu zuten eta nola moldatu ziren azalera da lan honen helburua. Finean, eraikinek inprobisatutako erabileretara egokitzeko duten erraztasuna edota gaitasuna. Bestela esanda, arkitekturaren atzean ezkututzen diren asmoak argitara eramatea, ankerkeriak areagotzeko tresna ere izan daitekeela ulertuta.

Gauzak horrela, nondik norakoak ulertzeko, beharrezkoa da kontzeptu batzuk argitzea, besteak beste, eraikitako memoria, ondarea edota ahaztutako arkitekturak.

1.1. *Eraikitako memoria*

Eraikitako memoria kontzeptuak bi adiera izan ditzake: batetik, ondare arkitektoniko gisa uler daiteke, zerbait materiala balitz bezala, eraikia; bestetik, memoriaren eraikuntza gisa, memoria orainalditik (berr)eraikitzen dela ulertuta.

Bigarren adiera horri lotuta, aipatu beharra dago iragana ez dela egonkorra eta ez dela bakarra. Iragana orainalditik berreraikitzen da, behin eta berriz. Berreraikitze ariketa hori eginez osatzen da memoria eta, jakina den moduan, memoria anitza da. Egungo interes dominatzaileen arabera berreraiki eta gaurkotzen da iragana, berreraikitze hori posizio eta perspektiba ezberdinetatik gauzatu daiteke.

Memoriaz hitz egiten denean, momentu zehatz batean, interes zehatz batzuetatik gauzatutako berreraikuntzari egiten zaio erreferentzia. Oroimena denboran zehar aldagarria den eraikuntza soziala da. Behin hau esanda, ondarearen izaera sozialari



eta memoria historizatuari buruz, hau da, iraganari esanahia berriz emateari buruz hitz egitea saihestezina da.

Beraz, kontu handia izan behar da, izatez historia ez baita bakarra. Ez da berbera pertsona guzientzat. Egia asko ilunpean daude, kontatu gabe, eta egiazkotzat hartutako hainbat informazio ez dira egia.

Ezkutatutako historiak daude eta hauek ekintza politiko kontzienteen ondorio dira, memoriak eta pertsonak deusezteko helburuarekin. Ikusezin egitearen estrategia. Emakumezkoen espetxeen kasuek, lan honetan hizpide dugunak tartean, ikusezintasun bikoitza jasaten dute: emakumezkoak izateagatik eta erregimenaren aldekoak ez izateagatik.

1.2. Ondarea

Borgesek esan bezala, memoria ahanzturaz egina dago. Hortik memoriaren kudeaketak duen garrantzia, ahanzturaren kezka. Ahanzturaz hitz egiterakoan, kontzienteki ala inkontzienteki, iragana berreraikitzen den bakoitzean *ilunpean* geratzen diren eremu horiei egiten zaie erreferentzia. Ahanztura hauek ere oroimena osatzen dute.

Memoria kolektiboa da. Memoria zer den eta zer ez den ez dago argi definituta, zer oroitu behar den garrantzia duelako eta zerk ez duen garrantzia, hots, zer ahaztu daitekeen. Ondare izendatzeak berebiziko pisua du hor, izan ere, ondarea zer den eta zer ez den ez inpartzialki edo halabeharrez erabakitzen.

Aztergai den espetxea Euskal Herriko ondarearen zati da, nahiz ahaztetik gertu egon den urte askotan. Ilunpetan egonagatik, kartzela honen inguruko memoria berreskuratzea ezinbestekoa da. Oroitzeko bezainbeste garrantzia izatea ukatu bazaio ere, gure iraganaren zati da, gure izanaren parte, eta horrek balioa ematen dio.

Beraz, ondarea hautatu egiten dela esan daiteke, gaur egun ondareztat hartzen dena ez dela objektiboki ondare izendatu ere azpimarratu beharra dago, balorea eta prestigioa interesen arabera esleitzen baitira. Ondare arkitektonikoari dagokionean, garrantzia irizpide zehatz batzuen baitan eman izan zaiela adierazi behar da. Horren adibide garbia da, espazio publikoak izan duen protagonismoa, oro har, gizonezkoek bereganatutakoa eta espazio pribatuak, aldiz, jasan duen (eta jasaten duen) ikusezintasuna, emakumeei esleitutakoa. Beste adibide bat, kultura praktikatu izan den eraikinena da, hauei eman zaien garrantzia, emandako prestigio eta balorea ere azpimarratzekoak dira; beharbada, tradizionalki ontasunarekin lotuak izan direlako. Saturrarango espetxearen kasua, ordea, ez da hori.

1.3. Ahaztutako arkitekturak

Hirugarren kontzeptu gisa, ahaztutako arkitekturak leudeke. Horiei dagokienean, gerta litekeena da, gaur egun, ahaztutako arkitekturen materialtasuna bere horretan ez ezagutzea edota garai historiko zehatz batean edo espazio konkretu batean kokatzeko zailtasunak izatea, eraitsiak izan direlako. Hala ere, ikusezintasuna azaltzeko gogoeta soziologiko batzuk egitea beharrezkoa da.



Arkitektura ahaztuek hiru puntu amankomun dituzte: batetik, ez dute prestigio sozialik; bestetik, arrazoi bisual edo espazial falta dutela leporatzen zaie; eta, azkenik, ikusezintasun historikoa pairatu dute.

Lehen puntuaren harira, oso zaila da espetxea eta prestigio soziala lotzea, izan ere, espetxea zerbait negatiboarekin lotzen da jendartean. Honi emakumeen espetxea izatea gehitu behar zaio, emakumeek, emakume izate hutsagatik, arlo ezberdinetan, jasaten duten ikusezintasunarekin. Emakumeak ez dira subjektu gisa kontsideratuak izan eta beraien jardun politikoa ere gutxietsia izan da, zer esanik ez erregimenaren aldekoak ez ziren emakumeen jarduna: frankismoak berak ez-ezik, euren burkideek ere ez zituzten aintzat hartu. Isilduak eta umiliatuak izan ziren eta gaur egungo aitorten ezak ere, nolabait, euren jarduna eta izana isilarazi egiten du.

Arrazoi bisual edo espazial faltari lotuta, berriz, espetxea osatu zuten eraikinak eraitsiak izan zirela esan beharra dago. Beraz, ahanzturan erortzea erraztu du horrek. Kartzelako eraikuntza ezberdinen artean luxuzko hotel bainuetxea izandako *Gran Hotel* eraikina zen ikusgarriena. Hala ere, bere egoera, gainontzeko eraikinena bezalaxe, urteetan zehar hondatzen joan zen.

Azken puntua ikusezintasun historikoarena litzateke. Puntu honetara iritsita, garrantzitsua da ikusezintasun horren arrazoiak arakatzea. Zergatik izan diren ahaztuak galdetu behar da eta ahanztura horren arrazoiak ikertu. Arrazoi gurutzatuak izan daitezke, arau eta normaltasunetik kanpo geratutakoak, bazterretan: guda *galdu* zutenak izateari emakumeak izatearen ikusezintasuna gehitu behar zaio. Lehenago aipatu den moduan, interes zehatz batzuen baitan soilik egindako berreraikuntza gisa ulertu behar da historia. Memoria historikoaren berreskurapena bultzatuz, garrantzitsua da arkitektura hauek eta, era berean, eraikin horietan emakumeek pairatutakoak urteetan jasan duen ikusezintasuna salatu eta azaleratzea. Gaiari merezi duen zentralitatea eta garrantzia ematea, fokua jartzea, jendartearen oroimenean bere lekua egitea.

Arkitekturaren Arkeologia diziplinan memoria horren berreskurapenean ari dira lanean. Arkeologia ezinbesteko tresna da arkitekturetatik edota eraikinetatik gelditzen dena dokumentu historiko gisa ulertu eta ikertzeko.

2. Helburua

Saturrarango hondartza ertzeko ondareak bizi izan zuen eta, gaur egun oraindik ere, bizi duen abandonu, ikusezintasun eta suntsipen egoera iraultzea izango litzateke xede nagusia. Horretarako hainbeste urteetan ezkutatutako informazioa bildu eta egoera hau ezagutaraztera bideratuko lituzkeen ekimenak sustatu beharko lirateke. Bertan zutik zeuden eraikinek ondare historikoaren aldetik garrantzia bazuten ere, eraitsi eta desagerrarazi egin zituzten. Euren izana bera ere bortizki ezabatu zuten.

Baliteke eraisketa eta desagerrarazte horren atzean interes politikoak edota erakunde publiko zein pribatuen inplikazio falta egotea. Suntsitze edo desagerpen horren arrazoietako bat ondare izaera aitortu ez eta babes-mailarik aplikatu ez izana legoke. Bestela esanda, ondare horren monumentaltasun eskasa edo balio artistiko urria. Ahaztutako arkitekturatzat hartzea finean. Horrek, ordea, ez du esan nahi haren balio historikoa hutsaren hurrengoa zenik/denik eta ideia hori transmititzea ezinbestekoa da.

Saturrarango itsasertzeko eraikinei lapurtutako memoria historikoa osatu nahi izan da. Ondorioz, eraikinen erabileren kronologia, unean uneko funtzioak, bertan bizi izan ziren maizter ezberdinak eta hauen ezaugarriak bildu dira. Ardatz gisa Saturrarango emakumezkoen espetxe nagusia izan zeneko garaia hartu da; berau testuinguru baten baitan kokatu da hobeto ulertarazi eta ondoren, jendarteratzeko errazagoa izan dadin.

Izenburuak dioen moduan, 1980. hamarkadan birindutakoa, paper artean bada ere, berpiztea da lan honen helburua. 1938. eta 1944. urteen tartean gertatutakoak jaso nahi izan dira, arkitekturaren potentzialtasunari buruz hausnartzeko parada eginez. Helburu horretarako ahaztutako arkitekturen kontzeptua eta arkitektura bera tresna gisa ulertzearen ideia hartu ditut oinarri, elementu ezberdinak uztartzearen emaitza baita ikergai dugun presondegia. Arkitekturari, espetxe arkitekturaren logika zitalaren baitan, emandako erabilerak presoengan izan zuen eragina azaleratu nahi izan da. Beste hainbat erabileren artean, aztergai ditugun eraikinek emakumezkoen kartzela osatu zuten eta horiek eraistek bertan jazotakoak jendartearen memoriatik ezabatzea ekarri du. Bestela ere, ikusezintasun bikoitza pairatzera kondenatuak izan ziren Saturrarango giltzaperatuak: emakumeak izateagatik eta frankismoarekin bat ez egiteagatik. Horrekin lotuta doa, sarreran aipaturiko ahaztutako arkitekturen kontzeptua.

Baliteke metodo hauen bidez jendartearen ondarearen inguruko iritzi kritikoa sortzea, ondare gisa sailkatutakoa ezbaian jarriz; argi fokuak norabide batean ezartzean, ilunpeak sortzen direlako. Horri ondare izaera aitortzeak eta babes-mekanismoek gizarteak zer oroitut behar duen eta zer ahaztu dezakeenaren erabaki garrantzitsua gehitu behar zaio; bertan gure izana dago jokoan eta horren atzean modu ezberdinetako interesak. Horrek balio arkitektonikoa eta artistikoa ez-ezik, beste hainbat balio edo ezaugarri ere kontutan hartzera bultzatuko luke. Beraz, ondarearen kontserbazioarekiko kontzientziazio maila haztea lor daiteke, baita egun erakundeek ondarean erabilitako babes mekanismoak hobetzea ere. Horrez gain, arkitektura arte edo zientzia objektibo bezala ulertu ordez, jendarte jakin bateko baloreak islatzen dituen tresna gisa ulertzea ahalbidetu dezake lan honetan erabilitako metodologiak.



Horretarako Master Amaierako Lan honen bidez, ahaztutako arkitekturen eta memoria historikoaren azterketa sakon bat aplikatzea proposatu nahiko nuke, Castuerako kontzentrazio eremuan eginikoaren antzekoa, desagerrarazi eta ikusezin bilakatu nahi izan dituzten eremuak ikertu eta ondarearen kudeaketa eta mantenu lanetaraino iritsiko litzatekeena. Hau lehen pausu bat besterik ez litzateke izango.

3. Metodologia

Kasu honetan izaera desberdinetako iturriak kontsultatzeko aukera izan da ahalik eta informazio osotuena biltzeko asmoz. Ondorioz, iturri-idatzi, iturri-grafiko, elkarrizketak, ahozko zein idatziko testigantzak, hitzaldi eta dokumentaletan egin da bilaketa.

Lana hainbat ataletan egitura nahi izan da, hala nola, testuinguru historiko, sozial eta politiko baitan kokatu nahi izan da garaiko egoeraren ezagupenak Saturrarango espetxean jazotakoak ulertzea errazten duelako. Horretarako beharrezkoak izan dira *Los crímenes de Franco en Euskal Herria: 1936-1940* (Egaña, 2009) liburua eta *Ha llegado España: Arqueología de la memoria nacionalcatólica en Euskadi* (Ayán Vila eta García Rodríguez, 2016) artikulua. Biak XX. mendeko hirugarren hamarkadako Euskal Herriko errealitateaz mintzo dira, errepresio frankistaren nondik norakoak aipatzen dituzte, baita orduko euskaldunen izaera katolikoa ere.

Testuinguraketa osatzeko asmoz ahaztutako arkitekturen kontzeptua eta *Gerra Zibila* deritzonaren inguruko arkeologiari buruzko bi artikulua landu dira: *La arqueología y la recuperación de las "arquitecturas olvidadas"* (Azkarate eta Lasagabaster, 2006) eta *Actas del I Congreso Internacional de Arqueología de la guerra civil española* (Ayán Vila eta García Rodríguez, 2014). Oso baliagarriak izan dira bi lanak gaia perspektiba zabalago batetik lantzeko aukera eskaini dutelako. Ahaztutako arkitekturen kontzeptuaren ezagupenak Saturrarango espetxea kasu isolatu bat bezala ulertu ordez logika baten baitan kokaraztea ahalbidetu du, izan ere, ez da eraitzia izan den edota abandonu egoeran dagoen kasu bakarra. Bestalde, *Gerra Zibila* deiturikoaren arkeologiaren inguruan sakontzeak, disziplina ezberdinen uztartzetatik haratago, Saturrarango arrastoen trataera eta horri eman beharreko irtenbidearen inguruan hausnartzera bultzatu du.

Espetxe arkitekturaren inguruan hain ezaguna den pentsalari frantziarraren *Vigilar y Castigar. Nacimiento de la prisión* (Michel Foucault, 1979) liburua mamitu da. Bertan espetxearen helburuak zeintzuk diren, bertako tresnak eta funtzionamendua azaltzeaz gain, egituraketa bera ere argitzen da. Aipatzekoa da emakumezkoen espetxeen inguruan ez duela lanketarik gauzatu Foucaultek, emakumea eta espetxeaz ez da apenas ezer argitaratu. Bide horretan *Corregir y castigar. El ayer y hoy de las cárceles de mujeres* (E. Almeda, 2002) eta *Mujeres encarceladas* (E. Almeda, 2002) artikulua oso lagungarriak izan dira emakumezkoen errealitatean oinarritzen direlako lan hauek. Aipatu Kultura Feministaren X. Jaialdiaren baitako *Mugaren arkitektura: Kartzela hitzaldia* (Santesteban, Etxebarrieta eta Rodríguez, 2015) baliagarria izan dela hainbat hausnarketarako, espetxean egoniko emakumeen bizipenak zuzenean eta kartzela ikergaitzat duten adituak entzuteko aukera eman zidalako.

Esan bezala, emakumea eta espetxeak duen estigmari, diktadura luze baten osteko tabu izaera kontutan hartu beharra dago. Beharbada hori da Saturrarango espetxearen inguruan dokumentazio asko ez egotearen arrazoia. Hala ere, espetxe honetan oinarritutako ikerketa lan bat *Situación penitenciaria de las mujeres en la cárcel de Saturrarán durante la Guerra Civil Española y la primera posguerra* (Jiménez, León, Orbegozo, Pego, Pérez eta Vodozmediano, 2012) eta liburu bana *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos. La cárcel de Saturrarán y la represión franquista contra las mujeres, a partir de testimonios de supervivientes* (Gonzalez-Gorosarri eta

Barinaga, 2010) eskura izatea ezinbestekoa izan da presondegiaren inguruko arlo ezberdinetako datuak eta idatzizko testigantzak ezagutzeko. Testigantzei jarraiki, Josefa Segret, irakaslea lanbidez, Saturrarango preso ohi galiziarren egunerokoaren zati bat (publikatu gabea) lortu da; horrek Saturrarango espetxean 1938. eta 1944. urte bitartean bizitakoak momentuan sentitu zituen modura ezagutzea ahalbidetu du, egun altxor bat da horrelako iturri bat.

Emakumeak eta espetxealdia hobeto ulertzeko asmotan, *Erlazio afektibo sexualak espetxe garaian, askatasun (g)une? Hainbat euskal emakumeren esperientziak*, (Echevarrieta Legrand, 2013) Master Amaierako Lana (publikatu gabea) eta *Mujer y cárcel y Emakunde* (Arteaga, 1990) artikulua landu dira. Espetxeak emakumeen emozio eta egoera animikoan duen eragina oso modu argian erakusten dute bi lan hauek. Emakume ezberdinen esperientziez eta espetxeaz sakonki mintzo dira, lekukoek hainbat elkarrizketa azaltzen direlarik.

Aurrez aipatutako iturri horiez gain, ikergai dugun espetxean soilik oinarritutako *Prisión central de las mujeres de Saturrarán (1938-1944)* (Basterretxea eta Ugarte, 2007) eta *Saturrarán: sólo quedan los tamarindos* (Ugarte, 2011) lanetan sakontzeko aukera ere oso baliagarria izan da. Egileak Mutriku eta inguruko historialari eta historiazaleak dira: Saturrarango espetxearen inguruan sekulako berreskuzte lanak egin dituzte bertako gora-beherak eta eguneroko funtzionamendua xehetasun handiz azalduz. Aurkikuntza garrantzitsuak egin dituzte; adibidez, espetxean egondako umeen errolda argitaratu dute.

Beste errealitateekin konparaketak egiterako orduan, garai berean Madrilén zegoen Ventas emakumezkoen kartzelari buruzko *Mujeres encarceladas. La prisión de Ventas: de la República al franquismo, 1931-1941* (Hernandez Holgado, 2003) liburua irakurri da. Bai Saturraranen eta bai Ventasen arazo berak zeuden: presoen pilaketa edo masifikazioa eta emakumezkoek pairatzen zuten errepresio bortitza. Bi presondegiek euren edukiera erabat gainditzen zuten, preso-kopurua bikoiztu edo laukoiztuz. Horrez gain, egunerokotasuneko arau, lan, tailer eta tratuen bidez emakumezkoen egoeraren gordintasuna argi azaltzen da. Lan honetan Argentinako diktadura garaiko Atxilotze Zentro Klandestinoekin ere egin da beste konparaketa bat, hau jorrazteko *La materialización del sadismo. Arqueología de la arquitectura de los centros clandestinos de detención de la dictadura militar argentina (1976-1983)* (Zarankin eta Niro, 2006) artikulua baliatu da. Saturraraneko espetxea eta atxilotze zentro klandestinoak beste erabilera batzuetarako diseinatuak eta sortuak izan baziren ere, denborarekin beste funtzio batzuk egotzi zaizkienean, arkitekturari emaniko erabilerak zeinen ankerrak izan daitezkeen eta erabilera horien atzean dauden asmoak azalertzeko lagungarria izan da. Deskribapen zehatzak egiten dira bertan, egituraketa berriaren asmoak modu argi eta esplizituan erakutsiz.

Lan hau, helburuetan esan bezala, berreskuratze prozesuko hasiera besterik ez litzateke: informazio bilketa. Eredu gisara Castuerako (Badajoz) kontzentrazio eremuan eginiko ikerketa lanak hartu dira *De la ocultación de las fosas a las exhumaciones. La represión franquista en el entorno del Campo de Concentración de Castuera* (Ayán Vila, López-Rodríguez, eta Muñoz Encinar, 2013). Interes Komuneko Ondasun (gaztelaniazko *Bien de Interés Común*) izendatuta dago Castuerako kontzentrazio eremua izan zena. Horrek, nahikoa ez bada ere, babes maila suposatzen du. Disziplina ezberdinetako



adituek elkarlanean eginiko ikerketa lanen artean hainbat indusketa arkeologiko daude. Han zer gertatu zen ezagutzeko ezinbestekoak izan ziren indusketak, jakintza (bir)sortu eta ondoren zabaltzeko. Baliagarria izan da babes mailak zer garrantzia duen eta erakunde publikoek horrelako ikerketak bultzatzea interesgarria dela ikusteko.

Bestalde, informazio grafiko eta dokumentaletara jotzean, Juanjo Egañak Saturrarango familiarren bidez lortutako argazkiak eta sarean zintzilik daudenak (bibliografian dauden flickr.com eta asturiasrepublicana.com atarietatik) lortu dira. Horiez gain, *Prohibido Recordar. Cárcel de Saturrarán 1938-1944* dokumentala (Martinez, Larreategi, Olasagasti eta Telleria, 2010) derrigorrez aipatu behar da, bertan Saturraranen preso egondako emakumeen lekukotza edo testigantzak entzuten baitira, bizirik zeuden bitartean beraien ahotik entzundakoak. Preso ohiez gain, hauen seme-alaben bizipenak eta Ondarroa eta Mutrikuko bizilagunenak ere badute lekua dokumental honetan. Ezinbesteko informazioa izan da Saturrarango eguneroko bizitzaren inguruko ideia errealago bat egiteko orduan.

Amaitzeko, historialariek izandako hartu-eman eta elkarrizketetatik (Arantza Ugarte, Xabier Basterretxea eta Iñaki Egaña) informazio pribilegiatua lortu da: batetik, Gipuzkoako Artxibo Historikoan eta Mutrikuko Erregistro Zibilean dauden dokumentuak ahalbidetu dizkirate eta bestetik, orain artean lortutako informazio eta beraien iturrien berri eman. Esaterako, Saturrarango eraikinen plano bakarrak Gran Hotel Balneario eraikinarenak direla eta Mutrikuko Jabetza Erregistroan daudela Gotzaindegari emaniko eraikinen deskribapenak. Bestalde, gaur egun Euskal Memoria Fundazioak publiko egindako Saturrarango presoen eta bertan hildakoen zerrendak urteetan erre egin zituztela uste izan bada ere, ez zela hala izan egiaztatu da, Iñaki Egaña historialariak berak nola eta non aurkitu zituen kontatu baitzidan. Gaiaren inguruan sortutako hainbat zalantza argitzeko prestutasuna ere izan dute eta hori, inondik inora ere, oso lagungarria izan da lan honetan aurrera egiteko.

4. Testuinguru historiko, sozial eta politikoa

1936ko uztailaren 17an II. Errepublikarekin amaitu nahi izan zuen altxamendu militarra gertatu zen Marokon. Altxamendua antolatu eta zuzendu zuten jeneralak Mola, Franco eta Sanjurjo izan ziren.

Hurrengo egunean, uztailaren 18an, matxinada penintsulara zabaldu zen espero zuten arrakasta izan ez bazuten ere. Estatu kolpeak Gerra Zibila deitu izan zaiona leherrarazi zuen. Une hartatik aurrera Espainia bitan banatuta geratu zen: eremu nazionala eta errepublikarra. Altxamenduak landa eremuko Espainia kontserbatzailean izan zuen arrakasta: Gaztela eta Leon, Galizia, Araba, Nafarroa (karlistek eta militarrek bat egin zuten), Aragoi (Huescan izan ezik), Oviedo, mendebaldeko Andaluzia, Kanariak eta Balearrak (Menorcan izan ezik).

Hiri eremuak eta eremu industrializatuek (Euskal Herria, Katalunia, Madril eta ekialdea) Errepublikaren aldeko joera azaldu zuten. Horrela, hiru urte luzez elkarren aurka aritu ziren bi Espainiak sortu ziren. Errepublikarrek "Gerra Zibil" izendapena alboratu nahi izan dute, izan ere, zilegitasun osoz eta demokratikoki hautatutako gobernua zen II. Errepublika eta indarrez kentzea ez zen gerra, altxamendu militarra baizik.

Errepublikarekiko alderdi leialen artean burgesia txikia, langileak eta lurrik gabeko nekazariak zeuden. Altxatutako alderdian, berriz, sektore sozial kontserbatzaileenak: eliza, militar kontserbatzaileak, nekazari jabeak eta talde katolikoak.

Eliza katolikoa alderdi faxistaren alboan kokatu zen. Hala ere, elizgizon euskaldunek Errepublikari leial izaten jarraitu zuten. Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ) Errepublikarekiko leial mantendu zen bere izaera konfesionala bazen ere. Horrela, bando frankistak eraildakoen artean hogeina euskal apaiz ere aurki daitezke. 1936ko uztailaren 18az geroztik faxisten partetik ohikoak bihurtu ziren atxiloketa masiboak, kartzelaratzeko eta pasio eta ateratzeko (gaztelaniazko *sacas*), hau da, fusilamendu ilegalak.

Komenigarria da aipatzea alderdi errepublikarrak ez zuela prestatutako eta bat egindako ejertzikorik, alderdi ezkertiarren ideia ideologiko ugarien ondorioz. Horrek gerraren garapena baldintzatu zuen. Altxatutako alderdiak, aldiz, esperientziadun ejertzitoa zuen eta aginte bakarra sortu zuen indarrak bateratzeko. Francok alderdi guztien babesa zuen, altxamenduaren buru bilakatu zen, bere burua estatuburu izendatu zuen eta Espainia nazionalistaren erabateko boterea hartu zuen bere gain.

Gatazkaren lehen egunetan, gobernu errepublikarra altxatutako alderdiarekin negoziatzen ahalegindu bazen ere, ez zuten emaitza onik lortu. Armak miliziei eman behar izan zizkien. Bi alderdiek laguntza eskatu zuten kanpoan. Batetik, alderdi nazionalak Alemania nazira eta Italia faxistara jo zuen eta, bestetik, alderdi errepublikarrak Frantziara, Ingalaterrara eta SESBera. Gatazka nazioartean zabaltzeko beldurrez eta Alemaniaren aurka egin behar ez izateko, Frantziak eta Ingalaterrak ez esku hartzeko batzordea sortzea bultzatu zuten, alderdietako batek ere nazioarteko laguntzarik jaso ez zezan. Hogeita sei herrialdek egin zuten bat 1936ko abuztuan sortutako Batzorde harekin, baina ezin izan zuten eragotzi Alemania naziak, Italia faxistak eta SESBek aurka jarritako alderdiei laguntza ematea.



Alderdi nazionalak armamentua eta hornidurak jaso zituen Italiaren eta Alemaniaren eskutik. Horrela, naziek Bigarren Mundu Gerran erabiliko zuten armamentua probatu zuten. Alderdi errepublikarrak SESBen eta Nazioarteko Brigaden laguntza jaso zuten.

Altzamen duaren helburu nagusia Madril hartzea zen, baina milizien jarduerari eta herriak hiriburua defendatzeko zuten borondate sendoari esker, ez zuten hain erraz lortu eta horrek gerra luzatu zuen.

Erregimen frankistak egiturazko indarkeria planifikatu eta gauzatu zuen, aktiboki, ordena berriarekin bat ez zetozenen aurka. Emakume eta gizonen arteko bereizketan ere oinarritzen zen errepresio frankista. Hala nola, bortxaketak edota errezino-oliozko purga edo libragarriak ziren emakumeei aplikatzen zitzaizkien zigorrak. Indarkeria ekonomikoa ere jasan behar izan zuten frankisten aldekoak ez zirenek, "gosearen paktua" izenez ezaguna. Bestalde, indarkeria instituzionala ere bazegoen; beste hitz batzuetan esanda, kartzela bihurtutako komentuek, fusilamendu eta exekuzio ilegalak, behartutako lan gogorak eta umeen bahiketa edota lapurretak ahalbidetzen eta bultzatzen zituena.

Egoera gatazkatsu hark bi aldetako espetxeetako preso-kopuruaren hazkundera ekarri zuen. Bando nazionalakoek, hau da, frankistek lurraldeak mendean hartu ahala, presondegi gehiago behar zituzten atxilotutako errepublikarrak giltzaperatzeko. Espetxeratuak gizon-emakumeak eta umeak ziren. Testuinguru historiko hartan eta presondegi berrien eskasia zela-eta, 1937ko abenduaren 29ko ordena batek aztergai dugun eraikin multzoa emakumezkoen espetxe bihurtu zuen. 1938ko urtarrilaren 3an inauguratu zuten Saturrarango Emakumezkoen Espetxe Nagusia.

Garai hartan Iparraldeko frentea frankisten esku erori berria zen, 1937ko urri bukaeran, Asturias hartu zutenean, hain zuzen ere. Espetxe berrien beharra nabaria zen, izan ere, preso eta atxilotu-kopurua bereziki hazi baitzen. 1944ra arte espetxe gisa funtzionatu zuen Saturraraneke ehundaka, milaka, emakume eta ume eduki zituzten bertan giltzaperatuta, nahiz eta sasoiko propaganda frankistak zeharo kontrakoa erakutsi nahi izan zuen.

Gerra garaian, eta behin gerra amaituta, gaueko pasio eta ateratzeak (sacas) ziren espetxeratuak zuten oroimenik okerrena. Erregimen golpistarentzat heriotza zigorra ohikoa zen, Euskal Herrian ia ehun emakume erail zituzten: 40 Gipuzkoan, 30 Nafarroan, 15 Bizkaian eta 9 Araban.

4.1. Gernikako bonbardaketa

Ejertzito faxistak Euskal Herriko biztanleria zibilaren kontrako erasoaldia bonbardaketa aereo bidez ere burutu zuen. Gernikako herria, euskal nazionalismoaren ikurra, Alemaniako Kondor Legioak bonbardatu zuen 1937ko apirilaren 26an. Hiru orduz airetik erasotu ostean, herria erabat suntsituta geratu zen. Mila pertsona inguru erail zituzten. Altzaturako alderdiak errepublikarrak kikildu nahi zituen eta, bide batez, Bigarren Mundu Gerran erabiliko ziren armak probatu. Bonbardaketaren albisteak iritzi publikoa astindu zuen eta matxinatutako alderdiak errepublikarrak egin nahi izan zituen sarraskiaren erantzule.

Azkenik bonbardaketaren erantzukizuna aitortu zuten, baina Gernika hutsegite baten ondorioz bonbardatu zutela defendatzen dute.

4.2. Autonomia Estatutua

Lehen Autonomia Estatutua Espainiako Gorteetan Gerra Zibila hasi ondoren onetsi zen. Bilbo 1937ko ekainaren 19an erori zen. Testuinguru honetan 1936 eta 1937an iparraldera errefuxiatu ugari joan ziren, golpistek kontrolatzen ez zuten lurraldeetara ihes egiteko asmoz. 1940an Hitlerrek Frantzia okupatu zuen, Frantzia mendebaldea Alemania naziazen esku geratu zen. 1942an eremu frantses osoa okupatu zuten. Alemaniak Europa guztia gobernatzen zuen erregimen kideekin, Erresuma Batua izan ezik.

4.3. Gerra Zibilaren ondorioak

Gerraren ondorio nagusiak aipatzean, lehenik eta behin ondorio demografikoak aipatu behar dira. Hildakoen kopurua milioi bat ingurukoa izan zela kalkulatzen dute (kopuru hori oraindik ere eztabaidagai da) eta horien artean sartzen dira, besteak beste, batailan hildakoak, gerran eta gerra ostean fusilatutakoak eta gaixotasunen ondorioz hildakoak.

Horrez gain, jaiotza-tasaren beherakada gertatu zen. Ondorio sozialekin lotuta, 1939ko otsailean Erantzukizun Politikoen Legea argitaratu zela gogoratu behar da. Erregimen frankistak errepublikaren alde egin zuten guztiak kondenatu eta exekutatu nahi izan zituen lege horrekin. Nekazaritzako, abeltzaintzako eta industriako produkzioak zorrozki egin zuen behera; prezioek, berriz, gora egin zuten. Ez zen ez urre, ez dibisa erreserbarik geratu eta, ondorioz, herritarrak gosetearen eta errazionamenduan murgildu zituen krisi ekonomikoa jasan zuen herrialdeak. Erregimena elikagaiak inportatzera behartuta egon zen eta horrek sektore industrialak bultzatzeko materialak erostea zaildu zuen.

Gerra amaitzean, ondorio politikoak etorri ziren: Francoren erregimenaren fase autarkikoa eta ia berrogei urte iraun zituen diktadura. Erregimen berriaren gako ideologikoak botereen kontrola, katolizismoaren defentsa porrokatua eta antikomunismoa ziren. Erregimenaren bereizgarri ziren beste ezaugarri batzuk hauek ziren: printzipio demokratikoen eta adierazpen-askatasunaren erabateko gaitzespena, elkartzeko eskubidearen murrizketa eta Konstituziorik ez existitzea. Ez zen hauteskunderik egin eta 1942an Gorteak sortu ziren. Gorteak Francok izendatutako kideez osatuta zeuden eta haien egitekoa gobernuaren proiektu guztiak onartzea zen.

Espainiako agintea hartzeko, altxatutako alderdiak herriak aukeratutako gobernu armak erabilita erorarazi zuenez, Francoren erregimenak ez zuen mendebaldeko demokrazien babesik izan; ezta nazioarteko erakunde nagusia ere. Ondorioz, nazioarteko isolamendua indartu zen. Isolamendu hark berrogeita hamarrek hamarkadaren erdialdera arte iraun zuen eta handik aurrera pixkanaka nazioarteko erakunde batzuetan sartzen hasi zen Francoren Espainia.

5. Emakumeen errealitatea frankismo garaian

Gerra Zibilean eta gerraostean, gizateriaren aurkako krimenen eta abusu larrien biktimak ugari izan ziren. Emakumeak ez ziren salbuespena izan, beraiek ere kalte horiek jasan baitzituzten. Hala ere, emakumeen historia ezkutatua eta isilarazia izan da.

Frankismoak gizonezkoak nagusi ziren ordena patriarkala ezarri zuen legez eta horrek emakumezkoen derrigorrezko menpekotasuna arautu zuen. Ondorioz, menpeko bihurtu zituzten, eskubideak ukatuz, derrigorrezko etxekotasunera zokoratuta. Horren bidez, emakumeak gizonezkoen etengabeko tutoretzapean egotera behartu zituzten, berezko nortasunik gabe.

Aurretik emandako aurrerapausoak bertan behera geratu ziren frankismo garaian. XX. mendetik aurrera emakumea baseritik edota etxetik kanpo soldatapeko lanean hasi zen, baina oso baldintza zehatzetan. Ezin zuen edozein emakumek lan egin, hala nola, ezkonduko emakumea behar zuen izan eta senarraren baimena eduki behar zuen lan egiteko, beti ere, senarraren soldata nahikoa ez zen kasuetan.

Errepublikara garaian, legedi alorrean hainbat aurrerapauso eman baziren ere, adibidez, emakumezkoen bozka eskubidea onartu zen; emakumeoi esleitutako genero joerak indarrean zirauten. Horren adibide garbia zen Emakume Abertzaleen Batzak (EAB) euskal emakumezkoen eredu bakarra: emazte eta ama ona. Emakume Abertzaleen Batza Irlandako antolakunde politiko baten oso antzekoa zen, 1922. urtean sortu zen. Gizonezkoen borroka politiko eta militarrean laguntzea zuen helburu, baina, beti ere, bigarren maila batetik, "etxea albo batera utzi gabe".

Garai horretan hasi ziren emakumeak partidu politiko eta sindikatu ezberdinetako masa eta oinarri sozialetan parte hartzen. Protagonista bat edo beste egon bazen ere, *Pasionaria* kasu, emakumeen gehiengoak bigarren maila batean kokatua zegoen/kokarazia zegoen.

Norabide honetan, aipatzekoa da emakumeekiko errepresioaren baldintza gogorrenak gerraostean, 1939 eta 1949 artean, gertatu zirela. Gerraostean, emakume-eredu bakarra ezarri zen, bere alderdi publikoa garatu nahi zuten emakumeak difamatuz. Horixe bera gertatu zitzaion, esate baterako, Clara Campoamorri edo Victoria Kenti. Hauen ohoreari eta duintasunari erasotu zieten horrek, garai hartako arauak zirela eta, familia osoari eragiten zion.

Bando frankista garaile ateratzearen ondorioz sortu asmo zuten gizarte berriak emakumezkoentzako rol apalgarria zuen gordeta. Horren adibide garbia da Antonio Vallejo Nágera psikiatra-militarrak emakumezko preso politikoek umeak "mentalki ahulak ziren haien seme-alaba" bezala definitzea. Beraz, doktorearen ustetan *mentalki ahulak* espetxeratutako emakumeak ziren. Vallejo Nágerak ospe eta pisu handia zuen Erregimen berrian; Erregimen berria ere iritzi berekoa zen.

5.1. Emakumeen papera

Aurrez aipatu bezala, jaiotzetik emakume gisa izendatuei genero femeninoa esleitu zitzaion (eta egun esleitzen zaie) eta horrekin batera, jarrera eta joera zehatz batzuk; finean, arauak. Gizon gisa identifikatu eta izendatutakoei, aldiz, beste batzuk.

Antagonikoak. *Rol* horiek barneratuz sozializatuak izan ziren orduko eta oraingo gizon eta emakumeak, dikotomia bat osatuz.

Horrela, emakumeei paper pasiboa esleitu zitzairen, zaintzailearena, euren ongizatea baino lehen besteen ongizatea bermatzearen eta lehenestearen ardura ezarri zitzairen, subjektu izatea ukatuz eta, honekin batera, inizatiba eta protagonismo gabe utziz. Espazio pribatura mugatu nahi izan zen emakumeen jarduna. Hau bat dator industria-gizarte modernoaren definizioarekin, emakumezkoak ama eta emazte sakrifikatu gisa definitzen ziren, familiak arduratzen zirenak eta beren bizitza-proiekturik ez zutenak. Emakumezkoen eredu "etxeko aingeruarena" edo "emazte bikainarena" zen. Gizon gisara izendatutakoei, aldiz, espazio publikoa eskaini zitzairen, hau da, protagonismoa, aktibotasuna, inizatiba, ausardia... Subjektu izaera aitortu zitzairen, hasieratik, eurei egotzitako joerak izan ziren hobetsiak. Gizonezkoak ziren (eta dira) gizartearen erdigune eta guztia euren neurria definitu eta egokitu zen. Horretan zetzan (eta datza) androzentrismoak.

Hitz gutxitan esanda, gizarte egiturak bere hartan jarrai zezan emakumeei etxea esleitzen zitzairen. Implizituki, eraikuntza kulturalen bidez, nortasun indibidula ukatzen zitzairen emakumezkoen.

Hezkuntza menpeko emakumeak lortzeko tresna bilakatu zen, hau da, etxean egon eta eliza katolikoaren arauen arabera ereduazkoak izatera bideratzen zituzten. Mutil eta nesken gaiak eta edukiak desberdinak ziren. Hainbaten argudioak hona ekarriz: "Beren desberdintasun historikoak eta biologikoak kontuan hartuta".

Emakumezkoen eredu etxekotu eta menpekota ezartzeko, erregimenak garbiketa soziala egin zuen. Lehen gerraostean, emakumezkoenganako errepresioa gogorra izan zen: emakume asko espetxeratu zituzten, pilaketa eta gainpopulazio baldintzetan.

Simone de Beauvoirek salatu moduan, emakumezkoena "bigarren sexua" zen. Emakumeen nortasuna beste sexuaren, gizonezkoenaren, arabera eraikitzen zen. Emakumezkoak emakumezkoen betebeharrak eskusibotzat jotako etxeko lanez arduratzea sendotu zuen eredu hark eta emakumea etxean geratzea ekarri zuen. Ondorioz, gizonezkoen eta emakumezkoen espazioak banatzea ekarri zuen: emakumeak espazio publikotik baztertuta geratu ziren.

Alemania naziak ere emakumeak eremu pribatura mugatu nahi zituen, amatasuna eta etxea ziren emakumeentzat zituen eskaintza bakarrak. Ezagunak dira *tradiziozko hiru K*: umeak (*kinder*), sukaldea (*küche*) eta eliza (*kirche*).

Beraz, ez zen kasualitatea, urteetan zehar emakumeek pairatutako ikusezintasuna, bigarren maila eskaini izana. Aspaldi errotutako mekanismo guztiek martxan baitiraute oraindik ere jendarte honetako engranaiek modu berean funtziona dezaten, baloreak era berean erreproduzitu daitezzen.

5.2. Zigor bikoitza

Arauk hausteko ahalegina egin zuten emakumeek erregimen berriaren errepresioa eta basakeria jasan zituzten. Gerra amaitu zenean, atzera-pausuak eman ziren: II. Errepublikan izapidetutako dibortzioaren legea indargabetzea 1932an, eskola mistoa

debekatzea, errepresio sexuala (ezkontza aurretik birjintasuna galtzea konbentuan edo espetxean sartzearekin zigortzen zen), ezkontza zibilaren debekua etab. Aurreko urteetan gai batzuetan zerbait irabazi zuten arren, ez dugu ahaztu behar eskubide horiek ez zirela emakumezko guztien eskura egon. Erresistentziak ugariak izan ziren ezkerretik zein eskuinetik. Bi bandoetako bakar batek ere ez zuen emakumezkoen esleitutako eredu tradizionala albo batera utzi.

Lan honen ardatzetako bat espetxeratutako emakumeen kasua da, hauek zigor bikoitza jasaten zuten eta gaur egun, oraindik ere, jasaten dute: bata, penala; bestea, berriz, soziala.

Beste hitz batzuekin azalduta, lehena, zigor penala, sententziak agindutako kondenaren urteak betetzean zetzan. Bigarren zigorra, berriz, zigor soziala gizarteak ezarritako zigorra zen, emakume bezala zegozkien betebeharrak ez gauzatzeagatik ezartzen zena, hau da, alaba, emazte eta ama onak ez izateagatik edota ingurukoak ez zaintzeagatik jasan beharreko presio eta gutxiespen soziala. Zegozkien rol eta joerei ez obeditzeagatik, arauetatik ateratzeagatik jasan beharrekoa. Azken hau oso modu gogorrean zigortua izan zen frankismo garaian, hain zuzen ere, feminitatea umiliatzeko emakumezkoen aurka aplikatu ziren zigor espezifikoekin.

5.2.1. Espetxe zigorrari lotutakoak

Funtsean, bi motatako preso politikoak zeuden. Batetik, borrokaldian edo ostean aktiboki parte hartu zuten errepublikarrak, komunistak, anarkistak, sindikalistak, feministak eta nazionalistak; izan ere, beren ideiek ez zeukaten lekurik erregimen berri eta errepresiboan. Bestetik, aktiboki parte hartu ez zuten emakumeak, alargunak eta umezurtzak zeuden. Askotan, emakume presoek emakume izate hutsagatik izaera politikoa ukatzen zitzaizkien, izan ere, ez zetorren beraiei esleitutako ereduarekin bat.

Borrokaldian aktiboki parte hartu ez zuten presoaren artean *gorrien* senitarteko izateagatik edo bando errepublikarrekin loturaren bat izateagatik umiliatuak zeuden. Emakume horien atxilotetak xantaia egiteko edo beren familiartekoak zigortzeko baliatzen zituzten, batzuetan "beren gizonak geldiarazten" jakin ez izana egozten zieten. Hori dela eta, urteetan zehar, akusazio zehatzik gabe emakume asko espetxeratu zituzten.

Kartzelen unibertso hartan, militanteak, amak eta emakumezko presoak pilatu ziren frankismoaren errepresio-logika zitalaren pean, baldintza negargarrietan. Umiliazio eta zigor haiek jasateko arrazoia emakumezkoen esleitutako rol tradizionaletik ateratzea zen. "Etxeko aingeruaren" edo "emazte bikainaren" rola ez betetzearen ondorio ziren zigorrak eta irainak jasan beharra.

Alor honetan, genero joerei tiraka, espetxe zigorra arintzeko lan luditzeetara hel gaitzeko. Espetxean eskaintzen ziren lan eta tailerretan parte hartzeko eskubidea zuten presoek, hasieran baldintza zorrotzagoak ziren, urteak eta kartzeletako masifikazioak aurrera egin ahala, aldiz, ia espetxeratu guztiek har zezaketen parten espetxe zigorra lana egitearen truke laburtzeko programan, hau da, lan luditzeetan. Lan luditzeen dagokienean, emakume eta gizonazkoen tailer eta lan ezberdinak zuzentzen zitzaizkien. Emakumezkoen genero femeninoari zegozkion tailer eta lanak zuzentzen zitzaizkien: hala nola, espetxetik ezin zuten atera lan egitera. Emakumeen eskaintutako eremu

pribatuarekin alderatu daiteke hori. Horrez gain, eskaintzen zitzaizkien tailer eta lanak, besteak beste, etxeko laboreak, jostungintza, katekesi klaseak ziren. Guztiek okertutako morala zuzentzea eta garaiko balore zehatzek arautzen zuten emakume on bihurtzea zuten helburu.

Espetxe zigorra lan bidez luditzea ere emakumeei esleitutako *rol*-ak indartzeko erabiltzen zen hainbat tailerren bidez. Tradizioz emakumezkoen zegozkien lanak sustatzen ziren, helburu bakarrarekin: emazte eta ama on bilaka zitezen emakume presoak.

5.2.2. Zigor sozialari lotutakoak

Gerra Zibilean izandako jardueraren ondorioz edo erregimen diktatorialari erresistentzia egiteagatik, emakume askok errepresio basatia jasan zuten, kartzelaratu egin zituzten eta, kasu batzuetan, exekutatu ere egin zituzten. Dena den, indarkeriaren biktima izateko kausa nagusia, besterik gabe, emakumezko izatea zen. Ez hori bakarrik, erregimen berriak estigmatizazio soziala behin eta berriz erabili zuen arauak apurtu zituzten emakumeen aurka.

Esan bezala, emakume gisa izendatutakoek esleitutako arauak apurtzea gogor zigortua izan zen. Hasteko, errepublikar milizianoek beraiek ere ez zituzten kide kontsideratzen eurekin borrokan aritutako emakumeak. Urteetan zehar emakume ezkertiar militanteei, imajinario kolektiboan, "puta" estigma atxikitu izan zaie. Hain zuzen ere, euren gaitasun esperotakoa (genero femeninoari esleitutako jokabideak) ez betetzeagatik. Horrez gain, gaixotasun benereoen kutsatzaile modura hartzen zituzten.

Frankistek, feminitatea umiliatzeko, emakumeen aurkako zigor espezifikoak garatu zituzten. Umiliazio erritualak ziren, batez ere landa guneeetan, emakumeentzat baino ez, eta jendaurrean egiten ziren. Feminitatearen definizio-elementuetan eragin zuzena zuten torturak ziren eta, horrenbestez, bi helburu argi zituzten: haien izaera politikoagatik zigortzea eta emakumezko izateagatik umiliatzea/ezereztatzea. Politizazio maila edozein izanda ere, garrantzi handiagoa ematen zioten emakume izateari. Ondorioz, errepresio-mekanismoen biktima bihurtu ziren. Ezagunak dira hainbat kasu.

Zigor horietako bat ilea larru-arrasera moztea litzateke, publikoki. Ekintza sinbolikoa zen; izan ere, emakumezkoen ikurrik nabarmenena ile luzea zen. Emakume bati ile luzea kentzea, ideologia berriaren arabera, hutsaren pare uztea zen, emakume zirela ezeztatzea. Zigor horren iraupena luzea zen, izan ere, ilea hazteko denbora behar izaten zen. Gainera, soildu berrian jendaurrean paseatzera behartzen zituzten, euren larrutan bizitako lotsa eta umiliazioari jendearen iseka eta gutxiespenak gehituz. Donostiako Easo plazan gauzatu izan zen zigor hau.

Ondorengo irudiak aipaturiko zigorraren ondorioak islatzen ditu (dokumental baten zatia da). Bertan emakume oñatiar antifrankistak irudikatzen dira; ilea larru-arrasera mozteaz gain, Oñatiko (Gipuzkoa) kaleetatik paseatzera behartu zituzten. Honela, 1937an, frankistek Bilbo eskuratu izana ospatu zuten.



01. Irudia. Emakumeak jendaurrean paseatzen ilea larru-arrasera moztu ostean.
Iturria: Gogoratu Guran Taldea

Beste zigorretako bat errizino-olio bidezko garbiketa litzateke. Emakumezkoen errezino olio edanaraztearen zieten. Emakumezkoen urdailak gizonzkoenarekiko berezitasunik ez badu ere, zigor hau soilik emakumeei aplikatu zitzaien. Olio horrek esfinterraren kontrola zailtzen zuen, kasu batzuetan ezinezko egiteraino, honek beherakoa eragiten zien emakumeei. Higiena ukatzeak pertsona arbuigarri bilakatzea zekarren, ideologia frankistak bilatzen zuen arrazaren purutasunetik urrun. Momentu horretan jendaurrean iraintzeko desfileak burutzerara behartzen zituzten, horrek suposatzen zuen guztiarekin. Jendaurreko desfileen bidez, emakume horiek iraingarri bilakatzen zituzten eta emakume horiei esleitzen zitzaien *rola* ezagutzera eman nahi izaten zuten, helburu bikoitzarekin: herritar neutralei edo zalantzatiei beldurra eragiteko eta atxilotuen gizonzko senideak umiliatzeko.

Azkenik, zigor sexualak eta bortxaketak leudeke. Gerra garaian sistematikoak ziren (eta dira) emakumeak azpiratzeko zigor horiek. Beldurra zabaltzen zuten gero, kontrol mekanismo gisa erabiliak izan ziren hainbat emakumezkoen bizitzak suntsituz, erruduntasun sentimendua eta lotsak euren gain utziz. Zigor sexual horiek jasandako emakume asko isilaraziak izan ziren, ez zituzten euren bizitakoak kontatu eta ez zuten argirik ikusi horrelako testigantzek, garai hartan "emakume zikintzat" hartzen baitzituzten bortxatuak izandako emakumeak. Modu horretara zigortua izateak jendartearen zeukan konnotazio negatiboari aurrez aipatutako erruduntasun sentimendua gehitu behar zitzaion.

Garrantzitsua da aipatzea ideologia bateko edo besteko presio politikoetatik harago, estigmatizatzeaz gain, emakumezko izatea zela urraketak, irainak, bortxaketak eta sexu-indarkeria jasatea eragiten ziena. Ideal batzuk edo beste batzuk izatea edo testuinguru geografiko honetan jaio izatea osagarria baino ez zen.

6. Emakumeak eta espetxea

Emakumezkoen giltzaperatze zentroek euren historia, filosofia, fisonomia eta funtzionamendu logika propioak dituzte. Horrexegatik, beharrezkoa da horiek azaltzeko atal bat eskaintzea.

Mendeetan zehar, lege penalak urratu zituzten kasuetan, modu ezberdinetan zigortu zituzten emakume eta gizonak. "Emakume preso" subjektua emakume apurtzailatzat (transgresoratzat) hartua zen, lege penalez gain, bere izaera femeninoa erregulatzen zuten arau sozialak ere hautsi baitzituen (desbidazio soziala deritzona). "Emakume desbidatuaren" izaera bikoitzak zigorra aplikatzeko unean diskriminazio latzak pairatzera eramán zituen giltzaperatutako emakumeak.

Duela lau mende San Jeronimoko Sor Madalenaren emakumeen Galeretan dute jatorria emakumezkoen giltzaperatze zentroek. Hauen ondoren, lekaide edo mojek zuzendu, kudeatu eta antolatzen zituzten Miserikordia Etxeak, Zuzentze etxeak eta espetxe frankistak etorri ziren. Guztiek asmo moralizatzaile handia zuten. Gaur egun, Estatuaren eskutan dauden espetxeek emakumeak diskriminatzen jarraitzen dute; hauetan, forma modernizatuagoan bada ere, erlijio kutsuko praktika instituzionalek indarrean baitiraute.

6.1. Lehen emakume espetxeak: Galera Etxeak eta Miserikordia Etxeak

XVI. mendean, giltzaperatze zentro barnean gizon eta emakumeak banantzea agintzen zuten arauak zeuden, baina askok ez zituzten betetzen. XIX. mende erdialdean gizon-emakumeak batera zeuden espetxeak zeuden. Hala ere, esan beharra dago, emakumezkoak gizonen kartzeletako departamendu berezietan kokatzen zituztela. Gaur egun ere antzeko politika erabiltzen da, esaterako, Brians (Bartzelona), Soto del Real (Madril) edota Topaseko (Salamanca) emakumezkoen kartzelak gizonezkoen espetxe gune barneko departamendu berezi bat bakarrik dira.

Emakumezkoentzat soilik diren zentroak ez erakitzeke erabiltzen den argumentua kostu ekonomiko handia suposatzen dutela da.

XVII. mende hasieran emakumezkoak soilik giltzaperatzeko eremuak aurki zitezkeen: Galera Etxeak. Emakumezkoen lehen espetxe hauek egungo kartzelen egituraketa eta funtzionamendua hobeto ulertzeko lagungarriak dira, izan ere, gainerako giltzaperatze zentroek ez bezala, emakumezkoen zentroek orientazio moralizatzailea zuten eta emakumezko presoek "biziaturiko" naturaltasuna zuzentzeko helburu argia zuten. Preso zeuden emakumeak ez ziren garaiko emakumeen eredura eta beraiak bete beharreko eginkizunetara egokitzen.

San Jeronimoko Sor Madalenak idatziriko tratatuak Galera Etxeak nola egituratu behar ziren adierazten zuen, espetxe araudi antzekoa zen. Proposamen nagusia emakumezkoentzat espetxe erregimen bat sortzea zen, zigorra eta hau betetzeko modua inposatuko zituena; kasu horretan, gizonezkoekin parekatzea zen helburua.

Idatzi horretan Sor Madalenak argi utzi zuen Galera Etxeak emakume txarrentzat soilik zirela eta hauek besteekiko, hau da, *on eta zintzoekiko*, ezberdinak zirela. *Emakume*



txarrek euren delituzko jokabideekin¹ *emakume onak* gaiztakeria handietara, tentaziora eta erortzeko arriskura bultzatzen zituzten. Planteatzen zuen irtenbide posiblea egoera onean jartzen zituen prebentziozko terapiarena zen, hots, modu on eta bertute kristauak erakusten zizkieten eskoletan giltzaperatzearena. *Eroritako* emakumezkoentzat zorrotasuna eta zigorra planteatzen zituen, Galera Etxeetan giltzaperatzea. Instituzio hauen antolaketa, funtzionamendua eta egituraketa zehatz definitzen zituen Sor Madalenak bere lanean, kanpoaldearekiko itxiak ziren eraikinak, "inolako bistarik gabeko" leihoak deskribatzen zituen. Barnealdean beharrezkoak ziren bi egongela eta logela komun bat, espetxeratutako emakume guztientzat eta bestea lanerako erabiliko zena. Izan ere, Galerako gastuak presoek egindako lanarekin ordaintzea aurreikusten zuen. Diziplina eta behaketa ziren Galera Etxeetako oinarri nagusiak, aisia desterratu beharra zegoela irizten zuen Sor Madalenak, bere hitzetan, "pekatu guztien iturburua" zelako.

Lana, ikasketa erlijioso konstante eta instituzioko arau zorrotzekiko sumisio bidez, *emakume txarrak emakume on* bilakatzea zen helburua. Emakumezkoen esleitutako bi bide bakarrik eskaintzen zitzaizkien: emazte perfektua ala zerbitzurako emakumea, neskamea, izatea.

Emakumezkoen estatus sozial eta morala adingabekoekin aldera zitekeen, tutela beharra zutela irizten zioten. Horrela, garaiko establezimendu penalek, Galera Etxeek, emakumezkoen aurrez (*rol* bidez) esleituriko bidetik desbideratuz gero, euren morala erreformatzea eta zuzentzea bilatzen zuten.

XVI. mende amaieran Miserikordia Etxeak sortu ziren. *Desbidatutzat* harturiko emakumeak giltzaperatu eta laguntza emateko instituzio garrantzitsuenetarikoak ziren. Ez ziren emakumezkoentzat soilik, baina bertan giltzaperatuta zeuden gehienak emakumezkoak ziren. Garaiko txiro-kopuru handiaren arazoari irtenbidea jartzeko sortuak izan ziren zentro hauek.

Funtzio ezberdinak zituzten, batetik, laguntza eskaintzen zieten adin eta sexu ezberdinetako pertsonen. Bestetik, zigor-funtzioa ere beregain hartzen zuen instituzio honek diziplina eta giltzaperatze bidez. Funtzio ekonomikoa ere betetzen zuen, bertan giltzaperatutakoek instituzioaren mantentzeko eta autokontsumorako lan egiten zutelako. Azkenik, funtzio politikoa zuela ere nabarmendu beharra dago, giltzaperatze horiek gatazka sozialak ekiditen zituztelako eta txiro giltzaperatuak hierarkizatutako gizartearen isla zirelako.

Instituzio honetan ere emakumezkoen euren *rol*arekin lotutako lanak esleitzen zizkieten, hala nola, neskame izatera, besteei zerbitzatzera bultzatzen zituzten. Horrela, bertan giltzaperatutako pertsonen jokabidea aldatu nahi zen, euren hitzetan "zuzendu". Aipatu beharra dago, gizon eta emakumeen modu ezberdinean aplikatzen zitzaizkien zigorra; gizonzkoen, orokorrean, zigor fisikoa aplikatzen zitzaizkien; emakumezkoen aldiz, euren askatasuna kentzen zitzaizkien, giltzaperatu egiten zituzten. Modu horretara, tutelapean, euren jokabidea zuzentzea bilatzen zela argudiatuta. Zigor morala eta espirituala esleitzen zitzaizkien emakumeen.

¹ "Desbidatu eta amoraltzat" harturiko portaera eta lanbideak. Garai hartan jokabide femenino gaitzesgarririk ez zen onartzen.

Michel Foucaultek kartzelei buruz egindako azterketa historikoan, ez zuen emakumeen espetxe egoera kontuan hartu. Beharbada, Foucaultek ez zituen emakumezkoak giltzaperatzeko zentroak zigorrezkotzat jo. XVIII. mende amaieran sortu zen giltzaperatutakoak zuzendu eta euren jarreragatik moralki zigortzeko ideia. Gauza bera lortu nahi zuten XVI. mende amaierako emakumezkoen espetxeen sortzaile ziren ideologok.

6.2. Emakumezkoen kartzela “modernoak”. Printzipio erreformistak.

XVIII. mende amaieran zigorra ulertzeko modu berri bat hedatu zen, legea mendeku gisa ulertu ordez, gizartea osatzeko tresna gisa ulertuz. Horrela, gorputz zigorrak, lan neketsuak eta giltzaperatzea bezalako zigorrak nagusitu ziren elementu batzuk barneratuz: kontrola edo behaketa, sailkapena, lana, diziplina eta espetxe eremu zehatza, esaterako. Espetxe eremua zigor ereduaren arabera zen, bere eraikuntza zehaztu zen eta zigorrak forma hartu zuen bertan. Materializatu egin zen.

Espetxe pentsamendua botere ekonomiko eta klase sozial ezberdinak gizartean loratu ziren garaian kokatzen da. Horrela, aparatu legal eta zigor kodeak gauzatzea ere hierarkizatu egin zen. Hala nola, delituen larritasuna eta zigorrak proportzionalki erlazionatu ziren. Tortura abolitu zen, baita exekuzio publikoak ere. Testuinguru horretan “zigor justu eta erabilgarriaren” garrantzia azpimarratu zen, gizartea heziz delituak saihesten saiatu zirelarik. Askatasuna kentzearen zigorra hedatu zen mendebaldeko zigor sistema guztien oinarriko zigor bilakatuz. Garai hartan garatu zen beste printzipio bat pertsona oro lege aurrean berdintzearena zen, “berdintasunezko justizia” deitua.

Beraz, zigorren garapenaren ondorio gisa, emakumezkoen kasuan Galera Etxe eta Miserikordia Etxeetan erabilia zen askatasun gabetzea gailendu zen, zigor sistemako zigor nagusi bilakatuz. Hori zela eta, modernizazio prozesuak ez zuen aldaketa handirik ekarri emakumezkoen espetxeetara, ez behintzat zigortzeko moduan. XIX. mendeko eta XVII. eta XVIII. mendeko emakumezkoen espetxeak ez ziren hain ezberdinak. Euren arimak zuzentzeko asmoz Galera Etxe eta Miserikordia Etxeetan giltzaperatuak izan ziren mende batzuk lehenago. Kartzela “modernoetan” ere gauza bera pasatu zen.

Aurreko paragrafoan aipaturiko instituzioei *Zuzentze Etxe* izena (gaztelaniazko “Casas de Corrección”) ezarri zitzairen. Horietan 1822ko Zigor Kodea aplikatzen zen. Emakumeak eta adingabeak giltzaperatze zentro berean zeuden, praktikan ohikoa zen bezala, izan ere, aurrez esan den moduan, emakumeen estatusa adingabeenarekin parekatzen zuten. XIX. mende erdialdetik aurrera Emakumezkoen Zuzentze Etxeak izendatu ziren, komentu izandakoetan kokatu zituzten. Elizaren jabetzan ala eskuetan zeuden eraikinei espetxe erabilera ematea ohikoa izan da historian zehar.

Galera Etxeak, Miserikordia Etxeak eta Zuzentze Etxeak espetxe eta laguntza zentroen erdibidekoak dira. Hiru instituzioen helburua, finean, bera zen: gizartetik bereiztea desbidatu gisa sailkatutako emakumeak, hauek zaindu, lanaren diziplina eta erlijio praktiken bidez “zuzentzea”. Erlijioa modu batera ala bestera presente egon zen emakumezkoen espetxeetan. Presoak etengabe errezatzeraz, euren jokabideaz damutzeraz eta euren egoera “inmoralak” aldatzeko sermoi moralak entzuteraz behartuz. Hala ere, isolamendu ziegak, diziplina eta zigorra nagusi ziren Zuzentze Etxeetan helburu zuzentzailea ez zen lortu. Zentro hauetako bizi baldintza prekarioak, masifikazioak,



desordenak eta gobernuaren kaosak tarteko, instituzio hauek gatazkatsuak izan ohi ziren.

6.3. II. Errepublika eta diktadura frankista

II. Errepublika aldarrikatu eta berehala Victoria Kent Espetxeetako Zuzendari Orokor izendatu zuten. Hark espetxe sistemako erreforma sakon bat abian jarri zuen. Erreforma horretan zigor ziegak, kateak eta burdinak ezabatu zituen, kultu askatasuna eta bisitatu ahalbidetu zituen, baita kartzelatarako prentsa heltzea ere. Horrez gain, elikadura hobetzeko aurrekontua handitu zuen eta berokuntza sistemak eta erietxeak ezarri zituen espetxeetan. Giltzaperatze zentro asko bisitatu zituen eta espetxeko langile ustelak (ustelkerian arituak) profesional formatuengatik ordezkatu zituen.

Birgaitzea zen espetxe sistemaren erreformako helburu nagusia. Funtzionario zibilak ordezkatu zituen ordura arte kartzelako zaintzaile lanetan aritutako pertsona militar eta erlijiosoak. Kentek mendetan zehar diziplina zorrotzez emakumezkoen espetxeak gobernatu izan zituzten ordena erlijioso guztiak kaleratu zituen. Espetxeetako Laguntzako Emakumeen Arloari (gaztelaniazko "Sección Femenina Auxiliar del Cuerpo de Prisiones") esleitu zizkion emakumezkoen kartzelak zuzendu eta antolatzeko ardurak; horiek Zigor Ikasketen Institutuan formatutakoak ziren. Pentsamendu tradizionala tarteko, Victoria Kentek espetxeetako baldintzak hobetu bazituen ere, gizatiartu, espetxe politikako zantzu sexistak nabarmenak izaten jarraitzen zuten.

Aipatzekoa da emakumezko presoaren egoera okerragoa zela gizonezko presoena baino. Zuzendariak ama presoari euren seme-alabak hiru urte bete bitartean eurekin espetxean izateko aukera eman zieten. Honela, amatasunaren eta aitatasunaren arteko ezberdintasunak areagotu zituzten, seme-alaben zaintza osoa amei soilik egotziz.

Presoaren bizi baldintzak hobetu nahi izan zituen, esaterako, giltzaperatuek eginiko lana ordainduz. Emakumezko presoentzat jostun tailerrak antolatu zituen. Neurri hori ez zen batere aurrerakoia, izan ere, emakumezkoek esleitutako *rolak* eta joerak hausteko aukera izanda, jokabide horiek indartu egin baitzituen. Victoria Kentek zuen pentsamendu ez feministaren lekuko ziren neurriak.

Ez zen aurrera atera Victoria Kenten egitasmoa, kartzelatarako bizi-baldintzak hobetzea helburu zuena, XIX. mendeko zigor eta espetxe pentsalarien gisara. Bere lana zapuztua izan zen, ez baitzuen Ministroen Kontseiluaren sustengua jaso. Beraz, ez zen onartu erreforma. Espainiako gobernariak ez zeuden garaiko pentsamendu modernoak zituzten politiko eta pentsalarien parean espetxe eta zigor alorrean. Horrek Victoria Kenten dimisioa ekarri zuen. Hala eta guztiz ere, espetxe erreforma II. Errepublika garaian gauzatu zen, Kentek sustatu zituen hainbat neurri (ez guztiak) espetxeetan aplikatu baitziren. Neurri horiek bost urte soilik egon ziren indarrean, diktadura frankista iritsi zen arte.

"Gerra Zibila" deituriko hiru urte luzeren ostean, II. Errepublika garaian emaniko aurrerapausoak bertan behera geratu ziren. Espetxe eta zigor sistemak atzerakada jasan zuen, beste behin ere.



Atzerapauso horien adibide garbia zen frankismo garaiko espetxeetako egoera: arrazo edo zio politikoak zirela eta atxilotu kopuru altuak sortutako preso en masifikazioa eta pilaketa, lan gogorretara behartutako giltzaperatuak, gerrako presoak eta hauei ematen zitzaizkien tratua. Zerrenda horri elikadura falta, baldintza gogorrak, asistentzia higienikorik eza, gaixotasunak eta heriotzak gehitu behar zitzaizkion. Finean, espetxeetako egoera oso prekarioa izan zen diktadura frankista garaian.

Kartzeletako zuzendaritza eta antolaketatik eliza alboratua izan zen II. Errepublika garaian. Frankismoan galdutako pisua berreskuratu zuen. Azpimarratzekoa da espetxeetan hezkuntza bermatzen ez zen bitartean, apaiza katolikoek hezkuntza erlijioso irakasten zutela edota igandetan meza ospatzen zutela. Horrelako ekintzen bidez argi ikus daiteke erlijioak zuen garrantzia espetxe frankistetan, bereziki emakumezkoenetan. *Eroritako emakumeak* mojen adoktrinamendu bidez moralizatzeko asmoa garbia zen. Lekaideak bertutearen adibide gisa aurkezten zituen erregimenak.



02. Irudia. Saturrarango emakume presoak eta kapilaua. Iturria: Juanjo Egaña

Saturrarangoa ez zen eraitsi zuten espetxe bakarra izan. II. Errepublika garaian Victoria Kenten aginduz eraikitako Madrilgo Ventas kartzela ere 1950. hamarkadan eraitsi zuten. Erregimen frankistak erabilpen handia eman zion espetxe hari: 500 emakumerentzat aurreikusia zegoen eta 14.000tik gora pasatu ziren bertatik 1940. eta 1950. hamarkadetan.

Hona hemen Frankismo garaiko emakumezkoen espetxeetako funtzionamendu eta filosofia nolakoak ziren irudikatzen adibide bi: XX. mendeko Sor Madalenaren Galera Etxeak edota XVII. mendeko Miserikordia Etxeak. Bertan, giltzaperatutako emakumeei bezala, etxeko lanak erakusten zizkien emakume presoek, emakume egoki batek egin beharreko lanak: hala nola, brodatu, erreztatu eta josi. Finean, emakume izaerari esleituriko balore tradizionalak barneratzen zizkieten eta etxeko zereginetara mugatzea zuten helburu.

7. Saturrarango Espetxe Nagusia

7.1. Datu orokorrak

Saturrarango kartzela inprobisatua urte luzez izan zen espainiar estatuan emakume errepublikar eta disidenteak giltzapetzeko gune nagusia. Saturrarango espetxe nagusiaren inguruan sakontze aldera, datozen ataletan azalduko da, hala nola, noiztik noiz arte egon zen martxan, non kokatzen zen, espetxea osatu zuten eraikinen historia, hauei emandako erabilera ezberdinen bilakaera eta espetxeko zaindari izan ziren mojei buruz ere hitz egingo da.

7.1.1. Kokalekua

Saturrarango emakumezkoen Espetxe Nagusia osatzen zuten eraikinak izen bereko hondartzan zeuden. Saturrarango hondartza Euskal Herriko kostaldean aurkitzen den Mutriku herrian dago, Gipuzkoan. Hondartza horrek Mutrikuko mendebaldean dagoen Saturraran auzoko itsasertzean du kokagunea; zehazki, Gipuzkoa eta Bizkaiko mugamuga. Ondarroako (Bizkaia) badian kokatzen da Saturrarango hondartza Gipuzkoa amaierako haran txikian.



03. irudia. Gipuzkoa Euskal Herrian. Iturria: Wikipedia



04. irudia. Mutriku Gipuzkoan. Iturria: Wikipedia

Mutriku herria Gipuzkoako Debarrena eskualdearen ipar-mendebaldean dago. Bere udalerrri mugakideak ondorengoak dira: ekialdean Deba, hegoaldean Mendaro eta mendebaldean Ondarroa, Berriatua eta Markina (hirurak Bizkaiko herriak). Iparraldean, aldiz, Bizkaiko golkoa du mugakide.

Mendebaldean, Ondarroako (Bizkaia) herria du. Eta, Gipuzkoan baldin badago ere, Mutriku herritik baino Ondarroatik (Bizkaia) hurbilago dago hondartza hau.



05. irudia. Iturria: Google Maps

1938 eta 1944. urte bitartean Saturrarango emakumezkoen Espetxe Nagusia izan zena osatzen zuten pabiloiak Kantauri itsasoan itsasoratzen den Mijoa ibaiaren bi alboetara kokatzen ziren, gaur egun Saturrarango hondartzako aparkalekua den horretan eta oroitarria dagoen lekuan, hain zuzen ere. Triangelu formako haran txiki bat da, oinarrian itsasoa du eta beste bi alboetan, berriz, mendixkak.

Txori bistetako argazkietan ikus daitekeen moduan, landa eremuan kokatzen zen presondegia.



06. irudia. Iturria: Google Maps

7.1.2. Martxan eman zituen urteak

Francisco Franco diktadoreak Gasteizko Gotzaindegiari *Gran Hotel Balneario* eraikina kendu eta inguruan zeuden gainerako eraikuntzen jabe egin ondoren, 1937ko abenduaren 29ko lege dekretuaren xedapenez, eraikin hauei kartzela erabilera ematea ahalbidetu zuen. 1938ko urtarrilaren 3an jarri zen martxan presondegia eta 1944ko udaberrian itxi zituen bere ateak.

Martxan egon zen 6 urteetan 4.000 emakume eta ume inguru igaro ziren bertatik. Ez da kopuru zehatzik aurkitu urteetan, baina 2010eko hamarkadaren hasieran Martuteneko (Donostia) espetxeko artxiboan aurkitu zuten Saturrarango presondegian giltzaperatuta egondako emakumeen erregistroa. Aipaturiko zerrenda hau Euskal Memoria

Fundazioak 2015eko otsail hasieran publiko egin zuen, bertan 1583 izen ageri dira². Itsasertzeko hotel zaharrea eta gainerako pabiloietan pilaturiko presoen izen-abizenez gain, heriotza data eta bestelako xehetasunak ere agertzen dira aurrez esandako fundazioak publiko eginiko datu basean.

Saturrarango kartzelak, beste hainbat espetxek bezalaxe, 40ko hamarkadako lehen urteetaraino jarraitu zuen martxan. Erregimenarentzat onartezina zen Espainia Berriko espetxeratuaren kopurua. Kostu ekonomikoa, matxinada arriskua eta II. Mundu Gerraren aliatuen aldeko garapena zela-eta frankismoak komenigarri ikusi zuen hainbat preso kaleratzea amnistia eta espetxe-onura formulak erabiliz. Modu horretara, kartzelaratuaren kopurua asko jaitzi zen eta espetxe batzuk itxi egin ziren, dagoeneko ez zirelako beharrezko hasieran sortuak izan ziren helbururako. Espetxe hauen artean zegoen Saturrarango emakumezkoen Espetxe Nagusia, 1944an itxi zena.

7.1.3. Saturrarango eraikinen historia. Erabileraren garapena.

Saturrarango espetxea osatzen zuten eraikin multzoaren garapena ez da sinplea izan. Espetxea izan aurretik eta ondoren beste erabilera batzuk izan zituzten hondartzan kokaturiko eraikin eta pabiloi haiek.

XIX. mendearen lehen hamarkadetan, Saturrarango hondartza inguruan, hainbat baserri eta errota aurkitzen ziren. Nekazal giroko ingurua zen inondik inora ere. XIX. mendearen erdialdean, Bigarren Gerra Karlista (1846-1849) amaitzean gutxi gorabehera, *Gran Hotel Balneario* izeneko luxuzko hotel-bainuetxearen eraikuntza lanak hasi ziren. Urte haietan, gizartea asko aldatu zen: modernizatu egin zen eta industria garatu zen, esaterako. Horrek guztiak berarekin ekarri zuen turismoa. Euskal Herriak bainuetxe eta hondartza paregabeak zituen eta turisten jo-puntu nagusien artean zegoen. Horren adibide garbia da Biarritz edota Donostia uda igarotzeko eremu famatu bilakatu izana. Hori dela eta *Gran Hotel Balneario* hotel-bainuetxearen inguruan kokaturiko baserriak ostatu bilakatu ziren. XIX. mende amaieran, Saturrarango eraia uda pasatzeko eta deskantsurako leku bihurtu zen turista dirudunentzat.

1921ean bainuetxearen negozioa gainbehera etorri zen. Jabeek, hau da, lkatza sendiak dohaintzan eman zizkion *Gran Hotel Balneario* (eta alboko eraikinak) Gasteizko Gotzaindegia. Hark apaizgaiantzat ikastetxe bilakatu zuen. Udako seminario gisa erabili zen Gerra Zibila hasi zen arte.

Gerra hastean, kolore ezberdinetako tropa eta soldaduak egon ziren bertan. Lehenik EAJ-PNVko gudariak egon ziren instalakuntza horietan. Ondoren, frankistek eremua bereganatu zutenean, 1936ko urriaren 4an, Nafarroako erreketean (*Tercio San Miguel*) eskuetan erori ziren eraikinak.

1937. urtean Francok lege dekretuz Gotzaindegia etxeak kendu eta, abenduaren 29ko legean xedatu bezala, eraikin hauei kartzela izaera eman zien. 1938ko urtarrilaren 3an inauguratu zuten Saturrarango espetxe nagusia. Garai hartan ohikoa zen konbentu edota ikastetxeak presondegi bihurtzea, izan ere, Iparraldeko frentea 1937ko urrian erori zen, frankistek Asturias eskuratzearrekin bat. Hori dela eta sasoi hartan, preso

² http://www.euskalmemoria.eus/eu/db/espetxeratuak_saturrarango
kontsulta 2016-04-04]

[Azken

politikoen kopurua handitu egin zen eta giltzaperatze zentro berriak irekitzearen beharra nabarmena zen. 1944ko udaberrian itxi zen Saturrarango kartzela.

Kartzela itxi zen urte bereko udazkenean, hau da, 1944ko udazkenean, itzuli ziren apaizgaiak Saturraraneko eraikinetara. Apaizgaitegi funtzioa 1969. urtera arte izan zuten bertako instalakuntzek.

Urte luzez hutsik egon zela uste da, 1983ko uholdeek Gerra Zibila eta gerraosteko "Emakumezkoen Espetxe Nagusia" osatu zuten eraikin guztiak kolokan jarri zituztela esan ohi da eta, ondorioz, 1987an eraitsi egin zituzten. 1987an Mutrikuko Udalak Gipuzkoako elizbarrutiari lurra eta eraikinak erosi zizkion, beraz, eraitsi zirenerako Mutrikuko udalaren esku zegoen eraikin hauen jabegoa.

Gaur egun, Saturrarango hondartzara joateko zelaigune grisa dago, aparkaleku gisa erabiltzen dena, garai batean espetxea osatzen zuten eraikinen lekuan. *Gran Hotel Balneario* izan zen eraikinaren lekuan, berriz, tamarindoak daude landatuta, baita Saturrarango kartzelan eraildako/hildako emakume eta umeen zerrenda agertzen den oroitarria ere.

7.2. Espetxe-unibertso frankista

Ez da ahaztu behar Saturrarango Espetxe Nagusia ez zela errealitate isolatu bat; frankismo garaiko presondegi-unibertsoaren zati bat besterik ez zen. Funtsean hori da espetxe-unibertsoaren ideia. Espetxe multzo batek osatzen zuen kartzela-sare frankista. Modu horretara, kartzelaratzeko erabili zituzten zentro ezberdinetako funtzionamenduaren antzekotasunak nabarmendu daitezke.

Espetxe-politika frankistak erabateko norabide aldaketa ekarri zuen II. Errepublika garaikoarekin alderatuta. Espetxeetako lehen Zuzendari frankista zen Máximo Cuervok, ejertzitoko generalak, zigorra eta mina aipatzen zituen ereduzko eskarmentuaren oinarri gisa. Testuinguru honetan, 1940an, Presondegiko Ikasketen Eskola (*Escuela de Estudios Penitenciarios*) ireki zen ildo honi eusteko asmoz. Beraz, espetxe-politika berri honekin asmo zuzentzailea guztiz baztertuta gelditu zen. Honela, gobernu errepublikar ezberdinek indarrean jarritako erreformak bertan behera utzi zituzten 1936ko azaroaren 22ko Dekretuaren bidez, eta helburu nagusi bat hartu: garaiko disidente politikoak, hau da, Erregimen Berriarekin bat ez zetozenak, zigortzea eta deuseztatzea.

Espetxeetako funtzionario batzuk Erregimen Berriarekiko leialtasun faltatik susmagarritzat jo zituzten eta espedienteak ireki zizkieten. Hala ere, garai hartako kartzeleetako masifikazioa zela-eta, honek sortutako beharragatik askok euren postua mantendu ahal izan zuten. Dena den, legez, sortutako funtzionario postu berriak 'basakeria gorriaren' biktimen senitartekoentzat ziren, hau da, bando nazionaleko hildako edota zaurituen familiarrentzat. Hala, mendeku egarriaren ondorioz, ankerkeriaz ziharduten presoekin zuten eguneroko tratuan.

Aurrez aipatu bezala, garai hartako beste ezaugarri penitentiarioetako bat emakumezkoen espetxeetara, zaindari gisa, mojak itzultzea izan zen, batez ere, preso kopuru handiari kabitze asmoz komentu edota ikastetxeak espetxe bihurtu ziren haietan. Saturrarango espetxearen kasuan ere horrela izan zen.



Espetxeratutako emakume gehienak ez ziren delitu komunengatik edota 'moralitate publikoaren aurka' egiteagatik atxilotuak; preso politikoak ziren. Ez zuten zertan partidu edota elkarte batean konpromiso maila zehatz bat izan beharrik, nahikoa zen errepublikar baten ama, maitale, emazte edo alaba izatea. Euren senideen aurkako zigor edota xantaia moduan ziren giltzaperatuak, 'euren gizonak kontrolatzen' ez jakitearen akusaziopean. Akusaziorik ohikoena Errepublikaren legezko ordenari leial mantentzea zen, errebelamendu delituarekin zigortua. Ikertzen ari garen kasuan, Saturrarango espetxean, ez zeuden behin-behineko presoak edo prebentiboak; euren kondena betetzen ari zirenak zeuden. Kunplimenduko espetxea zen beraz. Esan beharra dago, beraien ekintza propioengatik edota beraien gizonezko bikotekide/senideen ekintzengatik kondenatuak eta zigortuak izandako emakumeek, emakumezkoentzako espresuki pentsatutako zigorrak pairatu behar izan zituztela.

Saturraran ulertezina da Estatu Berria krudeltasunaren, gorrotoaren eta beldurraren gainean eraikitzearen ideia gabe. Gerrako frentea sarraski eta hilketa planik gabe ulertu ezin daitekeen moduan, atzealdean, garaiko espetxeetan jazotakoak, Obanosko Victor Mañu elizgizonaren "bosgarren mandamentua den ez duzu hilko, baina salbuespenekin"³ bezalako hitzik gabe ezin dira ulertu. Testuinguru horri *garbiketa politikoaren*⁴ kontzeptua gehitzen zaio, kontzeptu hau ezinbestekoa da errepresio faxistaren gakoak identifikatzeko, Alemania naziko "garbiketa etnikoaren" aldagai gisa ulertzen da. *Etsaia akabatu eta suntsitu, irabazle eta galtzaileak izatearen beharra, euren odolarekin ordainduko dute...* bezalako esaldiek barnebiltzen dituzten asmoak ere ikergai dugun espetxean islatu ziren.

"Gerra Zibilak" iraun bitartean eta gerraosteko lehen urteetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoan espetxe asko konta zitezkeen, eremu honetako biztanleria eskasa eta tropa frankistak iritsi aurretik bertatik eremu seguruagoetara alde egindako erbesteratuak kontuan izanik. Donostian soilik Ondarreta, Kursaal, *San Jose de la Montaña* Ikastetxea, *Guardia de Asalto de Zapatar* Kuartel zaharra, Boulevardeko Falangearen lokalei kartzela erabilera eman zitzairen. *San Jose de la Montaña* Ikastetxea emakumezkoentzat soilik bideratutako presondegia zen.

Aurreko paragrafoan aipatutakoez gain, Gipuzkoan beste hainbat espetxe dokumentatu dira, hala nola, Azpeitian, Tolosan, Bergaran, Eibarren, Irunen eta Hondarribian. Azken biak, mugatik gertu zeudenez, nagusiki errefuxiatuen atxilotze zentro erregular gisa funtzionatzen zuten. Horietan beste espetxe batera eraman, kontzentrazio eremu batean sartu edota aske utzi aurretik gauzatu beharreko hainbat kudeaketa egin bitartean atxikitzen zituzten errefuxiatuak. Egoera hartan, 1939an, asmo berarekin, Tolosa eta Donostiako zezen-plazak kontzentrazio eremu (gaztelaniazko 'campo de concentración') gisa prestatuak izan ziren. Hauek izan ziren Lurralde Historiko honetan egon ziren kontzentrazio eremu bakarrak. Fenomeno hau beste leku batzuetan oparoagoa izan zen. Litekeena da mugaren bertakotasunak errazten zuen ihesaldi masiboaren beldurratik modu berean ez aplikatzea Gipuzkoan⁵.

³ JIMENO JURÍO, Sartaguda 1936. El pueblo de las viudas.

⁴ Idem.

⁵ Garai hartako Gipuzkoako presondegi-egoerari buruz informazio gehiago. BARRUSO, "Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo (1936-1945)"



Espetxe-unibertso frankistako epaiketak nolakoak ziren aipatu beharra dago, izan ere, gizartea irabazle eta galtzaileen artean banantzen zuen. Horietan azkartasuna zen nagusi eta gehienetan ez zen defentsa aukera bermatu ere egiten. Emakumeen kasuan, errepresioa bikoitza zen gorri eta emakume izateagatik, izan ere, euren jarrera ez zen femeninoa, ez zen garaiko genero patrioietara egokitzen. Erregimena eta elizaren artean emakumeak etxean sartu nahi zituzten eta bizitza publikoko sartu-irritenak ekidin. Ordena hori hausten zuten emakumeak gogor zigortzen zituzten.

7.3. Saturrarango bizimodua

Aztertzen ari garen espetxera bidai luze baten ostean iristen ziren presoak eta euren seme-alabak. Ahozko testigantzek emakumez betetako trenetz, tren-aldaketez eta Debako estazioaz mintzo dira. Bertatik autobusez eramaten zituzten Saturraranera.

Nahiz eta lehen inpresioa ona izan, inguruagatik, segituan desegiten zen bertako bizimodura egitean. Eguna goiz hasten zen Saturrarango espetxean, zoruaren gainean lo egiten zuten zakua jaso eta Angelus-a errezatzen hasi behar izaten zuten. Otoitzaren ondoren, toaila hartu eta Mijoa ibaian garbitzen ziren. Saturraranen ez zeuden ez dutxak, ezta konketak ere. Higienea ukatua zuten. Orrastu ostean, zenbaketa eta gero, gosaltzera. Egunaren gainerako orduak zereginetan, tailerreko lanak egiten edota hizketan igarotzen zituzten.

Carmen Riera beraren hitzetan Saturrarango egunerokoan araudi bat jarraitzen zen: "(...) goizeko zortziretan gora eta formatzera, araudia zen. Eta han zenbatu egiten gintuzten astoak bezala, eta 'Gora Espainia!' esan behar zen eta besoa altxa eta batzuk honela altxatzen bagenuen moja etortzen eta horrela egiten zizun eta orduan bukatzen zen, bazkalordura arte, ateratzeko aukera zenuen pabiloi bat tokatzen bazitzaizun".

Rieraren lekukotzarekin jarraituz, preso zeuden emakumeek espetxean egiten zuten lana sistemarentzat onura iturri izan zela argi ikus daiteke, giltzaperatuen eskulan merkeari esker Erregimenak Espainia Berria eraikitzea baitzuen helburu: "Kondena laburtzeko egin dut lan, laburtu egiten baitzuen, Egaña Tailerrean, domina batzuei pintura jartzen genien, Espainiako kriminalak berari boluntarioki laguntzera etorri zirenei eman zizkien dominak izan ziren haiek. Eta hori, hamabost egun bitarte edukitzen genuen lana, goizean lauzpabost orduz egiten genuen lan eta egunean duro bat kobratzen genuen, baina azken eskaera ez dugu oraindik kobratu".

Saturrarango lege zorrotzek bertan espetxeratuta zeuden emakumeen duintasunarekin akabatzea zuen jo-puntuan. Presoei 'Cara al Sol' kantua kantarazten zieten. Eurek, ordea, trikimailuak erabiltzen zituzten koplak hori kantatu behar zenean ahots baxuagoz letra aldatu eta beste bat kantatzeko. Carmen Rieraren hitzetan, honako hau:

*Cara al sol te volverás morena
Rojo no te va a querer
Hallarás la muerte si me quieres
Y no te vuelvo a ver
Volverá Azaña y Caballero
Y detrás Prieto con el dinero
Arriba rojos a vencer*

Que el fascismo tiene que fallecer

Behin gerra amaituta Erregimen Berriak errepublikarren umiliazioa eta amore ematea bilatzen zuen itotze ekonomikoaren bidez. 1939an Erantzukizun Politikoaren Legearekin ondasunak konfiskatzea eta jazarpen ekonomikoa legeztatu zen "Frente Popularreko eta bere instituzioetan karguak zituztenen" aurka. Gerora aplikazio eremua zabaltzen joan zen, ezkerreko militanteak barnebidu zituen lege hark, baita mugimendu frankistara batzera ukatu zirenak edo batu ez zirenak ere. Azkenik, jarraitzaileen aurka ere aplikatu zen.

Horrela, heriotza-zigorra edo kartzelako kondena zutenei zigor ekonomikoa ere gehitu zitzaion. "Gose paktua" bezala ezaguna zen; enplegua ukatzen zitzaion ezkerrekoei edota abertzaleei. Modu horretara, gizon-emakume errepublikarrek eta euren seme alabek edozein lanpostu onartu behar izan zuten, umiliazioa bazekarkiten ere. Beste hitz batzuetan esanda, zigorra ez zen amaitzen espetxetik ateratzean "Gose Paktuari" desterrua ere gehitzen baitzitzaion askotan.

7.3.1. Gaixotasunak eta heriotzak

Gaixotasunak eta heriotzak eguneroko ogia ziren Saturraranen. Iturburu ezberdinak zituzten: tratu txar fisikoak, gaixotasunak edota osasun-arretarik eza eta desnutrizioa. Arrazoi horien pilaketaren emaitza izaten zen heriotza, izan ere, gaixotasun asko ulertezinak ziren desnutriziorik gabe edota ekiditeko modukoak behar bezalako osasun-arreta izanez gero. Ziega hotz eta hezeetan giltzaperatzearen zigorra, Saturraranen tristeki famatua, izan zen hainbat heriotza eta gaixotasunen jatorria.

Espetxeko bizi-baldintzak gogorrak ziren, bereziki hotza, hezetasuna eta elikadura eskasia baitzeuden bertan. Osasun-zerbitzu kaskarrak ere izan zuten zerikusia guzti horretan. Gosearen gosez, presoek eskura zeukaten edozer gauza jaten zuten, jakia (nolabait deitzearren) zein egoeratan aurkitzen zen erreparatu gabe. "Han erreka bat zegoen eta bertatik modu guztietako zikinkeria pasatzen zen: patata azalak, belarrak... eta handik pasatzen zen guztia emakumeek jaten zuten, horrela intoxikatu ziren sustrai batzuk hartu zituzten neskak, haietako asko hil egin ziren"⁶.

Kartzela martxan egon zen urteetan Mutrikuko Erregistro Zibilean 116 emakumeren eta 56 umeren heriotzak dokumentatu ziren. Hildako beste emakume batzuen berri ere bada, eraman zituzten ospitaleetan edota beraien etxeetan askatasuna berreskuratu eta gutxira hildakoak; horiek ordea ez ziren agertzen zerrenda hartan. Beste iturri⁷ batzuen arabera, hildako pertsonen zifra 177koa litzateke. Heriotzen kausak anitzak dira: tuberkulosia, bronkitisa, minbizia, sukarra, tifoideak edota paralisia. Umeen kasuan izurriteek sekulako eragina izan zuten, Carmen Rieraren lekukotzaren arabera 30 adingabe inguru hil ziren astebetean, horien artean bere alaba, ezezaguna zen birus bategatik.

⁶ Natividad Morcilloren "La Extremeña" testigantza Tomasa Cuevasek jasoa Presas-en. Icaria. Barcelona 2005.

⁷ Miren Arantza UGARTE LOPETEGI "Saturrarán: sólo quedan los tamarindos". Stud. Hist. Hª cont., 29, 2011, pp. 267-280. Ediciones Universidad de Salamanca.

Mutrikuko Erregistro Zibilean jasotako datuek ez diote Carmen Rierak esandakoaren kontrakorik. Hilabete eta erdian, 1940ko uztailaren 16tik urte bereko abuztuaren 28ra, 33 umeren heriotzak dokumentatu ziren eta horien artean Aurora Gallegos Rierarena, Carmenen alabarena, abuztuaren 7an zehazki.

Gaixotasunei dagokienean, mota ezberdinetakoak bizi behar izan zituzten espetxeratuek. Sendagilearen interes falta tarteko, askoren egoerak txarrera egin zuen. Egoerarik larrienetan presoak osasun-zentroetara eramaten zituzten, baina askotan ez zen nahikoa izaten. Horren adibide garbia da 1943ko urtarrilaren 20an Donostiako San Antonio Abad ospitaleko larrialdietara eramandako emakumearena, zentro horretatik bere lekualdaketa eskatu zen Institutu Erradiokirurgikora tratamendua jaso ahal izateko, baimena eman arren ezin izan zitzaion aplikatu anemia zeukalako. Azkenean, 1943ko ekainaren 30an hil zen.

Hala ere, heriotzaren inguruko datuak emateko garaian irregulartasun batzuk antzeman dira. Adibidez, heriotzaren arrazoa falta da batzuetan edota ez da adierazten ez data, ez ordua ezta medikuaren heriotza ziurtagiria ere.

7.4. Espetxeko zaindariak, zuzendariak, kapilauak eta sendagilea

Saturrarango espetxeko zaindarien artean Mesedetako Ordenako mojak eta militarrek bazeuden ere, mojek izan zuten protagonismo handiena. Hauxe gain, espetxean hainbat zuzendari ezberdin egon ziren, baita kapilauak eta sendagilea ere.

7.4.1. Mojak eta militarrek

Mojak espetxeetako zaindari funtzioetatik baztertu egin ziren II. Errepublika garaian Victoria Kent Espetxeetako Zuzendari Nagusiaren aginduz. 1938ko abuztuaren 30eko arauak hauen itzulera baimendu zuen.

Kondenen Luditzeen Patronatuaren memorien arabera, 1940an Espainian 342 moja zeuden berrogei espetxetan banatuta, hauetako 25, Mesedetako Ordenakoak, Saturrarango espetxean.

Beraz, II. Errepublika amaitzean, berriro ere, mojak itzuli ziren emakumezkoen presondegiak gobernatzera, tartean, garai hartako preso-kopuruari irtenbide emateko asmoz hainbat komentu eta ikastetxe espetxe berri bihurtu zirelako. Saturrarango espetxearen kasua horietako bat zen eta espetxea kudeatzeaz arduratzen ziren 25 mojez gain, 50 zentinelak edota zaintzaile militar, apaiz bat eta mediku bat ere egon ziren bertan, kartzelaratuak emakume eta umeez aparte noski. Pabiloi bakoitzeko lau moja zeuden eta hauen gaineratik Arantzazu Velez de Mendizabal Ama Nagusia zegoen.

Garai hartan hainbat emakume eta umek mojen agindupean zeuden espetxetan pairatutako errepresioari buruz hitz egitean, ezinbestekoa da aipatzea elizak frankismo garaian izan zuen boterea edota pisua. Elizak bere esku zeuden kartzeletan izandako jokamoldea benetan krudela izan zen. Eliza katolikoaren berezko hierarkia frankismoa dela esaten duenik ere bada.

Saturrararen bera Estatu frankistaren eta erlijio ordenen sarearen zati izan zen. Emakumezkoen espetheen kudeaketa mojek helburu bikoitzarekin gauzaten zuten, kartzelakoa eta apostolikoa. Horrela, Estatuak Elizaren jabegoan zeuden instalakuntzen erabilera egin zuen garaiko preso-kopuruaren arazoari irtenbide emanez, gainera mojek doako eskulana zirenez, alde horretatik behintzat, ez zion gastu ekonomikorik suposatzen. Elizak, aldiz, berrerosi eta katekizatzeko masa sozial bat zuen trukean.

Horren guztiaren adibide garbia da ahozko lekukotzetan jasotakoa: "gaiztoak" zirela errepikatzen da behin eta berriro, edota Saturrarango espetxeko Mesedetako Ordenako mojen Ama Nagusiari, Sor Maria Arantzazu Velez de Mendizabali, 'Sor Pozoin' (gaztelaniaz 'Sor Veneno') edo 'Pantera Zuria' ezizena ezarri zioten bertan espetxeratutakoek. Jantzi zuria janzten bazuen ere, "bere bihotza pantera bat bezain beltza" zelako.

Testigantzei jarraiki, Saturrarango baldintza gogorrei aurre egin behar izan zieten hainbat emakume espetxeratuen ahotik, jakin badakigu mojek janaria lapurtzen zutela, estraperloan. Umeen janaria saldu izana eta Ondarruko arrantzaleek giltzaperatuentzat eta eurekin preso zeuden seme-alabentzat emandako arraina negoziatzea egozten zaie. Honez gain, ume 'politinak' hautatu eta hauekin baserrietara janaria eskatzera joaten zirela ere lekuko batek baino gehiagok kontatu izan zuen. Emaizta ona izaten zuten, janaria lortzen baitzuten. Espetxean zeuden adingabeei letxuguen salda ematen zieten, gainerako guztia mojek eurentzat hartzen zuten. Honez gain, Balbina Lasherasen testigantzan oinarrituta, giltzaperatutako emakumeek arrosa lurrarekin jaten zuten bitartean mojen sukaldeari "goizean goizetik urdai eta arraultza frijituen usaina zerion. Mojek ongi jaten zuten, zeinen osasuntsu eta eder zeuden", zioten lekukoek.

Mojen zereginen artean zegoen emakume "galdu" haiei (Erregimen Berriak hala deitzen zien preso zeuden emakumeei, politiko zein sozialei) frankismoak beraiei egotzitako papera erakustea. Beste hitz batzuetan esanda, "ama/emazte/alaba on" izatea.

Espetxearen kanpoaldea zaintzen zuten soldaduen gehiengoa nafarra zen. Dirudienez ez zuten garrantzia askorik izan, eremutik nahiko baztertuta egoten baitziren. Hala ere, gazteren bati edo besteri botariko "piropoez" mintzo da testigantza bat edo beste. Preso baten ihesaldiaz ere mintzo dira zurrumuru batzuk, militar bat erosi ostean.

Presondegia zaintzen zuten guardien eta, batez ere, mojen eskutik sekulako ankerkeriak jasan behar izan zituzten Saturrararen espetxeratuta egondako emakume eta hauen seme-alabek: umiliazioak, baldintza kaskarrak, gosea eta gaixotasunak. 116 emakume eta 56 haur hil ziren (Mutrikuko Erregistro Zibileko heriotza liburuaren arabera) kartzela martxan egon zen bitartean, gehienak tuberkulosiak jota edo errakitismoagatik.

7.4.2. Espetxeko zuzendariak

Espetxeko lehen zuzendaria Don Servando izan zen, Coria-koa (Cáceres). Hura Manuel Sanzek, Antonio Mayak eta Doña Celiak ordezkatu zuten. Antonio Maya kendu egin zuten kargutik ustelkeria kasu bat zela-eta.

Don Servando Ondarruko emakume batekin ezkondu zela gogoratzen dute lekukoek, emakume hori kartzelara janaria eramatera joaten zen. Manuel Sanz, aldiz, bere



emaztea eta bi alabekin espetxean bertan bizi zen. *Redención* astekarian azaltzen da espetxeratutako emakumeen seme-alabekin batera eta bataioetan hauen aita-jaun gisara. Antonio Maya Azpeitiako espetxetik zetorren eta Manuel Sanz ez zegoenetan behin-behineko zuzendari gisa egon bazen ere, 1940ko apirilean behin-betiko zuzendari izendatu zuten. Bere ustelkeria kasua eta estraperloarekin izandako eskandaluagatik 1941ean kargua utzi behar izan zuten, hau ahozko testigantzetan baieztatu daiteke. Akusazio hauek Sor Maria Arantzazu Velez de Mendizabalekin ere kargugabetu zuten; Ama Nagusi kargutik kendu zuten arrazoari berberengatik.

Pertsona horiek kargutik kendutakoan, Saturrarango zuzendari gisa Doña Celia anderea eta Ama Nagusi bezala Sor Maria Jacinta Uribealzo izendatu zituzten.

7.4.3. Kapilauak

Saturraranen preso egondako emakumeen ahozko testigantzetan laudorioak jasotzen dituen pertsonaia bakarra da Jose Maria Arrieta, espetxeko kapilaua. Gehien lagundu ziren pertsona gisa definitzen dute. Mojen aurrean defendatzen zituen eta argazkiak ateratzen zizkien. Aurreko kapilaua Modesto Larrañagak ordezkatu zuen 1939ko irailean eta presoek honela gogoratzen dute: "*Eskerrak kapilau hari: hori izan zen, kapilaua, eta ez gainerakoak bezalako funtzionario iraintzaile bat gehiago*".

7.4.4. Sendagilea

Luis Arriola doktorea Ondarroako sendagilea zen eta Saturrarango espetxeko preso eta umeena ere izan zen. Lekukotzen arabera, pertsonaia zibilik negatiboena izan zen eta bere ezaugarriak azpimarratuena presoaren osasunaren gaineko interes eza zen. Irainak, gutxiespenak eta eraiketa hitzak atera ziren berari buruz aritu zirenetan. Horren adibide da Balbina Lasherasen testigantza "Tifusaren aurkako txertoa eman behar ziguten hiru txandetan eta badakizu zer egin zuten? Dena batera eman zigun. Batzuk etzan egin ziren eta ezin zuten altxa eta Bienven Donostiako bat, txerto harekin erori zen, sukar askorekin, hainbesterekin, hil egin zela. "

7.5. Preso kopurua

Preso kopuruari buruz jarduteko garaian, hainbat zailtasun aurkitzen dira, urteetan zehar isiltasunarekin soilik egin baita topo. Honi iturri fidagarrien eta frankismo garaiko emakumezko preso politikoaren ikusezintasunaren arazoak gehitu behar zaizkio. Gauzak horrela, lau iturri ezberdin aztertu dira:

Lehenengoa, Erregimenak ofizialki ematen zuen kopurua da. 1939ko apirilera *Redención* astekariaren 3. zenbakian giltzaperatutako emakumeek Estatuburu zen Francisco Franco Generalari idatzitako telegrama bat azaltzen da, Gerra irabazteagatik zorionduz eta "eurek (presoek) egindako hankasartzeengatik barkamena eskatuz". Aldizkariaren arabera 1.454 preso, 72 amek, 75 umek eta 108 zaintzailek sinatu zuten. Nahiko zehatza dirudi zenbaketak, adina kontuan hartuz eta kartzelan adingabeak zeudela ere azaltzen da.

Bigarren iturriari dagokionez, urtebete geroagokoa da, 1940koa, Mutrikuko Udaletxeko errolda da hau. Bertan 1.666 pertsona agertzen dira honako banaketarekin: kartzelako 4 ofizial, 53 militar, 25 moja, apaiz bat eta 1.583 giltzaperatu. Ez dago umeen



presentziarik zenbaketa honetan, ezta 60 urtetik gorako emakumeen banaketarik ere. Umeen erreferentzia aurkitzekotan Mutrikuko Erregistro Zibileko heriotzen liburura jo beharra dago, bertan euren amekin espetxeratutako 56 umeren heriotza dago jasota. Gainera, Saturrarango kartzelan jazotako hainbat erditze ere aurki daitezke herriko Erregistro Zibilean.

Hirugarren iturria Lan Ministerioa litzateke. 1942ko eta 1943ko urtarrileko zifrei egiten zaie erreferentzia bertan, hurrenez hurren, 1.563 eta 1.256 espetxeratu dira aipatzen direnak.

Azkenik, 2015eko otsaila hasieran Euskal Memoria Fundazioak publiko egindako zerrenda⁸ da. Fundazio honek 1938 eta 1945 urteen artean Mutrikuko Saturrarango emakumezkoen Espetxe Nagusian preso egon zirenen zerrenda edo errolda kaleratu zuen. Guztira 1.576 emakumeren izenak ageri dira.

Beraz, lortutako zifra guztiak 1.500 ingurukoak direla nabarmendu behar da. Horrek guztiak eta Saturrarango bertan giltzapean izandako emakumeen testigantzek, garaiko gainerako espetxeetan bezala, Saturrarango ere gainpopulazioa zegoela baieztatzen dute. Lekukoei jasotako ahozko testigantzetan argi ikus daiteke masifikazioaren kontua "lurrean lo egiten genuen, beti alboz, ez ginen sartzen" edota "jantokira txandetan joaten ginen, gehiegi ginen". 1940az geroztik presoek kopurua, pixkanaka, jaisten joan zen.

7.5.1. Presoen nolakotasuna

Legez eta fisikoki preso sozial edo komunen eta politikoen arteko banaketarik ez bazegoen ere, elkarren arteko harremanaren berririk ez dago. Bi taldeen artean ezberdintasunak zeuden, ikasketa-mailatik hasi, lan ohituretatik eta janzteko moduagatik pasa eta higiegi ohituretaraino. Esan beharra dago, Erregimenak ahalegin berezi bat egin zuela bi taldeen artean banaketarik ez egiten saiaturik preso politikoa kaltetzeko asmoarekin.

Hala ere, Saturrarango nagusiki kartzela politikoa zela esan daiteke arrazoi "komunengatik" espetxeratuta zeuden emakumeak % 11 soilik baitziren.

⁸ http://www.euskalmemoria.eus/eu/db/espetxeratuak_saturraran
kontsulta 2016-04-04]

[Azken



07. Irudia. Saturraranen preso zeuden emakumeetako batzuk. Iturria: Juanjo Egaña

Espetxe espedienteen arabera, atxilotzeko arrazoi errepikatuenak "matxinadara batzea edo laguntzea" izaten ziren. Horren ondoren, defentsarako bermerik gabeko epaiak gauzatu zituzten eta kartzelaratuak izaten ziren. Ia beti eduki moral altuko akusazioak egozten zizkieten, euren izaera politikoa gutxietsiz garaiko emakumearen joera onartuetan ez baitzuen tokirik militantzia politikoa.

Kartzelaratuak izandako momentuan zuten adina kontutan hartuz gero, batezbestekoa, 36 urtetik behera kokatzen zen adin-talderik handiena 21-25 urte bitartekoa izanik (% 20a). Espetxean 16 urtetik 65 urteraino bazeuden gutxienez, adin-tartea zabala zen. Emakume hauen ia erdia, % 47a, emakume ezkonduak ziren, ia herena, % 30a, ez zegoen ezkondu eta % 20a alarguna zegoen. Saturraranen preso zeudela bederatzi emakume geratu ziren alargun. Gehiengoak (% 52ak) umeak zituen eta irakurtzen eta idazten zekiten (% 64ak).

Emakume hauen lanbideari buruz zerbait aipatzekotan, espetxe-espedienteetan besterik atera ezean, defektuz, "etxeko andre izatea" adierazten zuten. Azpimarratzekoa da emakumeak etxera mugatzeko ahalegin etengabea.

Saturraranen giltzapetuta zeuden emakumeak landa eremukoak edota hirikoak izan zitezkeen, denetarik zegoen. Jaioterriari dagokionean aldiz, preso gehiengoak Espainia iparraldekoa zen. Asturiasek aipamen berezi bat merezi du 103 kartzelaratu bertakoak baitziren; Madril, Toledo, Cuenca, Badajoz, Leon eta Kantabria ere ezin dira aipatu gabe utzi. Atzerrian jaiotako bost emakume zeuden Saturrarango presondegian (bi Mexikon jaiotak, beste bi Argentinan eta azkena, berriz, Brasilen). Guztira 45 euskaldun zeuden, arabar bat, sei gipuzkoar, beste sei nafar eta 33 bizkaitar.



Altxatutako tropen aurrerapen bat dator Saturrarango emakumeak lehen aldiz espetxeratu zituzten data eta lekuarekin. Hau garbiago ikus daiteke 1937 eta 1938 bitartean Espainia iparraldea frankisten esku erortzen ari zenean, hain justu, iparraldeko jatorria zuten atxilotuek eta han izaten ziren kartzelaratuak. Hemen ere Asturias aipagarri suertatzen da aurrez aipatutakoarekin, 1937ko urrian iparraldeko frontea bertan erori zen eta erlazio zuzena du. 1939an, berriz, Madril erori zen eta kartzelaratuak gehiengoa madrildarra zen jatorriz.

Presoen ezaugarri eta nolakotasunei jarraiki, orokorrean, Saturrarango ez zen euren lehen espetxea izan. Lekualdatze bat edo gehiagoren helmuga zen, izan ere, kunplimendu zentro bat zen, bertan ez ziren behin-behineko presoak egoten.

7.6. Saturrarango umeak

Saturrarango kartzelako erregistroan umeak agertzen ez baziren ere, euren amekin giltzaperatuta egon zirela gauza jakina da. Hau iturri ezberdinen bidez egiaztatu daiteke.

Lehen iturri gisa ahozko testigantzak daude non etengabe agertzen den adingabeen aipamena, adibidez, "umeek kantatu eta barre egiten zuten" edota larritasunez hitz egitean, bereziki, gaixotasunei, heriotzei edota amengandik banatu zituztenekoari buruz. Beste froga bat ikertutako espetxe-espeditanteetan agertzen ziren "esnealdi" luditzeak ziren, hots, amek euren seme-alabei bularra emateagatik zigorra jaistea.

Hirugarren iturria *Redención* astekaria da, 1939ko apirilaren 1eko bataio berriei begiratuta "Bi umeren bataioa: Jose Luis Nava Perez (15 hilabete) eta Margarita Solis Gutierrez (2 urte) zuzendaria eta bere alaba Carmen Sanz Barbollaren besotakoak" irakur daiteke. Baita astebete beranduago, hau da, 1939ko apirilaren 8an argitaratuko zuten "Magoak pasatu dira (Saturrarango Errege eguna gogora ekarriz). 'Auxilio Social y Cultura Femenina'ko Donostiako andere bereziek jostailuak eta arropa eman dizkiete egin ez dituzten delituengatik zigortuta dauden umei" ere. Honez gain, Ama Agurgariaren irudia goraiatzeko "Sor Maria Aranzazu Velez de Mendizabalen kezka eta karitatea. Bildutako diruarekin umeentzako arropa eta oinetakoak banatu zituen, bera maitatzeko helburuarekin" moduko esaldiak aurki daitezke.

Laugarren iturria Mutrikuko Erregistro Zibileko heriotzen liburua litzateke. Hori jakinarazpen ofiziala da, iturri horren bidez Saturrarango kartzela barnean, gutxienez, 56 ume hil zirela baieztatu daiteke.

Beste iturri bat *Redención* astekaria izan daiteke. 1939ko apirileko alearen 3. zenbakian giltzaperatutako emakumeek Estatuburu zen Francisco Franco Generalari idatzitako telegraman ere umeen presentziaren arrastoa aurki daiteke. Telegrama amaierako sinaduren artean, 75 ume nabarmentzen ziren.

Gainera, presondegian izandako erditzeak ere badute euren arrastoa. Mutrikuko udaletxeko erroldan lekuri izan ez bazuten ere, Mutrikuko Erregistro Zibileko jaiotzen liburuan islatuta geratu ziren espetxean jaiotako umeak. Iturri honen arabera, guztira zortzi ume jaio ziren presondegian. Hala ere, erditze gehiago egon zirela uste da, ondorio horretara iristea ez da zaila, izan ere, ama hildako umearen adina (Erregistro

Zibileko heriotzen liburuan agertzen ziren hilabeteak edota egunak) baino lehenago kartzelaratu izan baitzen hainbat kasutan.

Gauzak horrela, ahozko testigantzak goseaz, gaixotasunez eta heriotzaz mintzo dira. Carmen Riera Saturrarango preso ohiaren esanetan "hamar egunetan hogeita hamapiko ume hil ziren, horien artean nire alaba". Beherakoa, sarna, zorriak edota desnutrizioa bezalako hitzak behin eta berriro agertzen dira lekukoaren ahoan.



08. Irudia. Saturrarango emakume presoak, tartean ume bat (eskuinean). Iturria: Juanjo Egaña

Hala eta guztiz ere, giltzapean zeuden amen beldurrik handiena euren seme-alabak kentzearena zen. Beldur horren jatorria 1940ko martxoaren 30eko Legea zen, lege horrek kartzela barneko umeen egonaldia arautzen zituen. Urte bereko apirilaren 6an jarri zen indarrean eta horren ondorio izan zen Saturrarango espetxeko kapitulurik ilunenetakoa. Lege horren arabera haurrek hiru urte bete artean amek euren seme-alabak kartzelan eduki zitzaizketen, beraiekin, eta hauei bularra emateko eskubidea zuten. Behin umeek hiru urte betetakoan, haurren familiak beraiek elikatu eta hezteko bitartekorik ez bazuten, Junta Probintzietako Haurren Babeserako zegoen departamentua egingo zen umeen mantenu eta laguntzen kargu.

Ordutik aurrera, espetxeratuta zeuden amek, haurrak hiru urte bete ondoren, euren seme-alaben kargu egingo zen ezagunen bat ala konfiantzako norbait bilatzeko sekulako eginahalak egin zituzten; Estatuaren esku ez uzteko. Kasu askotan euren bikotekide edo bidelagunak espetxean, erbestean edota hilik aurkitzen ziren. Irtenbideetako bat askatasuna berreskuratu zuten euren kideei ematea zen eta hala frogatu ahal izan da aztertutako espediente batzuetan. Presondegia inguruko herrixketako (Ondarru, Mutriku eta Deba) konfiantzako familien elkartasunaz ere baliatu izan zirela, bertako sendia batzuk giltzaperatuta zituzten amen seme-alabak hezi zituzten hauek espetxetik atera bitartean. Hala ere, aipatu beharra dago, ama asko ez zirela espetxetik ateratzerira iritsi, ez bizirik behizat, eta atera zirenen egoera



prekarioa zela-eta, batzuk nahiago izan zituztela euren seme-alabak urteetan zehar zaindu eta hezi zituzten konfiantzazko familia haien esku utzi.

Euren seme-alabak senitarteko, ezagun ala gertuko konfiantzazko familia bati uzteko aukera edo zorterik izan ez zuten emakume haiek sufrimendu erantsi bat bizi behar izan zuten. Beste modu batera esanda, euren gatibualdiari beraien seme-alaben bahiketa "legala" gehitu behar zaio. Ricard Vinyes historialariaren hitzetan "1940 eta 1941eko legezko xedapenen arabera 'Auxilio Social'ean sartzen ziren umeen gurasoek euren seme-alaben gaineko amatasun/aitatasun ahalmena galtzen zuten eta Estatuaren edota Erregimenaren jarraitzailea zen familia guztiz katoliko baten esku geratzen zen"⁹. Datuetan oinarrituz gero, 1942. urtean Estatuak bere tutelapean 9.050 haur zituen; 1943an, aldiz, 12.042. Ume horietako askok ez zuten sekula euren ama berriro ikusi. 'Auxilio Social'¹⁰ egitura falangista zen legezko adopzioen arduradun. Erakunde horrek "posible izanez gero", euren gurasoei itzuliko zizkien umeak. Familia "dirudun eta onei" eskaintzen zizkien ume hauek adopzioan, baina kasu batzuetan *Auxilio Social* erakunde bereko zuzendariek ezezkoa ematen zien familia "on" horiei "baldintza ultra-ekonomikoetan bilatutako neskame/morroï bat besterik bilatzen ez zutela"¹¹ kontsideratuta.

Kartzelan euren amekin preso zeuden seme-alabak euren amengandik banantzeko 1940ko martxoaren 30eko Legea eta Saturrarango espetxea bera ere ezin dira guztiz ezagutu Antonio Vallejo Nágera¹² doktore psikiatra-militar famatuaren teoria nabarmenak kontuan hartu gabe. Psikiatra militar hark espetxeetan aurkitzen ziren umeak "mentalki ahulak ziren haien seme-alaba" gisa definitu zituen. Preso politikoen seme-alabak euren gurasoengandik banantzearen azpian zegoen pentsalaria zen Vallejo Nágera doktorea. Honela argudiatu zuen: "Sujetu hauek haurtzarotik erabat banantzearen ideia gurea da, gizartea plaga izugarri honetatik babes baitezake". Bitxikeria bezala, doktore honek berak "Psikopatologia marxistaz kutsatzeko erraztasuna euskaldunak zutela" zioen, bere hitzetan, "euskaldunei fanatismo politikoa eta erlijiosoa bateratzen baitzaizkie".

Umeen erregistrorik ez egoteak hauen lapurreta erraztu zezakeen, ez baita ziurra frankismoan hain ohikoak ziren lapurretak Saturraranen ere gertatu zirenik (lekuko batek soilik baieztatu zuen). Iturri batzuen esanetan, 1944an kartzelan zeuden haurrak lapurtu zizkieten amei eta *Auxilio Social*en esku utzi zituzten. Aipatu bezala, askok ez zuten gehiago elkarren berri izan. Antonio Vallejo Nágera psikiatra militarraren gurasoak eta

⁹ VINYES, "Irredentas".

¹⁰ 'Auxilio Social' giza-laguntzako erakunde bat zen Gerra Zibil garaian sortua. Gerora, espainiar Falangeko Emakumezko Sailean barneratu zen. Mercedes Sanz Bachiller-ek sortu zuen. Antolakunde honek hasieran 'Auxilio de Invierno' zuen izena, berau 'Winterhilfe' organizazio naziaren harira sortu zen, azken honen helburua dohaintzak biltzea zen, ondoren, beharra zutenen artean janaria eta neguko arropak banatzeko. 1937tik aurrera modu iraunkorrean funtzionatzen zuen erakunde bihurtu zen eta bere betebeharren artean zegoen aberriratutako edota eremu errepublikarretatik zetozen umeen kargu egitea.

¹¹ CENARRO, "La sonrisa de la Falange".

¹² Antonio Vallejo Nágera psikiatra militarra 1889an Paredes de Navan, Palencian, jaioa. Ospe profesional eta itzal handiko pertsona zen, Erregimen frankistan eragin handia izan zuen. Ejertzitoko Komandante gradua eta Zerbitzu Psikiatriko Militarren Zuzendari kargua zituen. Atzerrian formatu zen, bereziki Alemanian.



seme-alabak elkarrengandik banantzeko pentsamendua oinarri hartuta, 1940ko martxoaren 30eko arauak "espetxetik hiru urtetik gorako umeen berehalako irteera" xedatu zuen. Horrela Saturrarango kartzelan euren amekin aurkitzen ziren haurrak eta "eremu familiarra galtzeko arrisku eremuan" zeuden umeak desagerrarazi zituzten. Desagerketa eta adopzio alegal hauek, gaur egun, oraindik, argitu gabe jarraitzen dute. Baltasar Garzón epaileak jasotako testigantzan irakur daitekeenez, ehun haur inguru desagerrarazi zituzten.

8. Espetxearen arkitektura

Lan honetan behin eta berriro aipatu da Saturrarango emakumezkoen Espetxe Nagusia eraikin eta pabiloi multzo batek osatu zuela. Eraikuntza haiek Saturrarango hondartzan bertan kokatzen ziren, Mijoa ibaiaren bi alboetara. Behin honaino iritsita, kartzelaren arkitekturari buruz jarduteko lehenik beratu nola egituratzen zen ezagutzea beharrezkoa da, ondoren, bertan modu sofielean islatu ziren asmoei buruz aritzeko.

8.1. Espetxe arkitekturaren helburuak

Michel Foucault pentsalari frantsesak espetxearen inguruan eginiko gogoeten arabera¹³, kartzelaren helburua gorputzaren ekintzak kontrolatu eta zuzentzea da. Sumisioa edo otzantasuna eta presoaren erabilpena bilatzen du presondegiak. Gorputza araudiaren menpe harrapatuta geratzen da espetxean, gogortasuna eta betebeharrak inposatzen dizkiolarik. Araudi bidez egoeraren kontrola lortu nahi da, eskala ezberdinetan, xehetasun txikienetik ekintza guztiak kontrolpean izateraino.

Otzantasuna eta erabileraren arteko erlazioari diziplina dei dakioke. Diziplina prozeduren adibideak komentuetan edota ejertzitoetan aurki daitezke, baita dominaziorako formula orokorrak ere. Espetxeko zaindariak mojak izanik, ez da harritzekoa komentuko diziplina Saturraranen eta gainontzeko emakumezkoen espetxeetan aplikatzea.

Espazioan norbanakoak banantzeko moduak diziplinan eragin zuzena du. Diziplinak ixtea eskatzen du batzuetan, *klausura*. Itxialdi zorrotzak ordena, segurtasuna, diziplina eta, era berean, kontrol modu bat ezartzeko aukera ematen du. Itxialdiaren jatorrian daude, hala nola, ikastetxeak, kuartelak eta garai bateko lantokiak. Horren isla Saturraranen ere ikus daiteke, presoak sakabanatzeko logika kontuan izanik: batetik, amak euren seme-alabekin, bestetik, adineko emakumeak eta gainerako emakumezko presoak beste alde batetik. Presondegi honek itxitura fisiko artifizialik, hesirik, izan ez zuen arren paisaiaren nolakotasunak eta eraikinen disposaketak nolabaiteko itxitura sortzen zuten.

Hurrengo orrialdeko argazkia eraikinek seminario erabilera zutenekoa da. Bertan ikus daitezkeen moduan mendi magalek eta eraikinen disposaketak nolabaiteko itxitura sortzen zuten; hesirik gabea, baina muga. Horrek presondegian giltzaperatuta zeuden emakumeen gaineko kontrola erraztea zekarren. Irudian, ezkeretik eskuinera, *Buena Vista* kuartela (altueran dagoena), Astigarraga ostatua (adineko emakumeak, amak eta euren seme-alabak egoten ziren 4. pabiloia eta jantokia izandakoak) eta *Gran Hotel Balneario* eraikinak (argazkiaren behealdekoa, hiru nabe zituena) ikus daitezke. Ongi behatuz gero, eraikin multzoak oin-plantan zuen triangelu irregular itxura antzeman daiteke: *Gran Hotel Balneario* eraikinaren disposaketak triangeluaren alde bat estutuko luke eta *Buena Vista* kuartela eta Astigarraga ostatua elkartuko lituzkeen lerroa ere estutzen joango litzateke. Honela, argazkiaren ezkerrean beste alde bat osatuz (hondartza) eta eskuinaldean, argazkian ikusten ez bada ere, erpina legoke: *Zaindetxe* eraikina, espetxeko sarrera eta zuzendariaren etxea zena.

¹³ FOUCAULT, Michel (1979): *Vigilar y Castigar. Nacimiento de la prisión*, Siglo XXI, Madril.



Sem.inario de Saturrarán (Guipúzcoa)

Campo de recreo

Manicel

Rta. n.º 142205

09. Irudia. Seminario garaiko eraikinen argazkia. Iturria: Juanjo Egaña

Eremuetan banantzeak norbanako bakoitzari bere lekua esleitzea eskatzen zuen, taldeak deskonposatzea. Ahal izanez gero, banandu daitezkeen adina elementu edo gorputzetan banantzea aholkatzen zuen Foucaultek. Honela, momentu oro bakoitzaren jokabidea behatu zitekeelako, menderatzeko eta erabiltzeko. Prozedura arkitektoniko-erlijioso zahar bat aurki daiteke honen jatorrian: komentuetako ziega. Diziplinen espazioaren atzean arima eta gorputzaren beharrezko bakardadea dagoela baieztatzen zuen pentsalariak. Espazioa banatu eta zorrotzasunez zatitzearen beharra sortzen da, leku zehatzak behatzeko, komunikazio edo harreman arriskutsuak hausteko eta espazio erabilgarri bat lortzeko.

Bestetik, egiten den horren gaineko kontrola dago, ekintzaren kontrola. Hala nola, erabilitako denbora, ezarritako erritmoa, betebeharrak zehatzak burutzerara derrigortzea edota ziklo-errepikapenak erregulatzea egongo liriateke. Aipatutako erregulartasun hori tailerren bidez eta ordutegi zorrotzaren laguntzaz inposatzen zuten Saturraranen.

Kartzela jendarte zibilizatuetoako zigor bilakatu zen. XIX. mende hasieratik espetxeak zigor izaera hartu du. Egungo zigor-eskalaren oinarria da eraikin hau eta bertan giltzaperatzea. Foucaultek onartu bezala, espetxearen eragozpenak jakinak ziren eta arriskutsua izateaz gain, alferrikakoa zela ere frogatu zen. Hala ere, ez da bere ordezkorik aurkitu.

Jendarte guztiarengan eragin bera duen zigor berdindua da askatasungabeziarena. Gainera, kuantifikatzeko aukera ematen du denbora aldagaiaren bidez eta delitu-irauen kuantifikazioak sortzen dira.



Zorra ordaintzearen espresioa oso entzuna bazen ere, ez dio aparatu honen xedeari erantzuten, izan ere, espetxearen helburua norbanakoak aldatzea da, zuzentzea, otzan bilakatzea. Victoria Kentek hori bilatu nahi zuen II. Errepublikako espetxe erreformarekin. Frankismo garaian, aldiz, atzerapausoak eman ziren arlo honetan. Espetxe politika mendekuan oinarritzen zen.

Isolamenduaren printzipioa zigortua kanpoko mundutik isolatzean datza, kanpoko mundu horrek hutsegite hori gauzatzera bultzatu duela ulertuta. Bestalde, pentsalari frantsesaren ustetan, zigortuen arteko konplizitatea ekiditea ere ahalbidetzen du isolamenduak. Zigorrak bakarkakoa eta bakartzailea izan behar zuela zioen Foucaultek. Bakartasuna birgaitzeko tresna positibo gisa ulertzen zuen, zigorraren autoerregulazioa eta eginikoaren inguruko hausnarketa bultzatzen zituelako. Horrez gain, zigortuen arteko konplizitatea arriskutsua izan zitekeela zioen Foucaultek.

Presoa begiradapean, kontrolpean, mantentzea beharrezkoa da Foucaulten ustez, baita horretarako beharrezko baliabideak jartzea ere. Behatzea, jakitea, segurtasuna, bakartzea, gardentasuna eta isolamendua burutzeko lekua pribilegiatua da kartzela. Hainbatetan, boterea kudeatzeko arkitektura gisa definitua izan da espetxea.

Puntu zentral baten inguruan egituratutako presondegiek begirada batekin uneoro presoak eta bertako langileak kontrolatzea ahalbidetzen zuten Foucaulten esanetan. Oin plantan zirkulu erdi, gurutze edota izar forma duten espetxeak kontrolatzeko errazagoak direla alegia. Sistemaren ardatza inspezio gela izango litzateke. Inspezio puntu zentralik gabe behaketa jarrai eta orokorra ezingo litzateke bermatu. Behaketa zenbat eta errazagoa eta zehatzagoa izan, orduan eta solidotasun gutxiago beharko litzateke eraikuntzan; solidotasuna ihesaldien edota atxilotuen arteko komunikazioaren aurkako elementu gisa ulertuta.

Ardatz ezberdinak gurutzatzen diren puntuak kontrola gauzatea errazten du. Horrela, bainuetxe izandako eraikineko ardatz nagusiak (banatzaileak) eta berau ebakitzen zuten hiru nabeetako (ezkerrekoa, erdikoa eta eskuinekoa) ardatzen arteko gurutzatze puntuetatik kontrola modu errazean gauzatu zitekeen *Gran Hotel Balneario* eraikinean. Gurutze puntu horiei gora eta behera aritzeko modu bakarra eskailerak zirela gehitu behar zaie, elementu horrek ere kontrola errazten baitzekarren. Finean, zaintzaren ekonomia.

8.2. Propaganda frankista

Saturrarango hondartzan zegoen espetxea propaganda frankistarako oso erabilia izan zen, ereduzko presondegitzat zuen frankismoak. *Redención* izeneko astekarian, kartzeletan irakurtzea baimenduta zegoen aldizkari bakarrean, askotan aipatua izan zen. Guztira, 46 aldiz. Bertan ohikoak ziren Saturrarango sistemaren goraiipamen eta laudorioak. 1939ko maiatzaren 25eko *Redención* aldizkariak, esaterako, honela zioen:

Haran txiki bat, eguzkia eta argi gardena; inolako itxiturarik gabe, luzatutako triangelu irregular formakoa, bere oinarria hondartzak eta harkaitzezko badiak osatzen duten bitartean erpina haranerako eta, era berean, espetxerako sarrera da (...). Begiratu nahi den lekura begiratuta ere, naturak ezarritako gatz onenen emaitza aurkituko da. Eraikuntzak itsasoko kresalera bideratutako ur gozoa daraman errekatxoaren alde batera eta bestera norantza ezberdinetan

daude. Modako hondartza, ikastetxe, gorrotoa eta gerrak babestu zituen ejertzito gorriaren kuartel nagusi izan zen. Goizetako alaitasun, gaur egun gaztetasuna eta poza, lehengo modako hondartza dakar gogora eta espetxearen garraztasuna ezabatzen du.

Aztergai dugun kartzelako instalakuntzen eta mojen lanari buruzko hitz politak aipaturiko astekariko 46 zenbakitan agertu ziren, 1939ko apirilaren batetik 1944ra bitartean. Askotariko berriek zuten lekua bertan eta hainbat informazio baieztatzeko iturri gisa balio izan du, esaterako, 1939ko apirilaren 1eko *Redención* aldizkarian 14 jaiotza aipatzen zituen, 1938ko apirilaren 6tik 1939ko urtarrilaren 21era bitarte. Bataioak ere aipatzen ziren zenbaki berean edota solfeo eta pianoko klaseak hasi zirela. Gerora, erregeak pasa izana, zuzendari aldaketak, preso berrien etorrerak, kapilau aldaketa, zinearen inaugurazioa eta aske geratu ziren emakumeek ere izan zuten beren lekutxoak presoek presoentzat idazten zuten aldizkari hartan.

Berri ezberdin haien artean Espetxe Nagusi tituluak eta bular-emaileen departamentu moldaketan azpian zentroari halako legalitatea emateko nahi edo asmoa ezkututzen zen. Gainera, jarraitzeko moduko eredu bat zirudien ondorengo testu zatian irakur daitekeen moduan.

Azkenik, Saturrarango Espetxe Nagusia gobernatzen duten mojen lana, guztiz ereduzkoa, aipatuko dugu, ereduzko presondetia, bertako Ama Nagusia Espetxe Dominarako proposatua izan da. Tailerrak martxan dauden kartzela da, baratza jorratzen da, baita baserria ere eta ama bular-emaileentzat eta umeentzat departamentu berezi bat dago. Aurreko testigantzetatik ondorioztatu daitekeen moduan, mojak Emakumezkoen Espetxeaz arduratzen dira, gainera sukalde, erietxe, ekonomato eta beste hainbat zerbitzuez gain, gizonezkoenak (zerbitzuak) ere badituzte, barne antolaketa guztia, diziplinaren mantenua espetxeratuen artean, irakaskuntza klaseak eta tailerren zuzendaritza ere ahalbidetzen dira.

Azpiemarratzekoa da 1939ko apirilaren 15eko astekaritan Francori bidalitako telegrama agertzen zela. Bertan 1.454 presoak, 72 amek, 75 umek eta 108 zainzailek Franco bere garaipenagatik zoriondu zuten.

8.3. Espetxearen egituraketa

Saturrarango kartzela inprobisatua zen, ez zen kartzela izateko sortua izan. Hala ere, urte luzez izan zen espainiar estatuan emakume errepublikar eta disidenteak giltzapetzeko gune nagusia. Esparru honek bere baitan zituen eraikinak nola egokitu ziren erabilera honetara aztertuko da atal honetan.

Espetxeratutako emakumeak euren ezaugarrien arabera sakabanatzen zituzten eraikin ezberdinetan. Amak euren seme-alabekin batera zeuden, adinez helduenak ziren emakumeak besteengandik bananduta aurkitzen ziren, beste eraikuntza bati erietxe erabilera eman zitzaion eta bertan gaixoak zeuden; gainerako presoak beste instalakuntzetan banatuta zeuden. Zainzaileak eta mojak ere esparru hartan zeuden.



Gunea hainbat pabiloitan bananduta zegoen eta presoek debekatuta zuten batetik bestera igarotzea. Horrek eraikin ezberdinen arteko komunikazioa eta, horrenbestez, kartzelaratutakoen arteko harremana zailtzen zuen, kasu askotan eragozteraino.

8.3.1. Gunearen deskribapena


Jakina da Saturrarango espetxea osatzen zuten eraikin multzoak bilakaera bitxia izan zuela, labur-labur errepikatuz, luxuzko hotel-bainuetxe eta ostatu izaera izan zuten eraikin haiek; ikastetxe eta tropen kuartel izatera ere moldatu zirela esan beharra dago. Gerora, ordea, espetxe nortasuna bereganatu zuten haran hartako eraikin eta pabiloiek. Hona hemen espetxea osatu zuten eraikinen argazki bat.



10. Irudia. Saturrarango espetxea osatu zuten eraikinak I. Iturria: Arantza Ugarte Lopetegui

Deskribapen labur bat egite aldera, aurreko edo beheko irudian ikusten den moduan, gunea bi zatitan banantzen zuen Mijoa ibaiak eta espetxea osatzen zuten eraikinak errekaaren bi alboetan zeuden. Ibaiaran ezker aldean, hau da, mendebaldean, *Gran Hotel Balneario* (gerora, *Nuestra Señora de las Mercedes* deituko zitzaiona) izandakoa, kapera txiki bat eta *Villa Capricho* eraikinak zeuden. Beste aldean, berriz, ekialdean (beheko irudiko eskuinaldean), gainerako eraikinak kokatzen ziren: *Buena Vista* izenekoa mendixkaren magalean, beste eraikinak baino gorago, *Astigarraga* ostatua, ermita, frontoia, *Barrenengoa* zena eta baita *Zaindetxe* edo *Casa Palomar* zeritzona ere.

Azpiko irudia ondorengo paragrafoetan datorren deskribapenaren laguntzaile izan daiteke, bertan argi ikusten baita espetxea osatu zuten eraikinak non kokatzen ziren eta zer izen zuten.



11. Irudia. Saturrarango espetxea osatu zuten eraikinak izenekin. Iturria: Arantza Ugarte Lopetegui

Gran Hotel Balneario eraikina

Gran Hotel Balneario (edo Fonda Maritima Balnearia, gerora Nuestra Señora de las Mercedes izendatuko zutena) hotel-bainuetxea izandakoa eraikin multzoko handiena zen. Mutrikuko Jabegoaren erregistroan aurkitu dira eraikin honen planoak eta gainontzekoekin alderatuta definiziorik zehatzena eraikin honek duena da. Hurrengo orrialdeetako planoetan ikus daitezkeen moduan, behe solairua, lehen solairua edo solairu nagusia, bigarren solairua eta hirugarrena zituen luxuzko bainuetxe izandako hark. Guztira, orube plantan 1.063 m² zituen.

Jarraian eraikin honek zuen banaketa, solairuz solairu, azalduko da Mutrikuko Jabego Erregistroan zeuden planoekin lagunduta.

Hotel gisa funtzionatzen zueneko banaketa deskribatze aldera, esan, beheko solairuan errekreorako, billarrean aritzeko, irakurketa eta kaferako gelak, bi jantoki, sukalde eta sukalongo bana, hiru jaki-gordailu, bi leku komun, kapera, kotxe-tokia edo garajea eta banatzailea zituela.


Behe eta lehen solairuan itsasoko bainu bero eta dutxek hartzen zuten lekua, iturri, mahai eta gainerako osagarriekin.




12. Irudia. Behe solairuko oin-planoa. Iturria: Mutrikuko Jabego Erregistroa




Lehen solairuan, solairu nagusian, 31 logela, bi leku komun eta banatzailea aurkitzen ziren, planoko legendan jartzen duen moduan, hiru pabiloitan banatuta: ezkerrekoan, erdikoan eta eskuinekoan hain zuzen ere.



Bigarren solairuan lehen solairuan zeuden adina logela aurkitzen ziren, osotara 31, ezkerreko (C), erdiko (B) eta eskuineko (A) pabiloitan banatzen ziren hauek eta banatzaile bidez hel zitekeen hauetara.



Azkeneko solairuan, hau da, hirugarrenean, berriz, 22 logela, plantxatzeko gela, bi leku komun eta banatzailea zituen Gran Hotel Baleario zeritzon eraikinak. Ondorengo orrialdeko irudian ikus daiteke azken solairu honen banaketa.




Planoak lortu diren erregistro horretan bertan, Gotzaindegia jabetza zela adierazten da. Ez eraikin hau soilik (Gran Hotel Baleario edo Fonda Marítima Balearia izenez ere ezaguna), baita espetxe erabilera emandako beste bi ostatu edota fonda ere: San Pelaio ostatua eta Barrenengoa ostatua.



San Pelaio ostatua (Fonda San Pelayo edo Fonda Astigarraga)

San Pelaio ostatua Astigarraga izenez ere ezaguna zen, baita *Fonda de la viuda de Astigarraga* izenez ere, beheko argazkiko kartelean irakur daitekeen moduan. Eraikin honen planorik ez da aurkitu Mutrikuko Jabego Erregistroan, baina erregistroko testu batek honela dio:

San Pelaio ostatua izeneko eraikina, bere Ermitarekin (...). Eraikin honen behe solairuari errota erabilera ematen zaio eta egongela eta bulegoa ere baditu, solairu nagusian sukaldea, jantokia eta logelak ditu. Beste bi solairutan logelak daude eta azken solairuan, ganbaran, zerbitzarientzako gelak daude. Bere orubeak 487 m² ditu, bere atari-aurreak, pasealekuak eta alboko parrak 1125 m² dauzka, ostatu berari dagozkionak eta ermitaren orubeak hartzen dituenak (186 m²).



16. Irudia. Fonda de la Viuda de Astigarraga ostatua. Iturria: Arantza Ugarte Lopetegi

Barrenengoa ostatua (Fonda)

Eraikin hau ere, Mutrikuko Jabego Erregistroaren arabera, Gotzaindegiarena zen. Berau definitzen duen planorik ez da aurkitu, baina testuan horrela deskribatzen da:

Ostatu gisa erabilitako eraikinak (...) beheko solairuan sukaldea, jantokia eta sotoa, logeletan banatutako solairu bat eta ganbara ditu. Ekialdean duen 'Casita palomar'ek (Zaindetxek) duen azalerarekin 208 m² orubea hartzen du, esku pilotak (frontoiak alegia) 272 m² eta bere atari-aurreak 144 m², hau da, guztira 724 m².

Presondegia erabilera eman zitzaion urteetan zehar Barrenengoa eraikina *Celular* pabiloi bihurtu zen.

Espetxeko sarreratik gertu zegoen *Barrenengoa* eraikina edota *Celular* pabiloia. Mijoa ibaiaren ekialdean zegoen, errekatik oso hurbil. Pabiloi honetan kartzelara zekartzaten emakumeak sartzen zituzten. Bertan araututako denbora igarotzen zuten, gero beste



pabiloi batzuetara bideratuak izango zirelarik. Pabiloi honetan diziplina zorrotzpean giltzaperatzen zituzten eta denbora horretan zehar eginiko hutsegiterik ziztrinena bera ere ankerkeriaz zigortua izaten zen, sotoan, elikagai bakar gisa ura eta ogia emanaz. Eraikin honen sotoan zeuden Saturrarango espetxea tristeki ezagun bihurtu zuten zigor ziegak.

Villa Capricho eraikina

Mijoa ibaiaren mendebaldean (ezkerraldean) zegoen. *Gran Hotel Balnearioren* iparraldean, itsasorantz, kokatzen zen. *Villa Capricho* eraikina erietxe modura erabili zuten. Han preso gaixoak egoten ziren.

Zaindetxe eraikina (Casa Palomar)


Espetxeko sarreran zegoen eraikina zen Zaindetxe. Gune osoko eraikuntzen artean hegoaldean zegoena zen, Mijoa ibaiaren ekialdean. Espetxe esparruaren oin plantak triangelu irregular baten forma zuen, oinarria hondartzak osatzen zuen eta hau kontrako erpinean kokatzen zen, beste bi alboak harana inguratzen zuten mendixkak zirelarik. Espetxeko sarrera zen.

Buena Vista eraikina

Haranaren ekialdeko mendi magalean zegoen *Buena Vista*, altueran. Beraz, Mijoa ibaiaren ekialdean. Beste eraikinen altuera mailarekin alderatuta, gorago kokatua zegoen eta altuera horrek, bertatik espetxeko esparru osoa ikusi eta kontrolatzeko ahalmena eskaintzen zion.

8.3.2. Presoen banaketa eta eraikinen erabilerak

Informazio hau lortu ahal izateko ezinbestekoak izan dira bertan bizi izan ziren emakumeen ahozko testigantzak zein bestelakoak. Hala nola, Milagros Gafo preso ohi asturiarrak eginiko beheko krokisa.



17. Irudia. Milagros Gafo preso ohiak eginiko plano-krokisa. Iturria: Arantza Ugarte Lopetegui

Espetxeak hainbat eraikin ezberdin izateari probetxua atera zioten berau kudeatzen zutenek, giltzapean zeuden emakumeak euren ezaugarrien arabera banandu eta preso-taldeen arteko harremana eragotziz.

Gran Hotel Balneario eraikinari denborarekin *Nuestra Señora de las Mercedes* deituko zioten, esparruko eraikinik ederrena zen eta bertan mojak zeuden. Erietxe moduan bere iparraldean, itsasorantz, kokatutako *Villa Capricho* zerabilten, han preso gaixoak egoten ziren. Bi eraikuntza hauek eta hauen artean zegoen Kapera Mijoa ibaiaren mendebaldean (ezkerraldean) zeuden. Eraikin hauek 8. pabiloi bihurtu ziren kartzela erabilera eman zitzaionean, bertan tailerrak, kapera eta erietxea zeudelarik. Espetxeiko gainontzeko eraikinekin zuten lotura bakarra erreka gurutzatzeko zegoen zubixka bat zen.

Mijoa ibaiaren ekialdean, itsasorantz begira jarriz gero eskuinean, kokatutako eraikinen artean bazegoen bat mendixkaren magalean zegoena, besteak baino altuago, *Buena Vista* zeritzon eraikina. Altuera hark bertatik esparruko beste eraikinak ikustea eta kontrolatzea ahalbidetzen zuen. Eraikuntza hura espetxeiko zaintzaile lanetan zebiltzan soldaduen kuartela zen. Eraikin honen alboan giltzaperatutako emakumeak lantzen zituzten soroak zeuden.

Amak euren seme-alabekin batera giltzaperatuta zituzten lehengo Astigarraga ostatu zenean. Etxe hau ere errekaaren ekialdean kokatzen zen, *Buena Vista* tik hegoalderantz jarraituta, espetxearen sarrera alderantz. Ama eta umeez gain, adineko emakumeak ere eraikin berean zeuden, nahiz eta ez ziren haur eta amen gela berean aurkitzen. Emakume adinduen zifra altua zen Saturrarango kartzelan, 60 eta 80 urte bitartean zituzten adineko emakume asko zegoen. Horiek 30 urteko kondenak eta biziarteko zigorrak zituzten.

Gerora, San Pelaio izenez ere ezaguna izango zen eraikuntza Astigarraga ostatua. Ostatu hau 4. pabiloi bihurtu zuten. *Las Columnas* eraikina, aldiz, 6. pabiloia zen eta bi pabiloi hauen artean, 4. eta 6. pabiloien artean, espetxeko sukaldea zegoen.

Barrenengoa eraikina ibaiaren ertzean kokatzen zen, *Fonda Astigarragatik* hegoalderantz joanda. Etxe hau *Celular* pabiloi bihurtu zuten. Mijoa ibaitik oso gertu zegoen, honen emariak eta marea igoerek bertako sotoan zeuden zigor ziegak urez betetzen zituzten bertan giltzaperatuak baldintza gogorretan egotera behartuz. Saturrarango kartzela famatu egin zuten zorigaiztoko koarentenako edo zigor ziegez gain, bisitak egiten ziren mintzalekuak ere eraikin honetan zeuden.

Espetxeko zuzendariaren etxea zen *Zaindetxe* eraikina; hau *Barrenengoa* eraikinaren hegoaldean aurkitzen zen. *Casa Palomar* ere deitzen zitzaion eraikuntza honi, eraikin honek zabalera luzea zuen eta triangelu formadun haranaren erpinean kokatzen zen presondegiairen sarrera izanik.

Adindun emakumeak, amak eta haurrak ez ziren gainerako presoak *Gran Hotel Balneario* eta beste instalakuntzetan sakabanatuta zeuden.

Aurrez esan bezala, eremua hainbat pabiloitan bananduta egoteak eta presoek batetik bestera igarotzeko zuten debekuak, eraikin ezberdinen arteko komunikazioa eta, ondorioz, kartzelaratutako talde ezberdinena zailtzen zuen, kasu askotan ezinezko egiteraino. Horrek errebolta arriskua txikitzen zuen, izan ere, preso guztiak antolatzeko eta ados jartzeko komunikazioa ezinbesteko tresna zen. Komunikazioa eragotzita matxinada posibleak ekidin zituzten. Giltzaperatutako emakumeek espetxeko zaindarien festa egunetan soilik zuten pabiloi batetik bestera igarotzeko baimena, hau da, zehazki, *Corpus* eta *Mesede (Merced)* egunetan.

8.4. Espetxe-arkitekturaren asmoak

Aipatutako eraikuntza ezberdinen artean *Gran Hotel Balneario* hotel-bainuetxea gailentzen zen. Bere aldamenean zeuden eraikuntzak XIX. mendean altxatutako ostatuak ziren. *Gran Hotel Balneario* eraiki zenean turista dirudunei zuzenduriko luxuzko bainuetxea bazen ere, esan beharra dago gainontzeko eraikinekin batera, "Gerra Zibila" iritsi zenean eta kartzela modura erabiltzen hasi zirenean, ez zeudela batere egoera onean, ez *Gran Hotel Balneario* eraikina ezta bere albokoak ere.

Saturrarango eraikinak eta bertako elementu arkitektonikoak espetxe izaerara behar bezala egokitu ziren edo egokiarazi zituzten. Espetxea gobernatzen eta antolatzen zutenek erabilera berriak, inprobisatuak, eman zizkieten jadanik bertan zeuden arkitekturei, beti ere, iparrorratza galdu gabe: zigorra(k) ahalik eta zorrotz eta pisutsuena izatea bertan giltzaperatutakoentzat. Beste modu batera esanda, eraikuntzei esleitutako funtzio berriek agerian uzten zuten ezkutatu nahi zena: arkitekturei emandako erabilera ankerra eta horren atzean zeuden asmoak.

Mutrikuko hondartzan kokaturiko ostatu eta hotel izandako eraikin haietako espazioak eta guneak banatu eta antolatu ziren moduak frankisten giltzaperatze helburuak behar bezala betetzeko aukera eman zuen.




Lekuaren nolakotasunak, naturaz inguratuta egoteak eta gunea eraikin ezberdinetan banatuta egoteak presoek gainera kontrola eta giltzaperatuak euren artean ez-erik, inguruko herritarrengandik ere isolatzea ahalbidetu zuten. Espazioa azalera handitan antolatzeak garrantzi berezia zuen, izan ere, zenbaketak errazten zituen. Arkitekturei buruz ostatu izateko pentsatuak izan zirela esan behar da, horrek gela presentzia justifikatzen zuen. Irudi grafikoak begiratuta estalkiak teilaz osatuta zeudela ikus daiteke, bi edo lau isurialdetako teilatuak osatuz, eremu heze eta euritsu batean aurkitzen zirelako.

Eremua nabe laukizuzenetan banantzeak zaintza-endarren ekonomian eragin zuzena ekar zezakeen, laukizuzenak bisualki bi puntuetatik kontrolagarriak direlako. Ikergai dugun espetxean, aldiz, nabeek forma irregularrak zituzten, ez ziren espetxe izateko eraikiak izan. Horretara egokitu ziren. Hala ere, espetxea nabe ezberdinetan banantzean eta kuartel militarari esleitutako puntu estrategikoak bat datozen kontrolaren ideia horrekin, zaintza-lanak erraztearekin.

Eraikinei eman zitzaizkien erabilerek eta erabilera haien atzean ezkutatu nahi izan zituzten asmoak argitara eramango dira atal honetan. Horrez gain, espetxe kudeaketa makurraren ondorioz presoek egoera emozionalean eragin zuzena izan zuten hainbat elementu ere aipatuko dira, besteak beste, masifikazioa, higiena eta elikadura.

Hurrengo orrialdeko irudiko oin plantan adierazi dira pabiloien zenbakiak eta eraikuntzen izenak edo hauei emaniko erabilerak.



18. Irudia. Oin planta izendatua. Iturria: *Prohibido Recordar* dokumentala

8.4.1. Eraikinen egoera

Lehen emakume presoak iritsi eta topo egin zuten egoera tamalgarri hura deskribatze aldera, esan, eraikuntzetako sabaia hondoratuta zeudela, hormak zikinak eta pitzadurekin zeuden, beirak, berriz, hautsita, hoditeriak buxatuta edota oztopatuta zeuden eta gainera, ez zegoen inolako altzaririk.

8.4.2. Masifikazioa eta higieua

Horrek guztiak zerikusi zuzena zuen bertan giltzaperatutako emakumeen egoera animiko eta emozionalean. Ahozko testigantzetara joz gero, Carmen Riera preso ohi katalandarraren esanetan "(...) Saturraranera iritsi ginenean gela batean sartu gintuzten eta han komunik ez zegoenez, zink-ezko bost edo sei kubo jarri zizkiguten (...) gure beharrak egiteko, horrela gela hartan ez zegoen ez gortinarik ez hormarik, ez ezer, guztiok gure beharrak egin behar izan genituen eta gau guztian egon ziren kubo haiek, zikinkeria/kaka deitzen zaionaz beteta, ume guztiak han zeudela". Norberak bere beharrak besteen aurrean publikoki eginarazteak, intimitaterik ezak, sortzen zuen umiliazioa ere aipatzekoa da. Kasu zehatz honetan, argi ikus daiteke arkitekturari eman zaion erabilera makurra: gortina edo horma bidez, materialki, existitzen zen eremu itxi bati komun erabilera eman ordez, gune intimo bat sortzeko intentziorik eza. Emakume presoan egoera emozionalean eragin zuzena izan zuen, modu horretara, behar fisiologikoak zigor bihurtu baitzituzten.

Preso berrien etorrerarekin batera espazio berriak gaitu baziren ere, berehala jasangaitza izango zen masifikazioa. Presoak gelatan biltzen zituzten. Lurrean egiten zuten lo, militarrenak izandako lastozko koltxoi-zaku zikin batzuen gainean. 700 presoentzako tokia zuela kalkulatu¹⁴ arren, bertako populazioa beti izan zen 1.500 giltzapetu baino gehiagokoa. Kartzela hartatik, 16 eta 80 urte arteko 4.000 emakume baino gehiago igaro ziren. Guztira, 172 lagun hil ziren han: 116 emakumezko eta 56 haur.

Balbina Lasheras Amezagaren arabera, "ehunda hirurogeik egiten genuen lo, bi komun bakarrik genituen eta joan ginenean konketarik ere ez geneukan. Bigarrenengo solairuan ezkerrean egon nintzen, bi harraska moduko zeuden (...) ikasleei bainatzeko edo balioko zien, ez dut ulertzen, han komun bat zegoen eta kanpoko aldean beste bat. Bi komun ehun eta hirurogei pertsonentzako, besterik ez, nahikoa da eh... Eta beste aldean ere, eskuinean, ehun eta hirurogei. Bi pabiloiak berdinak ziren".

Higieua bera ere ukatua zuten Saturrarango presoek. Carmen Rieraren hitzen arabera, ez zuten ur berorik ezagutu, pabiloi bakar batean ere ez zegoen dutxarik, konketa eta iturrietan garbitzen ziren ahal zuten moduan. Higieua ukatzeak norberarekiko nazka edo higuina sentitzea ekar dezake, hau da, nor bere buruarekin gustura ez sentitzea. Horrek emakumeen alderdi animikoan eragin zezakeen.

8.4.3. Jantokia

Lo egiten zuten gela eta bainugelez gain, **jantoki** erabilera ematen zioten nabe antzeko bat zegoen, testigantzen arabera, Saturraranen zegoen nabe handienetakoa. Balbina Lasherasen hitzetan, "jantokia, gela bat, nabe bat. Goran hirurehun bat pertsona. Saturrarango zaharrenak ziren eta azpia jantokia zen. Joan ginen lehen aldian ez zegoen ezer eta zoruan bertan jaten genuen. Ilaran zaku batzuk jarri zituzten albo batetik bestera, eta gu han eserita indioen antzera hankak gurutzatuta...". Anita Moralesek jantokia deskribatzerako orduan, bi txandatan joan behar izaten zutela zioen, bere hitzetan, batean kabitzen ez zirelako 2.200 inguru baitziren. Umeei lehenago

¹⁴ Bakeola. *EMAKUMEEN OROIMENEAN Euskal emakumeen guda zibil eta diktaduraren biktimak*. Edetaldeia – Bizikidetza, Gatazka eta Giza Eskubideak

ematen zien jaten eta ama bat geratzen zen umeak zaintzen gero. Nieves Torres preso ohiaren testigantzak aurrekoei otorduetan elkarren artean ezin zutela hitz egin gaineratzen zien, "arriskutsua" zela.

8.4.4. Elikadura

Jantokiaren egoera tamalgarriari elikadura eskasia eta haren kalitate eskasa gehitu behar zitzaizkion. Lekuko guztiek gogoratzen zuten janari ustelak eta garbitu gabeak jan behar izana. Gainera, mojek janariaren erdia untxi eta zerriak elikatzeko erabiltzen zuten, soberan geratzen zena presoan artean banatuz.

Laguntzen zieten familien paketeetatik zetorrenari esker biziraun zutela zioten preso ohiak. Carmen Rierak ongi baino hobeto gogoratzen zuen: "Behin hamabost egun egon ginen, kafe burruntzali bat goizean gosaltzeko, kafea bazkaltzeko eta kafe burruntzalia afaltzeko". Rierak garai batean haragi asko jan zutela zioen, bere hitzetan, dilistak eman zizkietenean, dilista bakoitzeko hiru zizare baitzeuden plateran. Berak esandakoari jarraiki ahozko lekukotza ematean, 66 kg pisatzen zituen eta Saturrarandik ateratzean Jose Maria Jaunak pisatu zuenean 44 kg pisatzen zituen. Ez zen bakarra izan, Nieves Torresek ere ederki gogoratzen du: "Jateko, leku guztietan bezala, oso gaizki, lau patata, barazki pixka bat, gaizki, ez bazenuen, ezer ez, fideo bat egina, nazkaz hil ala gaixotu. Oso gaizki". Berak 35 kg pisatzen zituen espetxealdiaren ondoren.

8.4.5. Erietxea. Gaixotasunak eta heriotzak.

Presoen osasuna kaskarra zen eta espetxeak erietxe txiki bat zuen. Gaixo larriak probintziako ospitalera lekualdatu behar izatea maiz gertatzen zen zerbait zen. Han baldintza onargariagoak zituzten. Mutrikuko Erregistro Zibilean 116 emakumeen eta 56 umeen heriotzak dokumentatu ziren, kartzela martxan egon zen urteetan. Guztira 172. Hildako beste emakume batzuen berri ere bada beste iturri batzuetatik, eraman zituzten ospitaleetan edota beraien etxeetan askatasuna berreskuratu eta gutxira hildakoak; horiek ordea ez ziren agertzen zerrenda hartan. Beste iturri batzuen arabera, hildako pertsonen zifra 177koa litzateke. Euskal Memoria Fundazioak publiko eginiko hildako presoan zerrenda¹⁵ testigantzetan jasotako inpresioarekin bat dator, hau da, dokumentuetan agertzen zena baino hildakoen zifra altuagoa zela. Zerrenda horretan 177 izen ageri dira. Kausa ezberdinengatik hil ziren preso asko; nagusienak tuberkulosia, minbizia, pulmonia sarna eta tifusa ziren.

Carmen Riera preso ohi katalandarraren hitzetan, tuberkulosia zuten asko zeunden. Bera zegoen gela lauogeita hamabostentzat kontuan hartua bazen, ehun eta hamar izatera iristen ziren. "Gauean gaixo jartzen zen norbait, han zegoen odola botatzen bat, ondokoak garbiontzia eusten zion eta zuelako ateratzen zuen odola. Pabiloi hartan preso egon ginenon artetik oso gutxik ez genuen odola botatzen, eskuko behatzekin konta daitezke".

Presoen heriotzaren harira, gorpuak bildu eta Mutrikutik etortzen zen asto zuri batean eramaten zituztela kontatzen zuten preso ohiak. Umeen kasuan gogorragoa izaten zen

¹⁵ http://www.euskalmemoria.eus/eu/db/hildakoak_saturraran [Azken kontsulta 2016-04-04]

euren amek bizi behar izaten zuten sufrimendua zela tarteko. Carmen Rierak bere alabaren heriotza bizi behar izan zuen Saturraranen, honela deskribatzen zuen:

Ziega batera eraman ninduten, gela batera, umea ekarri zidaten, kajatxo bat, nire alaba han jarri zuten, mojak etorri ziren (...). Bi moja etorri ziren, eta han umea ikusi eta loreak jarrita, hasi ziren: "A zer nolako ilusioa, a zer aingerutxoa, Jauna gurtzera doana (...)". Gehiago ezin nuenez, handik bidali nituen. Hurrengo egunean lurperatu zuten, ni hiletaren atzetik nindoan, ez dakit zenbat moja etorri ziren, ez naiz gogoratzen, eta iritsi ginenean bulegotik gertu, zu ez zatoz, eta nire alaba eraman zuten, han eserita geratu nintzen.

8.4.6. Kapera

Kartzelan ia erietxerik egon ez arren, espetxea martxan jarri zen lehen egunetik moldatutako eraikin guztiek zuten kapera bana eta presoek mezetara joatea behartzen zieten. Giltzaperatutako emakumeek presio handia egiten zitzaienten errezatu, mezetara joan eta ospakizun erlijioso eta politikoetan parte har zezaten. Euren seme-alaben bataioa prentsan berri sozial gisa publikatzen zen horrek, kasu batzuetan, zekarren auto-zigorrarekin. Bikotekide edo bidelagunarekin komunikatzeko ezinbestekoa zen elizaz ezkondu egotea. Espetxearen helburua presoek moral hondatua zuzentzea eta "berriro hezi" ahal izatea zen.

Puntu honetan azpimarratzekoa da emakumezkoen kasuan moralitasunak zuen garrantzia. Emakumezkoen estatus soziala eta morala adingabeenarekin aldera zitekeen, tutela beharra zutela irizten zioten. Horrela, espetxeek emakumezkoek aurrez (rol bidez) esleituriko bidetik desbideratuz gero, euren morala erreformatzea eta zuzentzea bilatzen zuten. Okertutako morala zuzentzea eta garaiko balore zehatzek, moral kristauak, arautzen zuten emakume on bihurtzea zuten helburu. Ordu luzeetako sermoi kristauak entzutera, errezatzera eta euren egotzitako betebeharrekin bat zetozen tailerrak gauzatzera bideratzen zituzten.

8.4.7. Buena Vista

Espetxe arkitekturaren helburuetako bat zaintzaren ekonomia burutzea da, hau da, ahalik eta esfortzu gutxienarekin eremu zabalena eta preso kopuru altuena kontrolatzea. Ez da kasualitatea haranaren ekialdeko mendi magalean zegoen militarren eraikina, *Buena Vista*, altueran egotea. Altuera estrategikoa izan ohi da militarri, puntu altuago batetik behetako kontrolatu, eta, behatzeaz gain, erasotzeko errazagoa delako. Beste eraikinen altuera mailarekin alderatuta, gorago kokatua zegoen *Buena Vista* eta altuera horrek, bertatik espetxeko esparru osoa ikusi eta kontrolatzeko ahalmena eskaintzen zion.


8.4.8. Gran Hotel Balneario

Kontrola modu dinamiko batean gauzatzeko presondegien egituraketan arreta jarri beharra dago. Foucaltan esanetan, begirada soil batekin bertako langileek presoak kontrolatzea erraztu beharra zegoen. Oin plantan zirkulu erdi, gurutze edota izar formako espetxeak kontrola errazten zuten. Eraikin hauek espetxe izateko diseinatuak izan ez zirenez, ez zuten sistemaren ardatza izango litzatekeen inspektzio gelarik.



Bitxia da hotel-bainuetxe batek kartzela bilakatzeko duen potentzialitatea eta Saturraranen horri atera zitzaien probetxua. Focaultek espetxea erabateko kontrolarekin lotzen zuen. Bere ustetan behatzeak ez zuen esfortzu bat suposatu behar. Honela, *Gran Hotel Balneario* eraikineko kontrol puntuak ardatz ezberdinak gurutzatzen ziren puntuak lirateke, hau da, ardatz nagusiak (banatzaileak) eta berau ebakitzen zuten hiru nabeetako (ezkerrekoa, erdiko eta eskubiko) ardatzen arteko gurutzatze puntuetatik kontrola modu errazean gauzatu zitekeen.

*Gran Hotel Balneario*ko lehen solairuko beheko planoari esker errazago uler daiteke goiko paragrafoan azalduerikoa.



19. Irudia. Lehen solairuko oin-planoa. Iturria: Mutrikuko Jabego Erregistroa

Gurutze puntu horiei, behe planta eta beste hiru solairuetan gora eta behera aritzeko modu bakarra eskailerak zirela gehitu behar zaie, elementu horrek ere kontrola erraztea zekarren. Finean, zaintzaren ekonomia.

Ostatuen beste berezitasun bat logela kopurua litzateke. Espetxe bilakatzean logelek ziega funtzioa hartuko lukete, garaiko preso-kopuru altua zela-eta, gela bakoitzean hainbat emakume pilotzen zituzten.

8.4.9. Frontoia

Frontoia ere bazuen Saturrarango espetxeak. Elementu honek eremu zabal eta irekia eskaintzen zion garaiko kartzelari. Mojek probetxua atera zioten, izan ere, goizero zenbaketa gauzatzeko erabiltzen zuten, presoak ilaran jarri, zenbatu eta *Cara al Sol* abestia kantarazten zieten bertan. Beheko frontoiko irudia ez da kartzela erabilera izan zueneko.



20. Irudia. Frontoia. Iturria: Arantza Ugarte Lopetegi

8.4.10 Zigor ziegak

Dudarik gabe, Saturrarango kartzelako lekurik famatuena zigor ziegak izan ziren euren baldintza negargarri eta iraingarriak zirela-eta. Leku hezeak ziren, horrek muturreko hotz eta bero sentazioak sentitzea zekartzan.

Ziega hauek errekararen altueran zeuden; *Barrenengoa* eraikinaren atzean aurkitzen ziren. Hori zela-eta altuera jakin batera arte beti zegoen ura zoruan eta marea igotzen zenean, ia metro bateko altuera hartzen zuen ziega barneko ur hark¹⁶. Bertan hainbat egunez zigortutako presoek emandako elikagai bakarrak ura eta ogia izaten ziren.

8.4.11. Hilerria

1941eko martxoaren 8an Mutrikuko udaletxean eginiko bilkuran Saturrarango espetxean hildako presoek kopuru altua zela-eta hilerria handitzea adostu zen. 1939. urtean Mutrikuko hilerrian 57 pertsona lurperatu ziren, horietatik 17 Saturrarango espetxetik zetozen. 1940. urtean, berriz, kopurua bikoiztu zen: 104 pertsona izan ziren lurperatuak, horietatik 53 Saturrarango espetxean hildakoak ziren.

Bilkura hartako aktaren arabera tekniko bat kontratatzea proposatu zen, honek hilerria handitzeko proposamena egin zezan. Ondoren, legeak eskatzen zituen gainontzeko pausuak emango zirela jasotzen zuen aktak. Proiektu hau ez zen aurrera eraman.

Azpimarratzekoa da, lekukoaren arabera, Saturraranen hiltzen ziren presoek gorpuak bildu eta Mutrikutik etortzen zen asto zuri batean eramaten zituztela. Batzuetan, asto zuriaren maiztasunak eta kaxa-kopuruak Mutrikun sortzen zuen kezka zela-eta, kaxa berean gorpuak binaka sartzen zituztela ere kontatu zuten preso-ohiek. Ekintza hori bera ere errealitatea ezkutatzeko asmoarekin gauzatzen zen.

¹⁶ BARINAGA EREZUMA/GONZALEZ GOROSARRI, *No lloréis lo que tenéis que hacer es no olvidarnos*, p. 67.

9. Ondorioak

Gipuzkoa eta Bizkaia probintzien artean, mugan, Mutriku (Gipuzkoa) herria aurkitzen da. Bertako auzo batean kokaturiko hondartzan 1938 eta 1944. urte bitartean Saturrarango emakumezkoen Espetxe Nagusia izan zena zegoen. Eraikin multzo hark aurrez beste erabilera batzuk izan bazituen ere, aipaturiko urte tartean, milaka emakume izan ziren urte luzez espetxeratuak bertan. Kasu batzuetan, euren seme-alabak beraiekin zeuden presondegian eskasia latzak sufrituaz.

Espetxea osatu zuten eraikin multzoaren **garapena** ez zen sinplea. Esan bezala, hondartzan kokaturik zegoen eta urte batzuetan zehar luxuzko hotel-bainuetxea izan zen alboko eraikinekin batera. Apaiztegi-seminario, Eusko Gudarostearen kuartel eta Nafar erreketete eta tropa frankistan kuartel gisa erabili ostean, espetxe bihurtu zen 1938ko urtarrilean.

Ez da ahaztu behar Saturrarango Espetxe Nagusia ez zela errealitate isolatua, **frankismo garaiko presondegi-unibertsoaren** zati bat besterik ez zen. Unibertso haren helburua zigortzea eta garaiko disidente politikoak deusezteka zen, hau da, Erregimen Berriarekin bat ez zetozenak. Hauen artean emakumezkoak aurkitzen ziren, beraien ekintza propioengatik edota inguruko gizonezkoen ekintzengatik zigortuak izan zirenak. Zigor batzuk emakumezkoentzako espresuki pentsatuak ziren.

Saturrarango espetxeratuta egoniko emakumeen **kopuru** zehatza emateko zailtasunak gai honen inguruko urteetako isilune luzeari zor zaizkio. Datu ofizialak eskasak ziren eta faltuak izan zitezkeenaren susmoak zeuden. Hala, Martuteneko artxiboan aurkitu zuten Saturrarango presoaren erregistroa eta 2015eko urte hasieran Euskal Memoria Fundazioak publiko egin zuen bertan giltzaperatuta egon zirenen zerrenda¹⁷ ¹⁸. 1940. urtean 1.600 emakume inguru zeudela uste da. Ordutik aurrera emakume zein gizon espetxeratuak zifra beherantz joan zen, bai Saturrarango eta baita Espainiar estatuan ere. Kartzeletan aurkitzen zen gehiegizko masifikazio egoera zela eta Erregimen Berriak arazo bat zuen giltzapetuen kopuru handiarekin. II. Mundu Gerraren nondik norakoak ikusita Francok, aurpegia garbitu nahian edo, arrazoi ezberdinengatik jazotako zigor luditzeak (*redención*) eta indultuak erabili zituen konponbide gisa.

Saturrarango espetxean kartzelaratuakoen artean **umeak** zeuden. Gose, gaixotasun eta heriotzari ez-ezik, umeak indarrez atzemateko aukerari ere aurre egin behar izan zioten ama-emakume presoek. Antonio Vallejo-Nagerak, izen handiko psikiatra militarrek, garaiko ume bahiketen kausa izan ziren hainbat teoria argitaratu zituen. Horien artean ama "gorri" eta seme-alaben artean kutsadurarik gerta ez zedin metodorik onena banaketa zela zioen, honela, umeak puru mantentzen zirelakoan. Esan bezala, teoria hauen menpean umeen bahiketa ugari eta adopzio ilegalak jazo ziren, gaur egun oraindik argitzeko daudenak.

¹⁷ <http://www.naiz.eus/actualidad/noticia/20150209/saturrarango-kartzelan-espetxeratuta-egon-ziren-emakumeen-zerrenda-egin-du-publiko-euskal-memoria-fundazioak>

¹⁸ http://www.euskalmemoria.eus/eu/db/espetxeratuak_saturrarango

Emakumezkoen soilik aplikaturiko zigor motak egon ziren. Emakumezkoen fusilamenduak zuhurki egin baziren ere, publizitate handirik eman gabe, publikoki gauzatu ziren bestelako umilazio errituak bazeuden. Erritual horiek erakustaldi eta guzti gauzatu ziren, ikuslearen gozamen eta atseginerako hain zuzen. Hala nola, jendaurrean ilea larru-arrasera moztea edota soiltzea, errezino-olio bidezko garbiketak eta irain eta iseka publikoan desfilatzea moduko pasarteek hartzen dute lekua lekuko testigantzetan. Gainera, polizia-etxeetan, kuarteletan eta espetxeetan bortxaketak ohikoak ziren, sistematikoak, kontrol-mekanismo gisa erabiliak. Askotan, emakumezkoen gorputzak gizonezko ahaideak umiliatu eta iraintzeko erabiliak izan ziren.

Espetxeko eguneroko bizitza Mesedetako Ordenako 25 mojak kontrolatzen zuten. Jakina da moja hauek ez zutela gizatasunik eta tirano jarrera izan zutela, guztiz ankerra. Espetxeko apaizagatik jasotako kartzelaratu testigantzak, aldiz, positiboak dira. Bestalde, aipatu, espetxeko zuzendaria izan zen Antonio Maya ustelkeriaz auziperatua izan ondoren, bere kargutik kanporatua izan zela; Ama Nagusia bezalaxe, "pantera zuri" ezizenez ere ezaguna.

Espetxeko sendagileari dagokionez, Saturraranen preso zeuden emakumeekiko interes eza zuela azpimarratu daiteke, hainbat gaixotasun eta hilketaren bat edo beste ere eragin baitzuten. Guztira, 116 espetxeratutako emakume eta hauen seme-alaben beste 56 heriotza izan ziren dokumentatuak¹⁹. Datu hauei ospitale batera eraman ondoren hildako presoak gehitu behar zaizkie, baita askatasuna berreskuratu eta denbora gutxira hildakoena ere.

Saturraranen giltzaperatutako emakumeen batez besteko **adina** 36 urtekoa zen, adin-talde handiena 21-25 urte bitartekoa izanik. Espetxeratutakoena ia erdia ezkondata zegoen eta hauen artean lanbide errepikatua etxekoandarena (*sus labores*) zen. Emakumeen %52k seme-alabak zituen kartzelaratua izan aurretik. Garrantzitsua da, kartzela barruan erditzeak izan zirela aipatzea. Presoak Espainiako probintzia guztietakoak baldin baziren ere, asturiarrak, madrildarrak, kantabriarrak eta badajoztarrak ziren ugariak hurrenez hurren. Lekualdaketa edo trasladoak ohikoak ziren Saturraranen.

Zigorren Luditzearen (*Redención*) Patronatuaren publizitate atala zen **Redención aldizkaria**. Presoek presoentzat idazten zuten astekaria zen. Saturrarango espetxeari buruzko erreportaje zabalak ugariak ziren aldizkarian, sistemari gorazarre eginez eta bestelako berriei ere bide emanez. Aldizkariko berrogeita sei aletan aipatzen da Saturrarango espetxea berau martxan egon zen bitartean. Kontraesan handiak aurkitzen ziren erregimenak espetxe honi buruz eman nahi zuen irudiaren eta bertako miseria latzak jasan zituzten emakumeen testigantzen edota garaiko espedienteetan jasotako frogen artean. Finean, batzuentzat euren azalean sufrutako bizipen tamalgarriak zirenak, besteentzat zenbaki soilak ziren.

Espetxeko emakume gehienak "**delitu politikoak**" medio izan ziren kartzelaratuak: ia erdiei matxinadari laguntza eskaintzea leporatzen zieten. Emakume hauei egotzitako delitu modalitatea modu oso zabalean aplikatua izan zen, eta hala ulertua izan zen, matxinada delituarekin lotzen zituen garaiko justiziak. Zehazgabetasun oharrek tarteko eta gehiegizko hedadurarekin aplikatu izanak, delitua bera desnaturalizatzen zuen, izan

¹⁹ http://www.euskalmemoria.eus/eu/db/hildakoak_saturraran



ere, oposizio politikoko manifestaldi soilak delitu gisa definituak ziren, segurtasun juridikoa urratuz.

Matxinadari laguntzeaz gain, matxinadara batzea edota matxinada militarra ziren, hurrenez hurren, Saturraranen preso zeuden emakumeei leporatutako delitu ohikoenak.

Hala ere, aipatu beharra dago politikari lan aktiboa eta kargu publikoak zituzten emakumeek gain, Saturraranen giltzaperatutako emakumeen %38,2ak ekintza politikoekin zerikusirik ez zutela. Azken hauek ekintza politikoekin zerikusia zutenekin edozein motatako lotura izateagatik zeuden preso, izan senide, bikotekide, lagun, ezagun edota auzoko. Azpimarratzekoa da, baita ere, jokabidearen arabera ezarritako kondenaren neurrigabekotasuna. Horren adibide garbia ziren Saturraranen 12 eta 30 urte bitartean kartzelaratuak emakumeen jokabideak, hala nola, adierazpen ideologikoak izatea edota erlazio edo lotura jakin bat mantentzea Frente Popularreko ideologiarekin bat zetorren pertsonaren batekin.

Laburbilduz, garaiko Kode Penal estatutak bere atzaparretan zuen tresna zen, mehatxatzeko eta beldurra eragiteko erabiltzen zuena.

Aipatzekoa da **prozedura juridikoetan** berme prozesalen gabezia erabatekoa zela. Sortutako Tribunal bereziak ez ziren, inondik inora, inpartzialak. Prozedura azkarrak ziren eta defentsa eskubidea bera ere urratzen zen.

Garaiko espetxeetako masifikazio arazoari aurre egiteko helburuarekin pentsatu ziren **kondenak lanagatik luditzea**. Lanaren aitortzea gauzatu zen kondenak lan bidez laburtzeko. Lana-betebehar edota lana-obligazio modura ikusi arren, beti ez zekarren kondena laburtzea. Gainera, perspektiba bikoitz bati erantzuten zion: batetik, estatuarentzat lagungarria zen, izan ere, eskulan merkea zen eta estatuaren berreraikuntza ahalbidetzen zuen; bestetik, kartzelaratuaren zuzenketa morala errazteko tresna modura ere baliatzen zen lana.

Lanaren bidez kondenak luditzeak bazuen ezberdintasun bat genero aldagaia sartzean. Kondenen luditzea zekarten emakumezko presoek gauzatutako lanei zegokienean, Saturrarango espetxeetako kasu, gehienak labore-tailerrak eta emakumeen rolaekin bat zetozen lan motak ziren, joste-lanak, etxeko lanak eta antzerakoak. Aipatzekoa da perspektiba patriarkalak zuen pisua genero joeren eta sexuaren arabera lan banaketa ematerakoan.

Errora joanda, izatez, emakumezkoek ez zuten kanpoan lan egiteko baimenik. Emakumeak delitugile izatea larria zen, izan ere, euren generoari zegozkien jokabideak haustea zekarren. Emakumezkoentzat lana derrigorrezkoa zen, zuzentasun femeninoa lortzeko tresna gisa erabilia. Gizonezkoen kasuan, aldiz, garaiko errealitatean, lana presondegiko onura modura ulertzen zen.

Aipatutako emakume delitugileei buruz erregimenak zuen diskurtsoa *emakume eroriarena* zen, *prostitutatzat* jotzen zituen. Aitorpen hau espresuki emakumezko preso politikoaren kasuan soilik ematen zen. Horiek onbideratu edota bide onera eraman beharra izaten zuen erregimenak, hau da, emakumearen eredu idealera: emazte, ama eta ahizpa/arreba eredugarri bihurtu nahi zituen. Norabide honetan ulertu daiteke emakumeen kondenen luditzeak erlijio-lanketa trinkoarekin zuen lotura estua;



emakumeen zuzenketa, doktrinamendu eta politikoki ezereztera bideratuta zeuden luditze hauek.

Masifikazio arazoaren behin betiko konponbidea izango zen kartzelatik ateratzeko sistema kondenen ordezen, baldintzapeko askatasun eta indultuei buruzko araudia izan zen. Saturraranen ere araudi horrek eragina izan zuen; kondenen ordezenak eman ziren, baita baldintzapeko askatasunak ere. Indultuen kasua, aldiz, bestelakoa izan zen, izan ere, indultuen araudi erregulatzailerak indarrean sartu zenean Saturrarango Espetxea bere ibilbideko azkenetan zegoen.

Hala ere, esan beharra dago, erregimen frankistak ezarritako kartzelatik ateratzeko sistemak ez ziela helburu gizatiarrei erantzuten. Inondik inora. Neurri hauek garaiko espetxeetako masifikazio arazo larriaren ondorio zuzenak ziren.

Garaiko presondegi guztietako errealitatearen isla zen Saturrarangoa, bereziki emakumezkoen espetheen ispilu. Kartzelaratutako emakume gehienak matxinatze delituarekin zerikusia izateagatik izan ziren espetxeratuak.

Espetxeko eguneroko bizitza zeuden, hala nola, umilazio eritualak eta etengabeko bortxaketan moduko zigor larriak. Emakumezko gorputzaren erabileraren helburua emakumea bera zigortzea ez-ezik senarra edota beste gizonezko senideak iraintzea eta umiliatzea zen (ez zuten kontuan hartzen bere inguru hurbileko edo familiako emakumeei eragin ziezaioketena, lan honetarako erabilitako artikulu eta lan ezberdinetan behintzat ez da hala jasotzen). Gosea, gaixotasunak eta heriotza kartzelako egunerokotasunean, etenik gabe, jasaten zituzten miserien zati ziren. Horri guztiari Saturrarango espetxean kartzelaratutakoaren artean umeak ere aurkitzen zirela gehitu behar zitzaion eta aipatutako miseriei ez-ezik, umeak indarrez atzemateko aukerari ere aurre egin behar izan zioten ama-emakume presoek.

Mugimendu Nazionalaren pentsamoldearen jarraipena besterik ez ziren espetxe- eta zigor-sistemak. Bi helburu zituen: batetik, zigorraren mehatxuaren bidez kikiltzea eta bestetik, etsaiaren "zuzenketa morala" eta politikoki deusezteak. Azken horrek Saturraranen izan zuen bere oihartzuna, izan ere, etsaitzat zituztenen oinarrizko eskubide eta askatasunak ez ziren errespetatzen, urratu egiten zitzaizkien.

Memoria historikoari eta ondareari lotuta, esan beharra dago inolako babes motarik ez izateak eta ondare gisara sailkatuta edo onartuta ez egoteak arriskua suposatzen duela gure historiaren zati (izan) diren hainbat lekuko materialentzat. Kasu honetan, Saturrarango emakumezkoen espetxe izandako eraikin multzoarentzat hala izan da. 1980. hamarkadan, Francoren diktadura amaitu ostean, eraitsi zuten, 1983ko uholdeek egitura kaltetu zutela arrazoituz. Egitura birgaitzeko edota beharrezko eskuhartzeak aurrera eramateko zein asmo egon ziren ere ez da aipatzen eskuartean izandako iturri ezberdinetan.

Saturrarangoa ez zen **eraitsi** zuten espetxe bakarra izan. II. Errepublika garaian Victoria Kenten aginduz eraikitako Madrilgo *Ventas* kartzela ere eraitsia izan zen, 1950. hamarkadan. Erregimen frankistak erabilpen handia eman zion espetxe hari, 500 emakumerentzat aurreikusia zegoen arren, 14.000tik gora pasatu ziren bertatik 1940 eta 1950. hamarkadetan. Aztergai dugun espetxeko kasua ere oso antzekoa da, bietan gainpopulazioa izan baitzen nagusi, Saturraraneke 700 presorentzako edukiera izan



arren, bikoiztu egiten zuen zifra hori eta 4.000 preso inguru egon ziren bertan giltzaperatuta.

Eraiste horiek aztarnak desagerraraztea ekarri dute, dokumentazio lana zailtzea eta gure historia propioa ezagutzeko oztupoak sortzea. Jendarte baten oroimenetik ezabatzea kasik, berreskuraketa lanak egin ez balira behintzat. Jendarte bati bere oroimena borratzea identitate galerarekin bat dator, kausa-ondorio lotura izanik. Beharbada, "etsaia deuseztearen" ideia barnean kokatu beharko litzateke ekintza hau ere, izan ere, politikoki ideia berberak ez izatearen arrazoa nahikoa zen deusezteko, ez errespetatzeko. Horrez gain, eraisteko erabakiaren atzean Amnistia Legearen atzean zegoen asmo bera ezkututzen denaren ustea ere hor dago, hau da, albo batek eginiko gehiegikeriak estaltzearena.

Behin honaino iritsita, ondarea hautatu egiten dela azpimarratu beharra dago. Ondarea ez da inpartziala, ez dago marra gorri garbirik eta formula magikorik berau hautatzeko orduan. Gaur egun ondareztat hartzen dena ez da objektiboki ondare izendatu, balorea eta prestigioa interesen arabera esleitzen dira.

Ondare arkitektonikoari dagokionean, garrantzia irizpide zehatz batzuen baitan eman izan zaiela adierazi behar da. Horren adibide garbia da, espazio publikoak izan duen protagonismoa, oro har, gizonezkoek bereganatutakoa eta espazio pribatuak, aldiz, jasan duen (eta jasaten duen) ikusezintasuna, emakumeei esleitutakoa. Beste adibide bat, kultura praktikatu izan den erakina da. Hauei eman zaien garrantzia, emandako prestigio eta balorea ere azpimarratzekoak dira; beharbada, tradizionalki ontasunarekin lotuak izan direlako. Saturrarango espetxearen kasua ez da hori, ordea.

Ondarea zer den eta zer ez den erabakitzerako orduan irizpide global eta zabalagoa hartu beharra dago. Ez da nahikoa eraikin batek (edo multzo batek) izan dezakeen balore arkitektonikoa; askotan, eraikinaren mamia urteetan zehar izan den horretan dago, finean, izaeran: jendarte batentzat (izan) duen esanahian. Hori babesteko legerik edo modurik ez badago, itxura soilik gurtzen jarraituko dugu, arkitektura ahaztuen zerrenda puzten. Gogoratu arkitektura ahaztuek hiru puntu amankomun dituztela, batetik, prestigio sozial eza legoke, bestetik, arrazoi bisual edo espazial falta, balore arkitektonikoa litzatekeena, eta, azkenik, ikusezintasun historikoa pairatu dutenak dira.

Interes Komuneko Ondasun (gaztelaniazko *Bien de Interés Común*) izendatzeak babes maila suposatzen du, nahiz eta ez izan behar bestekoa. Hala izendatutako adibideetako bat Castuerako (Badajoz) kontzentrazio eremua litzateke. Bertan hainbat ikerketa egin dituzte disziplina ezberdinetako adituek elkarlanean, tartean indusketa arkeologiko ezberdinak aurrera eraman dituzte. Han gertatuak ilunpetatik argitara eramaten aritu dira, jakintza (bir)sortzen. Garrantzitsua da horrelako ikerketak bultzatzea erakunde publikoek.

Puntu honetara iritsita, ikusezintasun historikoaz jarduteko garaia da. Saturrarango emakumezkoen espetxearen kasuan, **ikusezintasuna** azaltzeko gogoeta soziologiko batzuk egitea beharrezkoa da. Garrantzitsua da ikusezintasun horren arrazoiak gogora ekartzea. Zergatik izan diren ahaztuak galdetu behar da. Arrazoi gurutzatuak izan daitezke, arau eta normaltasunetik kanpo geratutakoak, bazterretan: guda *galdu* zutenak izateari emakumeak izatearen ikusezintasuna gehitu behar zaio. Gerra Zibila



deritzon horretan garaituak izan zirenak giltzaperatzeko zentroak ez zuen/du zentralitatearik gizartean. Kolokialki esanda, *gorri* izateagatik pairatzen zuten ikusezintasuna zegoen batetik. Bestetik, aldiz, emakume izatearen baldintza zegoen, hau da, emakumeek jasandako ikusezintasun historikoa. Horren muinean jendarte androzentrista dago, protagonismo guztia espazio publikoan eta gizonengan jarri ohi da, emakumezkoak bigarren maila batean utziz. Guzti horren batura da aztergai dugun espetxea ondare gisara katalogatu ez izana, inolako babesik aplikatu ez izana.

Lehenago aipatu den moduan, interes zehatz batzuen baitan soilik egindako berreraikuntza gisa ulertu behar da historia. Memoria historikoaren berreskurapena bultzatuz, garrantzitsua da arkitektura hauek eta, era berean, eraikin horietan emakumeek pairatutakoak urteetan jasan duen ikusezintasuna salatu eta azaleraitea. Gaiari merezi duen zentralitatea eta garrantzia ematea, fokua jartzea, jendartearen orimenean bere lekua egitea.

Saturrarango ez zen espetxe izateko diseinatua izan, kartzela inprobisatua zen. Hala ere, bertako baliabideei eta bereziki **arkitekturari emandako erabilpena** argitaratu eraman nahi izan da. Lan honetan ostatu izandako eraikin haien berrerabilpeneari ezkutatu ziren asmoak azaleraite izana espero da. Gunearen antolaketa eta egituraketa ez zirela ausazkoak eta kasualitatearen ondorio izan azpimarratu beharra dago. Espetxe-logika krudel eta anker bati erantzuten zioten, zeinak giltzaperatuak deusezte bilatzen zuten, horien bergizarterateza izan ordez helburutzat.

Norabide horretan, argi geratzen da **arkitektura tresna** gisa ulertu beharra dagoela eta honi emandako erabilpenaren arabera eragina ezberdina izan daitekeela. Saturrarango espetxearen kasuan, erabilera makurra eman zitzaion bertan espetxeratutako emakume eta umeen baldintzak gordinduz. Kontrola erraztu zen, zaintzaren ekonomia bilatuz, emakumezko presoak talde ezberdinetan sakabanatu ziren hainbat eraikinetan hauen arteko komunikazioa eta batasuna ekidinez, honela matxinatze arriskua jaitsiz eta zigorrak gupidarik gabe aplikatu zitzaizkien tokiko baliabide eta baldintza negargarriei, zigor ziegei, probetxua ateraz.

Finean, eraikin multzo hark espetxe modura izan zezakeen potentzialitatea eraginkorki ustiatu zuten frankistek. Momentuan momentuko erabakiekin eta egunerokotasuneko engranaje txikiek funtzionarazten duten mekanismo baten moduan ulertuz. Espetxea pabiloi ezberdinetan banantzeak, haien egoerak, etengabeko errezo eta erlijio errituak, ezarritako kontrol diziplinak, lan luditzeak eta bertako araudi zorrotzak eragin zuzena izan zuten giltzaperatutako emakumeen egoera animiko eta emozionalean.

Espetxe arkitekturarekin lotuta, esan, Melossi eta Pavarani (1987), Foucaultek ez bezala, ekoizte eredu kapitalista eta espetxearen sorreraren arteko erlazioa azpimarratzen zutela. Gizarte industrialarekin batera sortutako erregimen burgesaren sorrerari lotzen zioten zigor sistema nagusitzat kartzela hartu izana, honela erregimen zaharreko supizio eta gorputz zigorrei amaiera ezarri. Mendebaldeko munduan hedapen azkarra izan zuten presondegiak eta horrek aldaketa handiak sortu zituen, industrializazioaren ondorioz sortutako kapitala pilatzeko moduak bezalaxe.

Hala ere, Melossi eta Pavarani eta Foucaultek erlazioatzen zituzten gizarte egituraketa eta sistema ekonomikoa. Bi ikuskerak ere bat zetozen espetxe zigorra edota askatasuna kentzea zigor sistemako zigor nagusi bilakatzen zela ondorioztatzen.



Aipatzekoa da Michel Foucaultek (1986) kartzelai buruz egindako azterketa historikoan, ez zuela emakumeen espetxeen egoera kontuan hartu. Agian, Foucaultek ez zituen emakumezkoak giltzaperatzeko zentroak zigorrezkotzat jo. XVIII. mende amaieran sortu zen giltzaperatutakoak zuzendu eta euren jarreragatik moralki zigortzeko ideia. Gauza bera lortu nahi zuten XVI. mende amaierako emakumezkoen espetxeen sortzaile ziren ideologoen.

Emakumezkoen rola etxeari eta zaintzari lotzea funtsezko elementua izan zen erregimen diktatorialaren errepresioaren prozesuan, diziplina-boterean eta gizarte nazional-katoliko-patriarkalerako bidean. Legeen, araudien, hezkuntza-ereduen eta Emakumezkoen Sekzioaren bidez, erregimen frankistak emakumezkoen arketipo arkaiko eratsua eta esanekoa ezarri zuen. Emakumezkoak esparru publikoko jardura guztietatik kanporatzen zituen eta etxea eta familia ziren emakumearentzako baimendutako gune bakarrak.

Frankismoak gizonezkoak nagusi ziren ordena patriarkala ezarri zuen legez. Emakumezkoen eredu etxekotu eta menpekota ezartzeko, erregimenak garbiketa soziala egin zuen. Lehen gerraostean, emakumezkoen aurkako errepresioa gogorra izan zen, emakume asko espetxeratu zituzten. Eskubideak ukatu zitzaizkien eta derrigorrezko etxekotasunera zokoratu, menpeko bihurtuz. Hala, emakumeak gizonezkoen etengabeko tutoretzapean egotera behartu zituzten, berezko nortasunik gabe. Bestela azalduta, gerra garaian eragile pasibo izatearen genero joera hautsi eta testuinguru publikoan emakume aktibo bihurtu zirenek larrutik ordaindu zuten erregimenak emakumezkoentzat prestatuta zuen *rol* pasibo hori onartu ez izana. Zigortuak izan ziren. Esleitutako *rol* hori bera indarkeria mota bat zen, ondorioz, emakumezkoek ez zuten ihes egiteko aukerarik.

Errepublika garaian, legedi alorrean hainbat aurrerapauso eman baziren ere, bertan behera geratu ziren frankismo garaian. Emakumeoi esleitutako genero joerek indarrean zirauten. Erresistentziak ugariak izan ziren ezkerretik zein eskuinetik. Bi bandoetako bakar batek ere ez zuen emakumezkoen esleitutako eredu tradizionala albo batera utzi. Horren adibide garbia zen Emakume Abertzaleen Batzak (EAB) euskal emakumezkoen eredu bakarra: emazte eta ama ona. Gizonezkoen borroka politiko eta militarrean laguntzea zen helburua, beti ere, bigarren maila batetik, "etxea albo batera utzi gabe". Francoren Espainiaz gain, Alemania nazian ere emakumeak eremu pribatura mugatu zituzten, amatasuna eta etxea ziren emakumeentzat eskaintza bakarrak. Ezagunak dira *tradiziozko hiru Kk*: umeak (*kinder*), sukaldea (*küche*) eta eliza (*kirche*).

Emakumezkoen gorputza zigor-domeinu publiko modura erabiltzearen borondatea edo ideia ere azpimarratzekoa da. Logika katoliko-patriarkalean behin eta berriz errepikatzen zena/dena.

Mendeetan zehar emakumei eta gizonei, lege penalak urratu zituzten kasuetan, modu ezberdinetara zigortzen zitzairen. "Emakume preso" subjektua emakume apurtzailatzat (transgresoratzat) hartua zen, lege penalez gain, bere izaera femeninoa erregulatzen zuten arau sozialak ere hautsi baitzituen (desbidazio soziala deritzona). Beraz, espetxeratzeko emakumeen kasuan **zigor bikoitza** jasaten zuten eta gaur egun, oraindik ere, jasaten dute: bata, penala eta bestea, berriz, soziala. Lehena, zigor penala sententziak agindutako kondenaren urteak betetzean zetzan. Bigarren zigorra,



beriz, zigor soziala gizarteak ezarriko zigorra zen, emakume bezala zegozkien betebeharrak ez gauzatzeagatik ezartzen zena, hau da, alaba, emazte eta ama onak ez izateagatik edota ingurukoak ez zaintzeagatik jasan beharreko presio eta gutxiespen soziala. Azken hau oso modu gogorrean zigortua izan zen frankismo garaian, hain zuzen ere, feminitatea umiliatzeko emakumezkoen aurka aplikatu ziren zigor espezifikoekin.

Beraz, ez zen kasualitatea urteetan zehar emakumeek pairatutako ikusezintasuna, bigarren maila eskaini izana, ikastetxeetan irakatsitako historian ahaztu izana. Aspaldi errotutako mekanismo guztiek martxan baitiraute oraindik ere jendarte honetako engranajeek modu berean funtziona dezaten, baloreak era berean erreproduzitu daitezten.

10. Bibliografia

10.1. Liburuak eta artikulak

ALMEDA, E. (2002): *Corregir y castigar. El ayer y hoy de las cárceles de mujeres*, Bartzelona: Editions Bellaterra.

ALMEDA, E. (2003): *Mujeres encarceladas*. Bartzelona: Ariel.

ÁLVAREZ FERNÁNDEZ, Jose Ignacio (2007): *Memoria y trauma en los testimonios de la represión franquista*, Bartzelona: Anthropos.

ARTEAGA, Txaro (1990): "Mujer y cárcel y Emakunde", *Eguzkilore*, nº 4, 1990: 103-110 orr.

AYÁN VILA, X. M.; LÓPEZ-RODRÍGUEZ, A. D. eta MUÑOZ ENCINAR, L. (eds.) (2013): *De la ocultación de las fosas a las exhumaciones. La represión franquista en el entorno del Campo de Concentración de Castuera*. ISBN 978-84-695-7917-6. CSIC.

AYÁN VILA, X. M. (2003): "Arquitectura como tecnología de construcción de la realidad social", *ARQUEOLOGÍA DE LA ARQUITECTURA*, nº 2, 2003: 17-24 orr.

AYÁN VILA, X. M. eta GARCÍA RODRÍGUEZ, S. (eds.): "Actas del I Congreso Internacional de Arqueología de la guerra civil española (Vitoria-Gasteiz, 9-13 de diciembre de 2014). Cuadernos de Arqueología y Patrimonio, 39. Santiago: CSIC.

AYÁN VILA, X. M. eta GARCÍA RODRÍGUEZ, S. (2016): "Ha llegado España: Arqueología de la memoria nacionalcatólica en Euskadi", *ArqueoWeb*, 17, 2016: 206-238 orr.

AZKARATE, A. eta LASAGABASTER, J. I. (2006): *La arqueología y la recuperación de las "arquitecturas olvidadas"*, IV Congreso Internacional de Restauración "Restaurar la Memoria". *Arqueología, Arte y Restauración*, Valladolid. 137-160 orr. DOI: academia.edu

BASTERRETxea, Xabier; UGARTE, Arantza (2007): "Prisión central de las mujeres de Saturrarán (1938-1944)"

CERVELLÓ DONDEIS, Vicenta: *Las prisiones de mujeres desde una perspectiva de género*, Revista General de Derecho Penal, *Iustel*, nº 5, 2006.

EGAÑA, Iñaki (2009): *Los crímenes de Franco en Euskal Herria: 1936-1940*, Tafalla: Txalaparta.

EHEVARRIETA LEGRAND, Oihana (2013): *Erlazio afektibo sexualak espetxe garaian, askatasun (g)une? Hainbat euskal emakumeren esperientziak*, UPV-EHU, Donostia. (Publikatu gabeko tesina)

FOUCAULT, Michel (1979): *Vigilar y Castigar. Nacimiento de la prisión*, Siglo XXI, Madrid.

GONZALEZ-GOROSARRI, Maria – BARINAGA, Eduardo (2010): *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos. La cárcel de Saturrarán y la represión franquista contra las mujeres, a partir de testimonios de supervivientes*, Tarttalo, Donostia.

GRAHAM, H. Breve historia de la guerra civil. Madrid: Espasa Calpe, 2006. ISBN: 84-670-2015-6.

HENRÍQUEZ VERA V. 2012. Aplicación didáctica de la Guerra Civil española en el aula de ELE. Universidad de Las Palmas de Gran Canaria.

HERNÁNDEZ HOLGADO, Fernando (2003): *Mujeres encarceladas. La prisión de Ventas: de la República al franquismo, 1931-1941*, Madrid: Ediciones de Historia.

HERNÁNDEZ HOLGADO, Fernando (ed.) (2007): *Presas de Franco*, Malaga: Fundación de Investigaciones Marxistas.

JIMENEZ, Eva; LEÓN, Ander; ORBEGOZO, Izaskun; PEGO, Laura; PÉREZ, Ana Isabel eta VODOZMEDIANO, Laura (2012): *Situación penitenciaria de las mujeres en la cárcel de Saturrarán durante la Guerra Civil Española y la primera posguerra*, Emakunde, Gasteiz.

LARREATEGI, Jon A. (2007): "Crónicas de la guerra y la represión: Cárcel de Saturrarán, prisión franquista", *Gara*, 19/03/2007.

UGARTE LOPETEGI, Arantza (2007-2008): "Presó Central de Saturrarán (1938-1944)", *Retrobament*, nº 3, 2007-2008: 14-17 orr.

UGARTE LOPETEGI, Arantza (2011): "Saturrarán: sólo quedan los tamarindos". Ediciones Universidad de Salamanca. Stud. Hist. Hº cont. 29, 267-280 orr.

VINYES, Ricard (2002): *Irredentas: Las presas políticas y sus hijos en las cárceles franquistas*, Madrid: Temas de Hoy.

YAGÜE OLMOS, Concepción: "Mujeres en prisión. Intervención basada en sus características, necesidades y demandas", *Revista Española de Investigación Criminológica*, nº 5, Art. 5, 2007.

ZARANKIN, A. eta NIRO, C. (2006): La materialización del sadismo. Arqueología de la arquitectura de los centros clandestinos de detención de la dictadura militar argentina (1976-1983). En *Arqueología de la represión y la resistencia en América Latina, 1960-1980*, compilado por A. Zarankin y P. Funari: 159-182. Editorial Brujas, Córdoba.

10.2. Interneteko estekak

http://emakumeenoroiemenean.net/wp-content/uploads/2016/03/euskEmakume-RECUPERACI%C3%93N-DE-LA-MEMORIA-HIST%C3%93RICA-mujeres_EUSKERA.pdf

<https://www.flickr.com/photos/10719211@N03/973982157/>

<https://www.flickr.com/photos/llumquinonero/sets/72157622644441601/>

<http://www.asturiasrepublicana.com/libertad17.html>



<http://www.asturiasrepublicana.com/libertad13.html>

<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2164/saturrarango-kartzela>

http://www.berria.eus/albisteak/120790/frankismoaren_genero_krimenak_ikertzeko_ker_eila_aurkeztu_dute.htm

http://www.berria.eus/paperekoa/1845/040/001/2016-03-16/kartzela_zigorra_oso_lotua_dago_generoari.htm?utm_source=newsletter%C2%ACut_m_medium=email%C2%ACutm_term=116%C2%ACutm_campaign=116

<http://ahaztuak1936-1977.blogspot.com.es/2008/11/nunca-mas-saturrarango.html>

<https://ondarroakohistoria.wordpress.com/2009/01/31/saturrarango-espetxea/>

<https://assaikastola.wikispaces.com/file/view/asier+eta+iker+lana.pdf>

<http://azkoitia.eus/eu/berriak/3061-galarazitako-amodioa-klase-borroka-eta-gerrazibilaren-testuingurua-batzen-ditu-itziar-eliasen-eskutitzak-antzezlanak>

http://www.euskara.euskadi.eus/r59-luredir/eu/contenidos/articulo/c0508/eu_d0508014/0508014.html

http://www.euskara.euskadi.eus/r59-luredir/es/contenidos/articulo/c0201/eu_d0201023/0201023.html

10.3. Bestelakoak

- Arantza Ugarte, Xabier Basterretxea eta Iñaki Egañarekin elkarrizketak.
- SANTESTEBAN, A.; ECHEVARRIETA, O. eta RODRIGUEZ, Z. (2015): "Kultura Feministaren X. Jaialdia" *Mugaren arkitektura: Kartzela* [Hitzaldia], FEMINISTALDIA, Donostia, 2015eko Abenduaren 19an. Publikatu gabeko transkripzioa.
- MARTINEZ, Josu; LARREATEGI, Txaber; OLASAGASTI, Eneko; TELLERIA, Iurre (2010): *Prohibido Recordar. Cárcel de Saturrarán 1938-1944* [Dokumentala], Tentazioa/Moztu/Rec Grabaketa Estudioa, Euskal Herria.
- Gipuzkoako Artxibo Historikoa
- Mutrikuko Erregistro Zibila
- Josefa Segret preso oiharen egunerokoaren zati bat (publikatu gabea).